“(...)declarase suprimido el Instituto Libre municipal que hasta el presente viene siendo subvencionado por esta Corporación, destinando por ahora el edificio en que aquel se hallaba situado al Instituto Provincial, a cuyo claustro se cederá, hasta que otra cosa se resuelva, el uso del mismo; con lo cual se conseguirá a la vez una no despreciable ventaja para la Hacienda municipal y el cumplimiento de un servicio público importantísimo cual es el de la enseñanza que hoy ocupa un lugar distinguido entre los pueblos cultos.”(AIU)

BIBLIOGRAFÍA

ARCHIVO INSTITUTO USANDIZAGA (AIU). *Sección D, Negociado 10, libro V.*

ARCHIVO MUNICIPAL DONOSTIA (AMD). *Libro 546, Expediente 10, Sección B, Negociado 11, Serie III.*

ASTRAIN (1909). *Historia de la Compañía de Jesús*, III. Madrid.

MENDIOLA QUEREJETA, R. (1963). *La vida cultural en San Sebastián. Anotaciones histórico-retrospectivas*. San Sebastián: Comité Ejecutivo de las Conmemoraciones Centenarias de la Reconstrucción y Expansión de la Ciudad, 1813-1863-1963-1963.

5

Euskarazko alfabetatze ereduaren ezaugarri historiko-pedagogikoak

ANA EIZAGIRRE SAGARDIA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean azken hamarkadetan garatu izan den ikerkuntza eremua da Euskal Herriko alfabetatzearen ikerkuntza. Alfabetatzeak azken berrehun urteetan zehar Euskal Herrian izan duen garapena espikatzen saiatu den hainbat lan burutu dute bertako irakasle eta ikertzaileek. Testuinguru horretan, bereziki goraipatu behar dugu Paulí Dávila irakasleak eginiko lana, bera izan baita azterketa historikorako ildo berria ireki eta lehenengo lanak martxan jarri dituen irakaslea (1998). Berak jarritako hariari jarraituz, saileko zenbait irakasle jardun gara alfabetatzearen azterketa Euskal Herrian kokatzen eta euskal eredia —alfabetatzearen euskal eredia— ezaugarrituko luket elementuak definitzen. Ondorengo lerroetan, azterketa ildo berriaren ardatz nagusiak azalduko ditugu eta, horrekin batera ere, XIX-XX. mendeetan zehar euskal ereduak izan dituen ezaugarri historiko-pedagogiko esanguratsuenak markatuko.

5.1. ALFABETATZEAREN EUSKAL EREDUA

Alfabetatzearen euskal eredia kontzeptuaren bitartez denbora epe desberdinetan zehar eramandako prozesu alfabetatzaileak eredu bakar baten barruan txerta ditzakegu eta, horrela, hobeki ezagutu euskaldunok zein bideetatik eta nola garatu dugun gure kultura, ahozko kulturatik idatzizkora iraganaz eta etorkizun hurbileko kultura zibernetikorako jauzia emanaz. Horrenbestez, alfabetatzearen euskal eredu historikoan bilduko ditugu, sinkronikoki zein diakronikoki, esplizituki garatu izan den erdarazko alfabetatze modua, euskarazko alfabetatzean eginiko saiakera esplizituak eta euskarazko zeharkako alfabetatzea. Finean, eredu honek bere baitan hartzen du Euskal Herrian historian zehar garatu izan den alfabetatze prozesu ororen analisia, dela euskarazko alfabetatzearena, dela gaztelerazko-

arena, dela frantsesezko alfabetatze prozesuarena eta, noski, prozesuek beraien artean dituzten erlazioena.

5.1.1. Hastapeneko ikerketa lanak Euskal Herrian.

Alfabetatzearen euskal eredu historikoaren eraikuntzan, honen definizioa eta epekaketa izan dira hastapeneko lanak. Zentzu honetan, mugarriak izan dira Dávilak, Fernandez eta Eizagirrerekin batera, argitaratu dituen lanak (1991, 1992, 1993, 1994b, 1995). Epekaketa burututa, eredu historikoaren gakoen eza-gutzan ere sakonduz hainbat lan argitaratu dituzte, besteak beste, alfabetatze prozesua eta eskolaratze prozesuaren arteko erlazioa aztertu dutenak (Dávila, Eizagirre eta Fernandez, 1994a, 1995), eta, baita, euskarazko alfabetatzea erabileratutuinguru soziokulturalen baitan analizatu dutenak ere (Dávila, eta Eizagirre, 1995, 1996; Eizagirre, 2002). Erreferentziazko lanak dira, halaber, Iztuetak, Zabaletak eta Eizagirrek XX. mendearen azken hamarkadetakoko euskarazko alfabetatzea eta euskalduntzearen inguruan burutu dituzten azterketak Dávilaren koordinazioaren pean argitaratu zen *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. (1995) liburuan argitaratu zirenak. Lan horiek guztiek azken bi mendeetako alfabetatzearen ikuspegi zabala eskaintzen digute. Aipatzekoak dira, baita ere, UZTARO aldizkarian (1993) “*Euskararen batasunaz*” izenburua zeraman 9. zenbakian Zabaletak eta Eizagirrek argitaratu zituzten artikuluak; Eta *ELE* (1991) aldizkariaren *Alfabetatzeaz* monografikoan argitaratu zituztenak. Guztiak definizioa eta mugaketa-saiakerak diren heinean, eta prozesuaren ezaugarri historikoak ezartzen dituzten neurrian, euskal alfabetatzearen historian oinarritzko lan bihurtu dira. Hazi horietatik elikatuz, artikulu honen egileak “Alfabetatze espazioak eta herri-heziketa Gipuzkoan (1876-1918)” doktoradutza tesia defendatu zuen (2005) sailean eta hainbat lan argitaratu (2007, 2008).

Aipatu erreferentzietaz gain, ez dugu ezagutzen Euskal Herriko alfabetatze prozesua aztertzen duen beste ikerketa ildorik, lan solte bat edo beste kenduta (García, Pareja eta Azkarraga, 2004; Zabalza, 2006). Tradizionalki egin diren ikerketa gehienak Frantziako eta Espainiako estatu-ikuspegitik egin dira. Ikus, adibidez, Iparraldeari erreferentzia eginez, Furet eta Ozouf-en (1977) azterketa klasikoa eta, Estatu Espainiari dagokionez, Viñao Fragok (1994) egindako azalpen sistematiko eta osatua. Oro har, Iparraldeko edo Hegoaldeko herrialdeei eta bertako alfabetatze maileri egiten zaie erreferentziarik, baina gehienetan Estatu-alfabetatzearen ikuspegitik egindakoak dira, erdaran oinarritutako ikuspegi elebakarretik eginak, hain zuzen. Euskarari erreferentziarik egin zaionean, egin bazaio, Estatu-hizkuntzaren alfabetatze prozesuaren oztopo gisa edo kultura idatzizkiarekiko zein eskolatzearekiko erresistentzia-elementu gisa aurkeztu izan da euskara gehienetan. Bestalde, alfabetatzearen historiaren azterketa Euskal Herriko egin izan denean, oro har, alfabetatzea bera bigarren mailako interesgunea

izan dela esan dezakegu. Euskararen edo euskal kulturaren bilakaeraren azterketa orokorren baitan beste atal bat gehiago bezala aztertu da alfabetatzea, egin zaizkion erreferentziak noizean behingoak eta azalekoak izan direlarik.

5.1.2. Alfabetatzearen historiarako azterketa-ildoak

Alfabetatzearen analisiari —euskaraz zein gaztelerazkoari— nonbait eskaini izan bazaio arretarik eskolaren eta eskolaratzearen historiari buruzko ikerketetan izan da, kasu askotan atalaren bat edo beste eman izan baitzaio hark populazioaren eskolaratzearekin zein gizartearen modernizazioarekin izan duen erlazioari.

Halere, esan daiteke Europa eta Estatu Batuetako historialarien, antropologoen, psikologoen, hizkuntzalarien eta soziologoen artean areagotuz joan dela alfabetatzearekiko interesa, hainbat ezagutza eremutatik aztertua izan delarik, hots, estatistikoki, historikoki, teorikoki, konparatiboki, monografia gisa, alfabetatzearen aspektu sozio-ekonomikoen arloan, aspektu psiko-pedagogikoen inguruan, aspektu kultural eta linguistikoen inguruan, planifikazio, administrazio eta ebaluazio mailan, eta alfabetatze metodo eta materialen ikuspegitik, besteak beste. Interesa ezezik azterketa- ildo eta planteamendu teoriko eta metodologiko berriak ere garatuz joan dira azken hamarkadetan, ikuspegi aldaketa desberdinak mamitzen joan direlarik.

Lehenengo perspektiba aldaketa kezka-iturria bera aldatzea izan da. Hastapeneko lanetan analfabetismoa hartzen zen oinarri gisa. Gerora, berriz, alfabetatze prozesuetan jarri da indarra. Interes fokua lekuz aldatzeak, noski, erabiliko diren iturrien eta metodoetan berrikuntzak ere ekarriko ditu (Viñao, 1984). Hein berean, beharrezkoa ikusi da alfabetatzea bera momentu eta espazio bakoitzean birkontzeptualizatzea eta, ondorioz, alfabetatzeaz hitz egin baino alfabetatzeaz hitz egitea eragin du (Viñao, 1992). Finean, alfabetatze moduak daude, esaten da, eta gizarte bakoitzerako, testuinguru eta momenturako bakoitzerako, alfabetatze-ezalfabetatze maila desberdinetan kokatuak izan gintezkeela pentsatu beharrean gaude. Hori dela eta, testuinguru sozial, kultural eta historiko zehatzetan oinarrituriko ikerketak burutu beharra azpimarratzen da, irakurketa eta idazketaren historia egitea, alegia, hauek praktika soziokultural gisa hartzetik abiatuz. Oro har, esan dezakegu, azterketa kuantitatiboak egitetik —erroldetako datuetatik abiatuz alfabetatzearen kuantifikazioa, bilakaera eta hedapena aztertze-tik— azterketa kualitatiboetarako (Petrucci, 1999) jauzia egin dela, interesgunea orain liburu, inprenta, literatura, idazketa eta irakurketaren historian jarritz, alfabetatzearen eragileen eta testuinguruen azterketan, finean.

Ikerketa horien guztien haritik, interesgarria iruditu zaigu, eta horregatik azaldu nahi dugu segidan, alfabetatzearen historiak, oro har, eskaini digun hainbat ondorio eta irakasbide azpimarratzea, haren izaera eta efektuen inguruan orokorki onartu izan diren sineskeria ugari hankaz gora botatzen dituztenak. Ildo

horretatik, Viñaok (1999) laburbiltzen dituen puntuak ekarri nahi ditugu hona: Baieztatzen da, Alfabetatzearena mitoa besterik ez dela, ez baitago alfabetatze prozesua eta modernizazioaren, garapen ekonomikoaren eta, finean, progresoareneko arteko linealtasunik. Halaber, alfabetatzea eta eskolaratzea ez dira gauza bera. Lehenengo prozesuak ez du zertan bigarrena adierazi behar. Horren adibidea dugu Suediaren kasua —XVII eta XVIII. Mendekoa— eskola ez dela izan eta ez dela alfabetatzea eragiten duen eragile bakarra, ez eta nagusia, ere ikus-tarazteko baliagarria zaiguna (Viña, 1984, 1985).

Aitzitik, ordea, alfabetatzearen eta eskolaren artean dagoen erlazioa, erlazio es-tua, oso berria dela kontsideratu behar dugu; ez dela ez betidanik ez eta herri eta herrialde guztietan ezagutu den binomio banaezina. Mendebaldearen histo-rian, zehazki, azken mende honetan hezur-mamituriko erlazioa dela ikusi da (Cook-Gumperz, 1988). Bestalde, irakurketa eta idazketaren ikaskuntza eskola-ren barruan txertatzek eragin du trebetasun horien zabalkuntza kuantitatiboan, bai, baina baita berauek interpretatzeko moduan ere. Honela, kontutan izan be-har dugu, Hébrard-ek (1989, 68) adierazitakoa, hots, *“la obra de la escuela no está sólo del lado de la difusión masiva del leer-escribir-contar como base obligada de los aprendizajes para todos, es decir, del lado del crecimiento cuantitativo de la alfabeti-zación, sino también del lado de la constitución de estos aprendizajes como saberes ele-mentales escolarizables”*. Historikoki kuestio berria da planteatu zaiguna: zertarako eta zergatik sortu izan da eskola eta eskola bitarteko alfabetatzea? Zeintzuk dira azaleko arrazoiekin batera doazen ezkutuko zergatiak?.

Galdera horiek erantzun nahian edo, azken urteotako ikerketa-interesguneeta-riko berri batzuk hauek izan dira: irakurketa eta idazketa gizartean errotze pro-zesuan eskolak jokatu izan duen papera ezagutzea, honek bultzaturiko alfabetatze moduari dagozkion berarizko ezaugarrien izaera zehaztea, eta beste alfabetatze forma eta moduekiko izan ditzakeen antzekotasun edota desberdin-tasunak marraztea. Alfabetatzeari egotzi zaizkion ezagutza eta kognizio mailako ezaugarriak aztertu dira (Olson, 1998; Scribner eta Cole, 1981), baita alfabetatzea eta boterearen artean dagoen erlazioan sakondu ere (Freire eta Macedo, 1989; Bowman eta Woolf 2000); formak edukiarengan zenbaterainoko garrantzia eta eragina duen ezagutu nahirik maila eta arlo desberdinetan jarri da fokua, eskola erakundearen barruan garatu den alfabetatze moduak irakurketa eta idazketa-rako trebetasunetan beraietan eta trebetasun horien gizarteratzean izaniko era-ginean, besteak beste.

Hona, beste modu batean jarrita egun planteatzen diren oinarri-oinarrizko bi gal-dera: irakurketa eta idazketaren bitartez ustez lantzen den abstrakziorako gaita-suna berez dagokie teknika horiei ala eskolan emaniko irakurketa eta idazketa-ren lanketa bereziaren ondorio dira? Alfabetatzea boterea al da, edo eskola erakundeak duen gizarte boterearen tresna, boterearentzat ala boterearen aurka erabil daitekeena? Izan ere, idazketari sortzez leporatu izan zaio boterearekiko

erlazioa eta, zentzu horretan, hizkuntzaren kapital sinbolikoaren (Bourdieu, 1985) oinarritzko faktorea dela kontsideratu behar dugu. Eta, funtsean, egin behar harko genukeen galdera, beharbada, ondorengoa litzateke: nork ateratzen dio probetxurik analfabetismoari? Alfabetatzea eta boterearen arteko lotura estua are nabarmenago ageri da berau gizarte erakunde baten baitan garatu ohi denean, eskola kasu, eta gizarte elebidun, diglosiko edo hizkuntza-anizdunetan ematen denean.

Noski, azken mendeetan eskolak eta eskolaratzeak alfabetatzearekin izan duen lotura oso esanguratsua izan da zenbait herrialdetan, espainiar alfabetatze prozesuan kasu. Zentzu honetan, gaur egun ere, gero eta ugariagoak dira alfabetatze ekintza eta modua eskolaren testuinguruan aztertzen duten lanak —irakaskuntza-ikaskuntzarako estrategiak eta oinarritzko ikuspegiak aldatu nahian nolabait— izan ere eskolatze prozesuak berak sortu dituen analfabetismo berrien aurrean kezka handia sortu baita.

Viñao-ri jarraituz, berriro ere, azpimarratu behar da ez dela, halere, herria alfabetatzeko eredu edo bide bakarra eraman aurrera. Alfabetatzerako motibazio anitz egon dira (erlijiozkoak, politikoak, militarrek, ekonomikoak, akademikoak, gizarte-ospe mailakoak, etab.) eta egile, modu eta erabilera ugari atzeman ditza-kegu bere ibilbide historikoan, hots, eskola, eliza, familia, ejerzitua, hiria, etab. Alfabetatzearen prozesu historikoa luzea da, kontraesan eta anbiguotasun ugari- ren, jarraipen eta etenen continuuma da. Zentzu honetan, alfabetatzea gizarte- praktika bat gehiago bezala ikusten dugu egun, eta bere moduetako bat, ez ba- karra, eskolarra izango da. Egungo historialariari bereziki zera interesatuko zaio aztertzea: praktika horren bilakaera, irakurri eta idazteko moduak, erabilerak, zein testuinguruetan idatzi eta irakurtzen den, baita zeintzuk material, objektu edo zeinu diren erabiliak, eta ekintza horiek gertatzen diren gizarte espazioaren bilakaera nolakoa izan den. Bestalde, praktika den heinean, pentsamendua be- rregituratzen duen teknika baten menperatzea eta erabiltzea inplikatzan duela pentsatu behar da, gertatzen deneko testuinguruaren arabera, eta berataz egiten diren erabileren arabera, hainbat ondorio kognitibo eta mentalak dituen (Go- dy, 1985; Havelock, 1976). Ondorioz, berebiziko garrantzia hartuko dute ahoz- kotasunaren eta idazketaren arteko hartu-emanak erabilera testuinguru zehatze- tan aztertzeak eta, baita ere, kultura idatziak gizarte antolaketarekin eta mentalitate letratuarekin duen zerikusia aztertzeak.

Idazketa ez da, eta ez dugu, fenomeno bakartzat hartzen, “*La <escritura> en sí y por sí, en singular, no existe; es pura y simplemente una abstracción*” (Petrucchi, 1999, 118), testuak erabiltzeko tenika-multzo oso aldakortzat baizik. Era berean, esango da, kultura idatziak berak ere ez du historian aldaketak sortzeko, progre- soa eta askatasuna lortzeko edota errepresioa gauzatzeko, indar autonomo gisa ekiten. Graff-ek esango duen moduan “*Ni la escritura ni la imprenta, por sí mismas, son <agentes de cambio>; sus efectos están determinados por la manera en que la acción*

humana las utiliza” (Graff, 1989, 11; GEE, 1989). Kultura idatziak ez du, berez, hazkunde ekonomikoa sustatzen, ez arrazionaltasuna ez eta norbanakoaren arrakasta. Horregatik, derrigorrezkoa da kultura idatziaren historia idatziarekin erlazioaturiko funtzio, erabilera eta praktiken analisitik abiatzea, irakurketa eta idazketa ekintzen inguruko analisitik egitea. Irakurketa eta idazketa kultur eta gizarte praktika gisa ikusi behar ditugu, “*Dos actividades vistas ahora como prácticas sociales y culturales que tienen lugar en determinados contextos y con determinados soportes. Dos actividades de las que lo que interesa, sobre todo, son sus usos y funciones, así como los modos y maneras en que se llevan a cabo. Unos modos y maneras, unos usos y unas funciones variables en el tiempo y en el espacio y por tanto historiables*” (Viñao, 1994, 41). Zentzu honetan, irakurketa gizarte eta kultur praktika gisa hartzen duen alfabetatzearen historiak ekoizpenetik harrerara eramango du fokua, idatzitik honen irakurketara, esanahi-sortzailea den irakurlearengana eta liburura, inprimaki, orri, paper edo foiletora —haren euskarri materiala den neurrian—. Ikuspegi honek, finean, eskatzen du arreta idatziaren hedapenean, funtzioetan eta erabileran, hauen tipologian, ondorioetan eta beren euskarri eta tresnerietan jartzea. Irakurketa ekintza aztertzeak eskatzen du, halaber, gizarte bakoitzean eta momentu bakoitzean nork irakurtzen duen eta zer irakurtzen duen zehaztea, baita ere non eta noiz, zergatik eta, batez ere, nola irakurtzen den ezagutzea. Irakurketa moduek, testuinguru eta erabilerek, erlazio modu bat edo beste adierazten dute testuaren eta irakurlearen artean, eta egileak (edo argitaratzaileak) bilatzen duen erlazio mota adierazten dute testuek, horretara egokituz idazketa, tipografia eta egitura zehatza.

Gurean, orain arte indarrean egon den eredua, alfabetatzea ulertu eta aztertzeko eredua, Estatua eta estatu-hizkuntzaren inguruan eraikia izan den eredu monolitikoa izan da. Horren arabera ezinezkoa izan da euskarazko errolda aurreko garairako, ez eta euskarazko eskolaratze aurreko garairako, euskarazko alfabetatzearen existentzia aldarrikatzea ez eta, ondorioz, aztertzea. Aitzitik, alfabetatzearen historiaren ikuspegi berri eta zabalagoari esker zilegi da, gure ustez, euskal alfabetatze prozesuaren bilakaeraz hitz egitea baita ere euskarazko alfabetatzeari begira ahalegin esplizitu edo masiborik egon ez den garaietan. Euskal kultura idatziaren finkatze prozesu historikoa ardatz hartuko dugularik, prozesu luze horretan bertan kokatuz eta bertatik abiatuz, aztertu ahal izango dugu, besteak beste, eskolaren zeregina, gaztelaniazko alfabetatzea helburu izan duen garaitan euskararen erabileran zein euskarazko zeharkako alfabetatzean izan duen eragina nolakoa izan den ikusiz lehenik eta, eskola bera euskarazko alfabetatzearen garapen zuzenerako nola erabili izan den aztertuz ondoren.

Historia-testuinguru bakoitzean kokatuz bakarrik zehaztu ahal izango dugu euskarazko alfabetatze prozesuaren edukia eta izaera —ondorioz, definizioa—. Azken hamarkadetan, adibidez, eskolaren bitartez Euskal Herrian garatu den eredu hedakor eta instituzionalean ikusi dugu euskarazko alfabetatzea kontzeptua bera krisian, nolabait, askotan euskalduntzearekin izan duen muga urtu eta

bi prozesuen arteko nahasketa sortu delarik. Populazio hartzailearen izaera ere aldatuz joan denez -euskara ez dakitenak, euskara dakitenak eta euskara zekitenak baina galduz joan direnak, euskalkian hazitakoak baina batua menperatu behar dutenak etab. askotan ez da jakin alfabetatzea zentzu hertsian bultzatu nahi izan den, euskalduntze goi mailetat ari garen edo, batik bat, alfabetatze kulturala eta oinarrizko heziketari dagokiona helarazten ari garen. Gizarte eta norbanako mailan elebitasuna garatzearen aldeko apustua egin izanak alfabetatze prozesuaren definizio arazoa plazaratu eta birplanteatzera eramane du, termino elebidun, edo nahi bada, diglosikoetan birdefinitzera alegia. Alfabetatzea ez da nozio estatikoa, ez dauka esentzia unibertsalik. Euskarazko alfabetatzea ez da nozio estatikoa, ez dauka esentzia unibertsalik; aitzitik, testuinguru historiko ezberdinen arabera birdefinitua izan behar duen kontzeptua da.

5.2. EUSKARAZKO ALFABETATZEAREN BILAKAERA: EUSKARAZKO IRAKURKETA ETA IDAZKETA KULTUR PRAKTIKA GISA

Ondorengo orrietan, XIX eta XX. mendeetan zehar euskaldunak irakurtzen eta idazten ikasteko izan dituzten aukeren bilakaera eta euskaraz idatzitakoa irakurtzeko herritarrek izan dituzten modu orokorrak zeintzuk izan diren ulertzen lagunduko duten gako nagusiak eskainiko ditugu. Bereizi ditugu Errejimen-Zaharreko gizarte egiturari lotu ohi zaizkion kultur praktikak, alde batetik. Euskal Herriaren kasuan praktika horiek XIX. mendea eta XX. goaren lehenengo hamarkadetan zehar nabarmendu ziren. Bestetik, gizarte modernoari loturiko jokabide sozialak eta kulturalak. Gurean, XX. mendearen lehenengo hamarkadetan sortzen hasi eta, batez ere, bigarren erdialdetik aurrera garatu izan direnak. Bilakaera horretan erdararen ikaskuntza ardatz nagusi zuen eskolatik euskararen eta euskarazko irakaskuntza bermatu nahi izan duen eskolarantz doan ibilbidean kokatzen da, nagusiki, irakurketa eta idazketaren ikaskuntza modua. Erabilerari dagokionez, berriz, irakurtzeko testu gutxi batzuk behin eta berri irakurtzeko joeratik esku artean testu gero eta gehiago edukitzera eta irakurketa azkarragoak egiteko joeretara igaroko gara.

5.2.1. Ekoizpen mugatua eta irakurketa intentsiboa

Irakurtzen eta idazten aritzeko trebetasuna herritarren artean gero eta gehiago zabaltzen ari zen aldi berean, irakurketarako ohitura ere hedatuz joan zen pixkanaka-pixkanaka XIX. mendean zehar. Gizarte tradizionalari dagokion antzera, euskal herritarren artean finkatu zen irakurketa modua ahozko kultura eta adierazpenarekin oso lotura estua zuen irakurketa intentsiboaren eredua izan zen.

Argitaratu ziren idatziak zenbatek irakurriko ote zituzten jakiteko datu zehatzik ez dugu, baina hainbat gertaera kontutan hartzea komeni zaigu irakurtzeko joera

zuten herritar xeheen mugen ideia egiteko. Alde batetik, alfabetatze-tasak eta eskola-baldintzak ikusita euskaraz irakur zezakeen populazioa nahiko mugatua zela pentsatu behar dugu. Garai haietan ere euskaldun guztiek menpera zezaketen euskara idatzirik ez egoteak dezente mugatzen zuen euskaraz idazten zena-ren zabalpen esparrua. Bestalde, euskaraz idatzitako testuen eskaintza aurreko garaietakoa baino handiagoa zen, baina, nahiko apala zen oraindik. Ez zen gai askotan euskaraz idazten, eta argitalpen bakoitzean zabaltzen ziren ale kopuruak ere ez ziren oso handiak.

Eskaera XIX. Mendean eta XX.goaren lehen zatian, oraindik, nahiko mugatua zuen merkatua zela esan dezakegu. Oro har, euskarazko obren eskaria —liburu zein aldizkariena— nahiko apala zen. Euskarazko liburuak edota aldizkariak eskuratu eta irakurriko zituen irakurleak trebakuntza maila egokia eta baliabide ekonomiko nahikoak edukitzeaz gain, hizkuntzarekiko interesa eta motibazio berezia beharrezkoak zituen. Interes eta motibazio horretan eragitera jo zuten garaiko euskalgintzan eta kulturgintzan ziharduten pertsonaiek eta taldeek.

Herri xeheak gertuen zituen testuak gutxi ziren. Eta testu horiek behin eta berri-ri irakurtzen zituzten, askotan ozenki familiaren inguruan. Memorizatuak ziren testuak ziren, plegaria moduan, bere irakurketak zuen esanahia jada ahoz ezagutzen ziren mezuak deszifratzea zelarik azken batean. Euskarazko herri-irakurketaren esparruan, zalantza handirik gabe, esan dezakegu eliza-liburu eta do-
trinarekin batera, edo agian gehiago, egutegiak zirela herritar euskaldun gehie-
nek irakurtzen zituzten euskarazko testuak. Gipuzkoako kasurako hirugarren
testu mota bat gehituko genuke: bertso-paperak.

Ahozko literaturaren esparruan, poemagintzak, atsotitzak eta antzerkigintzak izan eduki zuten bere lekua, baina XIX. mendean gorengo maila lortu zuen lite-
ratura mota bertsolaritzarena izan zen. Aipatu beste literatura motek goitik be-
herako bidea hartua zutelarik, bertsolaritza erabat nabarmendu zen, kualitatibo
eta kuantitatiboki, XIX. mendean, eta Gipuzkoan bereziki. Tradizioz bertso de-
safioak zirenak bigarren karlistadaz geroztik desagertuz joan ziren, eta plazako
bertsogintza modua lehiaketa modukoa-indartu egin zen. Hau, batez ere, Lore
Jokoei esker gertatu zen, txapelketa eta jaialdien antolabide berriak gorputza
hartuz joan ziren heinean. Testuinguru horretan, Lekuonak (1985, 466) aditzera
ematen digunez “Bapateko bertsogintza palanka ederra zitekeen herriarengana
iristeko, eta herria critziz eta sentimenduz hornitzeko, jokabide sozial-politiko-
en zerbitzuan”. Badirudi bertsolarien jendaurreko emanaldiei eragin soziala aitor-
tzen zitzaizela nolabait. Eta, faktore hori oinarritzakoa izango zen, beharbada, feno-
menoaren biziraupenerako. Bertsolaritzaren iraupen eta hedapenean eragin
zuen beste faktorerik garrantzitsuenetarikoa, baita herri-kulturaren ikuspegitik
komunikazio idatziaren modurik garrantzitsuena ere, bertso-paperen fenome-
noa izan zen (Zavala, 1964).

XX. mendean aurreko bideari jarraitu bazitzaion ere, pixkanaka ahulduz joan zen bertso-paperen fenomeno, herritarren irakurketa zaletasunak beste produkzio idatzietarantz bideratzen hasi ziren aldi berean. Egutegi eta almanakak ziren gustoko idatzi berriak.

Egutegi eta almanakak erruz agertu ziren XVI, XVII eta XVIII. mendeetan herrialde protestanteetan zein katolikoetan (Chartier, 1993). Estatu espainiarrean eta Euskal Herrian, aldiz, XIX. mendean zehar hasi ziren nabarmentzen. Gaztelaraz idatzitako egutegi eta almanak Euskal Herrian izan zuten zabalkuntzaren berri zuzenik ez badugu ere, euskarazkoetan egiten ziren aipamenengatik badirudi herritarren artean nahiko zabalduta zen praktika zela berauen irakurketa. Euskaraz idatzitako egutegiei dagokienez, berriaz, batez ere Iparraldean XIX. mendean esanahi handia izan zuen publikazio mota izan zen. Hegoaldean XX. mende arte itxaron behar dugu euskarazko egutegien irakurketa zabaltzeko orokortu eta iraunkorraz hitz egiteko.

Euskaraz idatzitako almanak eta egutegiek gaztelaraz idatzi ziren egutegien ereduari jarraitu zioten. Gehienetan espresuki adierazita zetorren gaztelarazko egutegiak bete zuen espazioa ordezkatzeko zuten nahia, neurri handi batean berauen bertsio euskalduna izan zirelarik: batetik, egutegia familia osoarentzat pentsatua zegoen, adin guztietako familia-kideentzat. Bestetik, modu argian eta errazean egon behar zuen idatzia, guztien eskura egon zedin. Eta eguneroko bizitza egoki eraman ahal izateko, gizarteratzeko hitz batean, oinarritzko informazioa eta ikasbideak eskaini behar zizkion familia-kide bakoitzari. Horrekin batera, irakurleak bere heziketa moralean orientabide egokia izango zuela ziurtatu behar zuen, gizartearen ordenuarentzat oinarritzkoak ziren balioak transmitituko zitzaizkiolarik, ahaztu gabe. Zabaltzen zituzten mezuak herritar arruntaren beharrei erantzuteko eginak izanik, hizkuntza erraz eta argian —erraz ulertu eta gogoan hartzeko moduan— idatziak egonik eta zuten salneurri merkea eta formatu zabalgarria kontutan edukirik, pentsa daiteke berauek herri xehean izan zuten hedapena zabala izan zela. Uste hori babestera dator, halaber, egutegi askok izan zuten bizitza luzea. Horietako adibide esanguratsu bat dugu *Euzkel-Egutegiya*.

Lehenengo urteko egutegia Euskal Etnalea elkarteak argitaratu zuen 1909. urtean *Euskal-Etnalea'ren Egundiya* izenarekin, eta ondorengo urteetan *Euzkel-Egutegiya* izenarekin argitaratuko zen, orain, Eusebio Lopezen inprima-etxearen, eta beeziki I. Lopez Mendizabalen, ardurapean.

Egutegiaren eragileek euskara zabaltzeko bide garrantzitsu gisa sortu zuten berrau. Hormarako egutegi gisa kaleratua izanik, tako moduan jarri zen salgai paretan itsasteko kartoia eta guzti, José Eizaguirre jaunak margoturiko euskal kutsua zuen marrazkiren batekin. Edukia zela eta, aurrealdekoa eta atzealdekoa bereizirik zegoen. Aurrealdekoa egutegi guztien antzekoa izango zen, egunaren inguruko xehetasunak emango zituen. Atzealdean, berriz, eduki atsegin eta entretenigarri ugari eskainiko zen. Hau guztia, egileen aldetik partaidetza zabala eta

askotarikoak ematen zion aberastasunarekin. Saiatu omen ziren ahalik eta salneurririk merkeena jartzen, edonorentzat eskuragarria izan zedin egutegia, eta dirua ez zedin euskara irakurtzeko oztoporik izan, helburua ahalik eta jende gehienak irakurtzea baitzen. Beraien helburu nagusia euskaldunak euskaraz irakurtzen zaletzen eta ohitzen laguntza zen.

Euskaldun sentitzen zen orok eskuratuko zuenaren ustea zuten egutegia bultzatu zutenek “*Euskaldun batek ere ez luke gelditu biar egundi au erosi gabe. Besterik ez bada erderazko nolabaiteko Kalendario lasaikeriz betetakoen ordezkari edukitzeagatik ere bat. Baserriyeko sukaldietan eta kale-eche eta jauregiyeko tokirik onenian jarri biar da egundi au. Ta egunero gure begiyen aurrian egon biar duben gauza nola baitan, poliki-poliki, piskabana, aitzenerako on asko egin lezake euskeraren alde. Uste degun, ba, euskaldun on denak gure Egundiya erosiko dutela.*” (Euskal Eснаlea, 1908, 11.zb., 155-156 orr.).

Egutegian agertu zen mezu asko beste bide batzuetatik ere asko hedatu zen, aldi berean, eguneroko prentsan, kultur prentsa espezializatuan (RIEV, Euskal Eснаlea, Euskal-Erria etab.), eta baita ere Itz-Jostaldi eta Euskal Festetan, batik bat bertan irakurritako hitzaldietan. Baina mezu horiek modu sinpleagoan emanak ziren egutegian, herritarrei begira eta egutegiak suposatzen zuen irakurketa modu arinari begira. Prentsa itxura zuen, baina garaiko kultur aldizkarietan ez bezala, euskaraz idatzita zeuden artikulu eta idatzi guztiak, ia dena gipuzkeraz, irakur errazak ziren, urte askotan zehar argitaratuak behin eta berriz eta irakurle ugari irakurriak izan ziren.

Egutegiak zuen hezkuntzarako balioaz ederki jabetuta zeuden berau bultzatu zuten euskaltzaleak, ondorengo hitzetan ikus daitekeenez:

“(...) Gure egundia ez dala ezertarako...Ator, gizarajo ori: ¿asteko egun guztien izenak euskeraz ondo baialdakizkik? Ik bai, apika, baña beste askok ez. Eta ortarako aukerako liburu bat artuta parra-parra egunen izenak ikasten noizbait euskaldunak asiko dirala uste al dek? Eta ik, egunen izenak badakizkik ere, urteko ille guztien izenak euskeraz ezetz ondo esan? Eta i ere, liburu bat artuta ¿asiko alaiz beñiere izen aiek ikasten? ¡Bai zera! Gauza oiek ez dizkik iñork ikasi nai, ikasteko lan pitiñ bat egin bearra zeok-eta. Ona bada egi aundi-aundi bat: iñork (ez askok beintzat) ez dik euskera ikasi nai, ortarako lan apur bat egin bear baldin bada. Euskera erakusteko ikasleak lan egin gabe erakusteko bide bat aurkitu bear genduan: orregatik egundia argitaratuko diagu. Urte betea, 52 aldiz egun bakoitzaren izena erakutsiko dik egundiak. Urte betean, 30 aldiz, (...) erakutsiko dik illee bakoitzaren izena. Ta nai ta nai ez, ikusi bear izen oiek, egundia erosiko duten guztiak. Eta uste diat, astofso bat ez izan ezkerro behintzat, 30 edo 52 aldiz gauza bat esan ezkerro ikasi leikeala. Geiago ere baziok oraindik, Atze-aldean, alderantzian, orri bakoitzak ipui, fñirristada, ziribiursa, alegia, edo onelako beste gauza politen bat zekarrek euskeraz: geien-geienara jo ta ere hogeï errenkada. Ta ik (eta ik bezela besteak) parra egiteagatik eta euskeraz irakurtzen ikasteagatik: ez aldituk egunero hogeï errenkada irakurri naiko? (...) Ez lagun, ez; ez dek alperrikako lana. Egundia erosi ta humilla gabero, apalondoan, egun artako orria irakurri erazi; au dek ik egin bear dekana. Ta erorrek irakurtzea ere ez zaik gaizki etorriko (...) Erosi ezak egundia, ta

jarri ezak ire etŕeko orman, gela agirienean: ondo ikusi dedilla. Ta gabetan irakurri orria ta ume tŕikiai ere irakurri erazi. Ta, bai ta aundiai ere. Emazteak irakurtzen badik, obe, orain eta oraindik obeago neskameak ere irakurtzen badik. Au egin eta egin erazita, ikusiko dek urte azkenerako ire etŕeko umiak eta zarrak euskeraz, batere lanik egin gabe ederki irakurriko dutela.(...)” (Euskal Eснаlea, 1908, 12.zb.,176.orr).

1909 eta 1934 bitartean, gipuzkoar askok irakurri ei zituzten bere baitan zituen orrietako mezuak, zirela euskara eta euskaltzaletasunarekin loturikoak, kultura orokorrekoak, moral eta erlijiosoak, humorezkoak edota denbora pasazkoak. Aurrez zabaldu ziren egutegiek ez bezala, urte luzez iraun zuen egutegiyak, herri-tarren artean arrakasta handia lortuz. Irakurketa ohitura bat finkatu zuen eta ondorengo antzeko hormarako egutegien sorrerarako bidea egin zuen, hots Argia egutegia kasu,. Garai horretan ez dugu aurkituko Gipuzkoan —ez literatur mailan, ez prentsaren esparruan ez eta irakaskuntza-liburuen alorrean— horrelako beste adibiderik (izaera literario, kulturala eta hezitzailea zuenik) dotrinaren kasua kenduta.

Urte sasoi horiei dagokienez, halaber, azpimarratu behar ditugu herritarren artean euskarazko ahozko zein idatzizko komunikazioa areagotzeko hainbat euskaltzalek, eta bere inguruan bilduriko talde eta elkartek, sortu eta bultzatu zituzten proiektu eta kultur ekintza herritar desberdinak. Ekintza horien oihartzuna maila handi batean herritar xehereangana iritsi ez bazen ere, euskal kultura idatzia modernizazio bidean jartzen eta kultur-elite euskaldun eta euskaltzalea finkatzen lagundu zuten proiektu garrantzitsuak izan ziren heinean kontutan hartzekoak dira.

Ekintza eta jarduera horietako batzuk herri eta herrialde mailako administrazio publikoek bultzaturikoak izan ziren. Zentzu honetan, bereziki aipatu behar da lau herrialdeetako Diputazioek egin zuten lana: beregain hartu behar zuen langilegoa kontratatzerako garaian euskararen ezagutza eskatzen adibidez (Euskaltzaindia, 1977, 431-442); euskarazko katedren sorrera bultzatuz bigarren mailako irakaskuntzako institutuetan, maisu-maistren eskoletan, eta apaiztegian; euskarazko deklamazio eskolak sortuz etab.; kale izendegietan, bando eta zirku-larretan euskararen erabilera bultzatuz; eta baita ere, euskal testuentzako laguntza politika aurrera eramanez, lehiaketen bitartez, eta erakunde eta liburutegiak euskal liburuz hornituz.

Lehen adierazi bezala, ordea, nabarmendu behar ditugu hainbat euskaltzalek, eta bere inguruan bilduriko talde eta elkartek sortu eta bultzaturiko proiektuak, zenbaitetan administrazio publiko horiekiko lankidetzan burutuak. Horien artean, azpimarratu nahiko genuke A. Campion jauna eta berak sorturiko Nafarroako Euskal-Elkargoa, literatura zein lanketa zientifikoa indartzeko asmoz sortutakoa. Beronek argitaratu zuen 1877an “Revista Euskara” (1878-1883) eta hau abiapuntutzat harturik beste aldizkari gehiago sortu zen ondoren: Gasteizen “Revista de las Provincias Euskaras” (1878-79), Donostian “Euskal Erria” (1880-

1918), Bilbon “Revista de Vizcaya” 1885an, Iparraldean “Euskalduna” 1888an, etab. Elkarte eta aldizkari horien inguruan bultzatu ziren, besteak beste, Lore Jokoak Euskal Herrian zehar, baita euskal kultura eta hizkuntzaren defentsa helburutzat zuten intelektual guneak ere.

Foruen deusezpearen ondorioz loratu zen Kultur Pizkundean hasi ziren Lore Jokoak zabaltzen Hegoaldean, D’Abbadie jaunak jada 1850. urtetik aurrera Iparraldean antolatu zituenen ildotik.

Festa hauek mugaz bestalde agertu izana bat dator, bestalde, Europan zein Espainian liberalismoaren ezarpenak zekartzan politika zentralizatzaileak zirela eta, eman zen mugimendu nahiko orokorrarekin. Hauekiko erreakzio gisa, Katalunian eta Estatuko beste zonalde batzuetan (Valencia, Galicia etab) bertako literaturaren errebindikazioari hasera eman zitzaion. Hegoaldean, 1876. Urtean Foruen galtzearen eraginez sortu zen literatur eta kultur mugimenduarekin batera eman zitzairen hasera festa hauei.

Mugaz honuzkaldeko lehenengo euskal festak Elizondon (1879) ospatu ziren, Nafarroako Euskal-Elkargoaren bultzadaz, bestaldeko tradizioa jaso eta Lore Jokoei hasiera emanez. Elizondoko lehenengo lehiaketa hartan presente egon ziren, beste gizon ospetsuen artean, Iparraldeko festen babesle ziren D’Abbadie eta Duvoisin, Iparragirre poeta herrikoia, eta Manterola, gerora Gipuzkoako festen bultzatzaileetarikoa bat izango zena. Hasierako urte hartatik aurrera Euskal Herri osoan zehar ospatu ziren Euskal Festak izen ezberdinen pean, eta euskarazko literatur produkzioaren errebindikazioarekin. Aparteko garrantzia hartu zuten Gipuzkoan eta Iparraldean, bi arrazoiengatik batez ere: iraunkorki ospatu zirelako Itz-jostaldiak eta Euskal-Festak, eta beraietan beste herrialdeetan ospaturiko festetan baino presentzia handiagoa izan zuelako euskarak.

Donostia izan zen, bereziki, “Euskal itz-jostaldiak” edota “Juegos Florales Euskaros” izenarekin iraunkorki (1880. urtetik 1918ra) mantendu zen leku bakarra. Euren antolatzailea Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea zen. Egun bateko ospakizuneari biltzen ziren musika emankizunak, literatur lehiaketan sarituak izan ziren lanak eta garaiko bertsolari ospetsuenak biltzen zituen emanaldia. Bertsolariak ez ezik lehiaketa hauetan ere parte hartu zuen garaiko euskaltzale eta idazleen belaunaldi oso batek, besteak beste, Karmelo Etxegarai, Ramon Artola, Biktoriano Iraola, Felipe Arrese, Jose Artola, Migel Antonio Iñarra, Francisco López Alén, Domingo Agirre, Toribio Alzaga, Arturo Campion, Gregorio Arrue etab.

Festa hauek, Katalunian ospatu zirenen antzera, bertako hizkuntza berreskuratzea zuten helburu nagusia, zegokion literatura garatuz. Egun bateko ospakizunaren mugak gaindituz, bestalde, saritutako lanak urteroko memorieta eta *Euskal Erria* aldizkarian argitaratzen zituen Batzarreak, baita monografia moduan argitaratu ere. Honela, ordura arte ez zegoen argitalpen multzo iraunkor

bat sortu zen lehiaketa hauen inguruan, idazleak idaztera bultzatzeko motibazioa eduki zezaten eta irakurleei euskaraz irakurtzeko aukerak zabaltzeko asmoarekin.

Euskararen erabilera zabaltzeko helburuarekin ere literatur festa horien barruan beste atal bat ireki zen: 15 urtetik beherako gazteentzat antolaturiko irakurketa eta idazketa ariketak edo azterketak. Azterketa hauen bitartez umeak, gazteak, euskaraz irakurri eta idaztearen ikaskuntzarantz motibatzea lortu nahi zen. Gerora irakurle eta idazle izango ziren gazteei laguntzea eta babesa ematea, alegia.

Euskal Itz-Jostaldiak 1894. urtera arte Donostian kokatu ziren, eta bereziki literatura eta artearen inguruko festak izan ziren. Aurrerago ordea, 1896. urtetik aurrera, Euskal Festak (Fiestas Euskaras) izenaren pean ospatu ziren festa multzo baten barruan kokatuak azaldu ziren, Gipuzkoako herri ezberdinetan zehar ospatuz joango zirenak. Egoera aldaketa hau, hain zuzen, Diputazioak Gipuzkoan ospatu ohi ziren ganadu erakusketei eman nahi zien bultzada berriaren eraginez etorri zen. Modu honetan, Diputazioak ospakizun berean bildu zituen nekazal eta ganadu erakusketak eta literatur lehiaketak.

Festa hauetan D'Abbadie jaunak Iparraldean antolatzen zituen ospakizunen ezaugarriak biltzen ziren: euskal tradizioak, dantzak, bertsolariak, feria, abelburuen lehiaketa eta literatur lehiaketa. Festa itxurako lehiaketak izateaz gain, ordea, bilgune, eztabaida-gune eta erabakiak hartzeko espazio garrantzitsua izan ziren, nekazaritza inguruko erabakiak hartzeko, noski, baina baita kultura, hizkuntza eta hezkuntza arloko eztabaidak eta erabakiak hartzeko gunea ere. Garrantzi handia izan zuten alderdiak izan ziren, hitzaldiena, sermoiarena, brindisarena eta protokoloarena. Espazio berri hau mitin eta hitzaldietarako oso testuinguru aproposa zen, garaiko hizkuntza, kultura eta politika errealitatearen inguruan euskaltzaleek zituzten kezkak eta hausnarketak azaltzeko parada paregabea eskaintzen zuena.

Festa hauek espazioen irekiera ahalbideratu zuten, non nekazal girokoa zena eta hirikoa zena sinbiosi perfektuan azaltzen ziren, beti ere, eta Gipuzkoako lehiaketetan batipat, nekazal eta tradizionala zena berbaloratzeko helburuarekin. Poliki poliki, tradizionala zena euskal herriaren adierazpen bihurtzen zuten identitate zeinuen lanketan urtuko zen. Prozesu honekin ere zerikusia izan zuten probintzia zein herri mailako korporazioen eskuhartzeak, helburu horretarako espreski erakundeak sortu izanak eta, noski, kolaboratzaileek. Puntu honetan, festa hauen irakurketa ideologikoa egin nahi dugu, azalduko baitira interes partikular eta errebindikazio politiko batzuk, lehenengo garaiko foruzaletasunetik epealdiaren bukaera aldeko tesi nazionalistagoetarako bilakaera erakutsiko dutenak, hain zuzen.

Jostaldi eta Festetan saritutako idazle gehienak garaiko kultur aldizkarietako kolaboratzaileak ziren, baita egutegietako —batez ere *Euzkel-Egutegiya*-ko— kola-

boratzaileak ere. Aldi berean, idazle horietako asko Euskal-itz jostaldien Batzarrera, Euskal-Esnalea, Euskaltzaleen Biltzarra etab. elkartetako kide esanguratsuak izan ziren. Finean, guztiek klase intelektual, letratu, elebidun eta kulturbiduna osatzen zuten, elite kulturala, euskal kultura idatzia herritarren artean hedatzeko prozesuan parte-hartze zuzena eduki zuena.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetan, herritarren irakurketa joerak aurreko mendeetako ildotik bazihoazen ere, idazketarako joerak aldatzen hasiak ziren, eta kultura idatziaren ekoizpena zabaltzen eta hedatzen hasia zen pixkanaka-pixkanaka. Ekoizpena kuantitatiboki gaintitu zelarrik, dibertsifikazio nabarmena eman zen eta apurka formazio erlijiosora zuzenduriko lanek izandako nagusitasuna desagertuz joan zen, nahiz eta idatzi zen guztiaren oinarria funtsean katolikoa izan oso.

Orduan hasi zen, euskarazko idazketa literarioa beste idazketa motetatik —erlijiosozkotik, linguistikoetatik— bereizten eta estatutu soziokultural berariazkoa edukitzen. Garai haietan euskal literaturak dimentsio berria, eta aurrekoarekiko erabat desberdina zena, hartu zuen: erromantikoa, nazionala eta herritarra. Literatur lanen ugaltze eta dibertsifikatzearen fenomenoagatik ez ezik, epealdia azpimarragarria da nagusiki Hegoaldean sortu ziren, eta nolabaiteko sendotasuna eduki zuten, kultur talde ugariengatik eta, gehienetan, beraien inguruan argitaratu ziren aldizkari ugariengatik. Euskarazko aldizkariaren benetako “boom”-a Estatu espainiarrean baino zertxobait beranduago eman zen, 20ko hamarkada inguruan hain zuzen, eta 30eko hamarkadaren erdialdera arte iraun zuen.

Euskaraz idatzitako prentsari dagokionez, 1919-1937 denbora tartearen hausturagaraia izendatua izan da (Díaz Noci, 1992, 1995), euskal kazetaritzarako garai berri baten hasiera, euskarazko kazetaritza modernitatean sartu zeneko unea alegia. 1919. urtetik aurrera euskara eguneroko prentsan sartzeko egin zen ahalegin sendoak, euskarak irrati eta komikietan izan zuen sarrerak eta denetariko kazeta-baliabideen erabilerak eraman dute Díaz Noci modernitatean sartutako euskal kazetaritzaz hitz egitera.

Aurreko garaia, beraz, autoreak ezarri 1834-1919 denbora mugen artean kokatzen denez, modernitate aurrekotzat edo euskal prentsaren hastapentzat hartua izan da. Euskal kazetaritzaren lehenengo adibidea 1834ean Donostian argitaratu zen “El Correo del Norte” aldizkari liberalean azaldu ziren euskarazko lehenengo testuetan ikusten du, bertan liberalak azalduko zaizkigularik, nekazariak beren ideietara makurtzearen, euskaraz idatzitako prentsaz arduratu ziren lehenak. Oro har esan daiteke, polarizazio politikoaren, XIX. mendean zehar areagotuz joan zen polarizazio politikoaren ondorioz piztu zela euskarazko kazetaritza, Ipar zein Hego Euskal Herriko prentsa, almanaka eta kazetaz osatutako kazetaritza.

Foruak galdu ondoren, 80. hamarkadatik aurrera batipat, euskarazko kazetagitza gailurrera ailegatu zen Hego Euskal Herrian. Bi korronte nagusi bereizi ziren —mugimendu politiko binarekin— maila batean ere aurrerantzean gauzatuko zen euskara estandarra ulertzeko eredu ezberdinekin lotuak azaltzen zaizkigunak: *Revista Euskara*, *Euskal Erria* edo *Euskal Eснаlea* aldizkari kulturalen inguruan sorturiko korronte foruzale edo euskaltzalea batetik, Azkueren teoritik gertu, gipuzkerako ereduari jarraitu ziona, eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetan sortu zen Argia aldizkariaren orrialdeetan finkatuko zena.

Eta, bestetik, Arana Goiri eta bere jarraitzaileak, azpieuskalki batzuen elementuez osaturiko bizkaierazko ereduari heltzen ziotenak, eta irakurlegoaren eskaera eta, beharretatik urrundu zen neurrian, kazetaritzan beste ereduak baino arrakasta txikiagoa izan zuena. Bien artean, halaber, Euskalerriakoak leudeke, Azkuerekin, foruzaletasunean sortu eta abertzaletasunerantz jo zutenak.

Testuinguru horretan kokatu behar ditugu: aipatu aldizkari kulturalekin batera *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907-1936); Prentsa abertzale-jelkidearen artean, adibidez, *Bizkaitarra* (1893-1895), *Baserritarra* (1897), *Gipuzkoarra* (1907-1913), *Napartarra* (1911-1918), *Arabarra* (1912-), *Euzkadi* (1913- lehenengo kultur aldizkari abertzalea), eta *Euzko Deya* (1916-1923, abertzaleen euskara hutsezko lehenengo aldizkari kulturala); Euskalerriako prentsaren barruan, *Euskalduna* (1896-1909), *Euskaltzale* (1897-1899), eta *Ibaizabal* (1902-1903); Jelkide ez izan arren euskara nolabait erabiltzen zuten aldizkariaren artean, *Adelante* (1901-), *La Voz del Trabajo* (1901-1934), eta *El Kantabriko* (1910-); Erliziozko aldizkariaren artean, *Jaungoiko-Zale* (1912-1932), *Jesus'en Biotza'ren deya* (1917-1936), eta *Zeruko Argia* (1919-1936); Nekazaritzari buruzko aldizkariaren artean, *Gipuzkoako Nekazaritza* (1903-1907), eta *Baserritarra* (1904-1911).

Abertzaletasuna eratzeko ezinbestekoa izan zen pentsamolde zabalaren barruan kokatuak zeuden aldizkari guzti horiek. Muga lokalak gaindituz, euskal herrialdeen zein, kasu batzuetan, Ameriketako esparrua hartzen zuen irakurlego euskaldun, euskaltzale, euzkotar edo “vascongado”aren artean saiatu ziren beraien mezua zabaltzen, ideologia jarraitzaileak bildu eta elkarren artean lotzen. Herrialdegaindiko izaera edukitzeak, bestalde, ideologiaren zabalkuntzan eragiteaz gain maila linguistikoan ere izan zuen bere garrantzia. Ohar gaitezen lehenengo urte horietan oraindik ez zela euskara baturik ezarri ez eta onartu ere, beraz, hainbat kasutan, euskara gutxi edo gehiago erabiltzen zuten aldizkariak euskalki ezberdinak erabiltzera jo behar zuten beraien mezuaren zabalkundearen mesederako. Zentzu horretan, joera nagusia aldizkariaren sorlekuari zegokion euskalkian oinarrituriko idazkera erabiltzea izan zen, eta horrek, herrialdeen artean ematen zen aldizkariaren mugikortasuna ikusirik, irakurleari zenbait esfortzu gehigarri eskatzen zion, irakurketan gaitze maila landua beharrezkoa izango zitzaiolarik, norberaren euskalkia ez zen batetan idatziriko aldizkari eta testuak irakurri behar izaten ziren kasuetan bederen. Egoera hau areagotu egingo zen

idatzita ematen zen euskalkia irakurlearen ahozko euskalkitik nabarmenki aldentzen zenean edota, nahiz eta norberaren euskalkian izan, erabiltzen ziren euskalkiaren formak irakurlearen ahozko erreferentzia hurbilenetik gehiegi urruntzen ziren egoeretan.

Kultura idatzia areagotuz zihoan neurrian are eta beharrezkoagoa ikusten zen euskara idatziaren inguruko arau batzuen finkapena. Halere, mendearen hasierako hamarkada haietan ez zen kontsentsuzko erabakirik hartu. Aitzitik, aldizkarien ereduez adierazi dugun legez, idazle eta euskaltzale-taldeek arabera eredu eta bide bereziak jorratzeari ekin zitzaion. Mendearen amaiera inguruan finkatuko zen euskara baturanzko lehenengo pausua Euskaltzaindiaren sorrera izan zen. Bere aldeko aldarrikapenak 1898tik jada eginak baziren ere, ez zen 1919. urtera arte, Eusko-Ikaskuntzaren babespean aukera egokitu zitzaionera arte, erakundetu. Eusko Ikaskuntza (1918) izan zen hain zuzen, egin zituen kongresuen bitartez, eta gerra zibila heldu bitartean, euskal kulturaren eta hizkuntzaren normalizazioa helburu nagusitzat zuten intelektualak bildu zituen erakundea.

5.2.2. Ekoizpen idatzia ugarituz eta irakurketa estentsiborantz.

XX. mendearen azken hamarkadetan zehar euskararen normalizazioa lortzea izan zen euskal gizartearen helbururik nagusienetariko bat, hots, euskararen erabileraren berreskurapen osoa lortzea: pertsonala, soziala, kulturala eta lurraldetasunezkoa. Ildo horretatik, euskarak bizi zuen ordezkapen-prozesua gainditu nahian, euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzera zuzendu ziren herri-erakunde eta erakunde ofizial desberdinen ahaleginak Euskal Herriko sei herrialdeetan. Bai herri-ekimenen bai erakunde politiko-administraziozkoen helburuetako bat haur zein helduen euskalduntze eta alfabetatze prozesuak bultzatzea zen eta, aldi berean, euskara erabiltzeko gizarte-aukera desberdinak eskaintzea eta euskara, bere ahozko eta idatzizko adierazpenean, erabilaraztea.

Erabileraren sustapenari dagokionez, eta aurreko urteekin konparatuz gero, garrantzi handikoak izan ziren aipatu urteak arrazoi desberdinengatik: Batetik, euskararen produkzio idatzia eta bibliografiatzkoa kuantitatiboki eta kualitatiboki nabarmen areagotu zen, agerikoa izan zelarik, era berean, argitaletxe berrien sorkuntza. Era berean, azpimarragarria da aldizkari berrien sorrera edota iraganeko birmoldaketa eta, finean, euskararekiko gizarteak hartzen duen jarraitzearen bilakaera.

Euskal liburugintzaren egoeraren ezaugarri nagusiak honela laburbilduko genituzke, J.M. Torrealдай (1993) jaunak eginiko azterketa abiapuntutzat hartuta: argitaratutako liburuen kopurua nabarmen ugaltu zen, euskaraz jorraturiko gaiak eta esparruak zabaltu ziren, literatura eta irakaskuntza-motako liburuen-ganako joera gero eta nabarmenagoa egin zen, eta euskara batuaren errotze-prozesua eman zen. Urtero argitaratzen ziren liburuen kopuruaren igoera nabar-

menduz joan zen hamarkadetan aurrera egin ahala. Adibide, 1975. urtera arte ez zen urtean 100 liburu argitaratzera iristen. Kopuru hori gaindituta geratuko zen gerora. Euskaraz lantzen ziren gaien alorrean, bestalde, ikusten da zabaltze-joera nabaria, gero eta gai gehiago lantzen baitziren euskaraz, nahiz eta liburu kopuru gutxi argitaratu sail askotan.

Baina, aldi berean ere ikusi da produkzioa gai batzuen inguruan bilduz joan zela, haur eta gazte-literatura sailak eta irakaskuntza-sailak gero eta ekoizpen-proporzio handiagoa bereganatu baitzuten. Gero eta nabarmenagoa egin zen, baita ere, itzulpengintzarako joera. Aipatu joera hauek, noski, liburuaren merkatuaren eta zehazki argitalpengintzaren testuinguruan ulertu behar ditugu, azken batean argitaletxeak baitira liburuaren bat argitaratzeko garaian azken hitza dutenak eta, ondorioz, merkaturaren eskaintza kontrolatuko dutenak.

Euskarazko liburuak erosi eta irakurriko zituen merkaturik egon bazegoen, irakaskuntzako goi-mailetan eta alfabetatze-euskalduntzekoetan kontzentratua hein handi batean. Bistan da eskaria bazela, zentzu horretan euskarazko irakurketak gizartearen lekua hartu zuela, eta euskal irakurleagoa heziz eta haziz joan zela poliki poliki. Idazketaren kasuan, ezin dugu esan hein bereko garapena izan zuenik. Kasu honetan, euskal idazleak tradizioz izan duen, eta behar izan duen, borondate on, ofizio eta euskararekiko militantzia funtsezko aldagaia izan zen euskal liburuaren idazketan eta argitalpenean.

Ildo horretatik, aipatzekoak dira administrazio publikoetatik euskal liburugintzari eskaini zitzaizkion laguntzak, idazle zein argitaletxeentzako subentzio eta lehiaketak bideratuz,, gerraz geroztik eman ziren lehenetariko saiakerak ziren neurrian, eta euskararekiko eta euskal kulturarekiko nolabaiteko ardura eta bul-tzada adierazten zuten heinean.

Aldizkariei dagokienez ere, liburugintzan azpimarratu dugun ugaltze-fenomenoaren antzekoa eman zen mendearen bigarren erdialdean. Jada 70eko hamarkadan, gutxi edo gehiago iraun zuten aldizkari berri dezente sortu zen, eta aurreko urteetan sorturiko zenbait aldizkari sakoneko eraldaketa nozitu zuen. Kopuruari begiratuz, aurreko urteetan sortutakoei gehitu zitzaizkien 70eko hamarkadatik aurrera sortu ziren berriak. Kualitatiboki emandako aldaketak izango zuen, alabaina, eraginik handiena euskararen erabilera idatziaren normalizazio-prozesuan. Batetik, informazio-aldizkariaren artean, informazio erlijioso edo lokala utzirik, informazio orokorreko astekari bihurtu ziren, adibidez, 1976. urtean “Zeruko Argia”, “Anaitasuna” eta “Goiz Argi”. Euskal prentsa funtzional baten alde egin zuten apustua. Prentsa funtzional berri horri Deia eta Egin (1977) egunkari-
en eta Punto y Hora, Garaia eta Berriak bezalako astekari elebidunen sorrera gehitu behar diogu; Euskal Herriko arazoak eta informazioa lantzeko sortuak, elebidunak (nahiz eta euskararen presentzia urria izan), planteamendu profesionalaz sortuak, euskal gizartearen kontzientzia eragin zuzena izan zuten.

Euskararen erabilera idatziaren eremuan beste aldaketa garrantzitsua aldizkari espezializatuen eskutik etorri zen. Zientzia arloko ELHUYAR aldizkariaren sorrerak eta ondorengo bilakaerak paper nagusia jokatu zuen, adibidez, zientzia eta teknika arloko euskararen gaikuntzan. Kultur aldizkariaren artean, berriz, frankismoak eginiko eraso eta debekuen gainetik ateraz, 1977. urtean aukera berriek gorputza hartu zuten, eta beraien artean JAKIN. Etenaldi askoren ondoren, 1977. urtean argitaletxe izateari utzi eta gai monografikoak landuko zituen aldizkari bihurtuz, indar berriz atera zen eta euskara eta euskal kulturaren bilakaeraren azterketan erreferentzia puntu bihurtu zen. Aipatzekoak dira, halaber, ZABAL eta ZEHATZ aldizkariak, nahiz eta lehenengoak bezainbeste ez iraun, bere garaian euskal kulturaren munduan itzal handia izan zuten heinean.

Diru-laguntzak lortzeko bideak irekiz joan ahala, bestalde, aldizkari kopurua ugartuz joan zen. Baionan, Iruñean, Bilbon edo Donostian sortuak, informazio orokorreko zein espezializatuak; literatura, antzerkia, zientzia eta teknika, soziolinguistika, soziopolitika eta abarreko gai desberdinak lantzen zituzten aldizkarien sorrera areagotu zen.

Geografia eremu zabalerako eginiko aldizkariekin batera, kontutan hartu behar dira ere herri zein eskualde mailan argitara atera zen aldizkari mordoa. Euskal Herriko eskualde gehienetan izan zen iraupen motzeko edo luzeko aldizkariaren bat, hala nola: Arraste Press, Akatz, Hots, Amilamia, Plazara, Hitzza etab.

Aldizkariaren kasuan eman zen oparotasuna ez zen sumatu, tamalez, egunkariaren kasuan. Eguneroko prentsan eginiko saiakera txiki batzuk salbu, erdara nagusi izan zen. EGIN egunkariak 1986an “Hemen” aldizkaria argitaratu zuen, eta DEIA egunkariak, bere aldetik, “Eguna” argitaratu zuen euskal egunkari bat izan zitekeenaren lehen saiakera modura. Euskal egunkari sendoa eta zabala 1990. urtera arte, Euskaldunon Egunkaria argitara eman zen arte ez zen posible izan.

Euskara hutsez idatziriko egunkaria edukitzea kultura moderno eta normalizatuaren adierazpena da, edo behintzat modernizazio eta normalizazio bidean dagoen kulturaren adierazgarria. Euskara informazioa helarazi, zabaltzeko, hartu, utzi, elkartzen, eta eraldatzen duen gizarte moderno bati dagokion egunerokotasunean txertatua dagoela adierazten digu. Kultura moderno bateko hizkuntza normalizatu orok irakurketaren eta idazketaren gizarte-bilakaerarako duen oinarritzko tresnetariko bat da 90eko hamarkadak eman zuena. Etorkizunak neurtu beharko du emaniko aurrerapauso horren eraginaren zenbatekoa.

Euskararen modernizazio prozesurako ezinbestekoa izan da hizkuntzaren estandarizazioa, euskalkien mugak gainditu eta idatzizko komunikazioa erraztuko zuen hizkuntza bateratua aho batez itzartu eta onartzea, alegia. Irakaskuntza euskalduntzeko eta herritar guztiengana zabaltzeko, testugintzarako, liburu eta aldizkariaren irakurle merkatu iraunkor eta sendoa eduki ahal izateko derrigorrezko tresna bihurtu zen euskara batua. Urteetako errebindikazioa izan zelarik,

euskara estandarraren beharra berpiztu zen, gerra-osteko isilunearen ondoren, 60ko hamarkadaren inguruan. Oraingoan, aurreko saiakeretan ez bezala, batasunaren ideiak indarra hartu zuen eta, nola hala, euskaltzaleen komunitateak onartu zuen nork arduratu behar zuen hizkuntzaren estandarizazioaz, euskara batuaz alegia: Euskaltzaindiak.

Ildo horretatik, euskararen batasunerako bidea markatuko duten gunerik garrantzitsuenetarikoak Euskaltzaindiaren 1968ko Arantzazuko Biltzarra eta 1978ko Bergarako Biltzarra izan ziren, batean zein bestean hartutako erabakiak eta oinarriak erabatekoak izan baitziren irizpide nagusien finkapen gisa. Tarteko eta ondorengo urteetan oinarritzko xehetasunak eta atal zehatzak landu ziren, ahal zenetan, zenbait erabaki hartu eta herritarrei igorritz.

Hizkuntza eta kulturaren modernizazio prozesurik ezin izango zen posible izan, bestalde, idatzizko oinarria duten baina ahozko komunikazioan mugitzen diren masa-komunikabideen garapenik gabe, hots, euskara hutsezko irratirik eta telebistarik gabe. Zentzu berean, erabakigarria izan zen hizkuntza zientzia eta teknika mailan gaitzeko hainbat erakundek egin zuten lana. UZEI, ELHUYAR eta UEU izan ziren euskara ezagutza-arlo desberdinei aurre egiteko prestatzen eta, honekin batera euskaldunak zeregin horretarako gaitzen lehenak, baina ez bakarrik. Horiekin batera, eta horien ondoren, diharduten euskaltzaleen erronka izan da eta izango da teknologia berrietatik eta giza-adierazpen modu berrietatik eratorri zaizkigun egokitze beharrei erantzuteko hizkuntza eta hiztunak prestatzea, euskara eta euskaldunak gaitzea.

BIBLIOGRAFIA

- BOURDIEU, P. (1985). *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Akal.
- BOWMAN, A. K. eta WOOLF, G. (2000). *Cultura escrita y poder en el Mundo Antiguo*. Gedisa.
- CHARTIER, R. (1993). *Libros, lecturas y lectores en la Edad Moderna*. Alianza.
- COOK-GUMPERZ, J. (1988). *La construcción social de la alfabetización*. Paidós/MEC.
- DÁVILA, P. (1993). Euskal alfabetatzearen ereduaren eraiketakako osagaiak. *Uztaro, Euskararen Batasunaz*, 9.zb., 153-160.
- (1995). “El modelo histórico de alfabetización en Euskal Herria”. In DÁVILA, P. (koord.). *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. UPV/EHU, 17-44.
- (1998). “El proceso de alfabetización en el País Vasco (1860-1930)”. In *Elkarlanean, Congreso de Historia de Euskal Herria*. Txertoa-EJ, VI. t., 448-458.
- DÁVILA, P. eta EIZAGIRRE, A. (1992). “Alfabetización y euskaldunización en Euskal Herria”. In ESCOLANO, A. (zuz.). *Leer y escribir en España. Doscientos años de alfabetización*. Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 187-212.
- DÁVILA, P., EIZAGIRRE, A., eta FERNÁNDEZ, I. (1994a). “Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria”. *Cuadernos de Sección. Educación*. 7, 63-99. Eusko Ikaskuntza.

- (1994b). “Elementos para la elaboración de un modelo de alfabetización vasco”. Cuadernos de Sección. *Educación*, 7, 101-111. Eusko Ikaskuntza.
- (1995). “Las fiestas euskaras en el País Vasco (1879-1936): nuevos espacios de alfabetización”. In DÁVILA, P. (koord.). *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. UPV/EHU, 257-312.
- (1996). “Las fiestas populares y un nuevo contexto de alfabetización en euskera. El caso de Gipuzkoa (1879-1918)”. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 41, 1, 125-140.
- DÍAZ NOCI, J. (1992). *Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937). Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena*. UPV/EHU.
- (1995). *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*. Eusko Ikaskuntza.
- EIZAGIRRE, A. (1993). “Euskal alfabetatzea: euskararen erabilerak (1970-1990)”. *Uztaro*, 9.zb., 27-58.
- (1995). “Usos de la lectura y la escritura en euskara (1970-1990)”. In DÁVILA, P. (koord.). *Lengua. Escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. UPV/EHU, 128-158.
- (2002). “Euskarazko alfabetatzea XIX. Mendean: inprentaren baldintzapena eta eragintza”. *Hik hasi*, 71.zb., 38-42.
- (2005). *Alfabetatze espazioak eta herri-heziketa Gipuzkoan (1876-1918)*. https://www.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/ana_eizagirre_sagardiaTESIS.pdf
- (2007). “Ahozko hitzetatik idatzietara. Ikasi eta Jardun. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua”, *Euskara Mintzagai*, 2.zb.
- (2008). *Euskaldun zintzoaren etxerako eskuliburua. Euskarazko egutegiak eta euskarazko irakurketa espazio pribatuan. Gipuzkoa 1876-1918. Utriusque Vasconiae*.
- EIZAGIRRE, A. eta DÁVILA, P. (1991). “Alfabetatzea Euskal Herrian: ikuspegi historikoa”. *ELE*, 8.zb., 27-56.
- EUSKAL ESNALEA (1908). “El calendario de Euskal Eснаlea”, *Azaruak* 15, 11.zb.
- (1908). “Nire eskutitzak” (Eup), *Lotazillak* 15, 12.zb.
- EUSKALTZAINDIA (1977). *El libro blanco del euskera*. Euskaltzaindia, 457.
- FREIRE, P. eta MACEDO, D. (1989). *Alfabetización. Lectura de la palabra y lectura de la realidad*. Paidós/MEC.
- FURET, F. eta OZOUF, J. (1977). *Lire et écrire*. Minuit.
- GARCÍA, PAREJA eta AZKARRAGA (2004). *¿Saber leer? ¿Saber escribir? El proceso de alfabetización en el País Vasco (1860-1930)*. Congreso de Demografía Histórica
- GEE, J. P. (1989). The legacies of literacy: from Plato to Freire through Harvey Graff. *Journal of Education*, 171. Bol., 1.zb., 147-165.
- GOODY, J. (1985). *La domesticación del pensamiento salvaje*. Akal.
- GRAFF, H. (1989). El legado de la alfabetización: constantes y contradicciones en la sociedad y la cultura occidentales. *Revista de Educación*, 288.zb., 7-34.
- HAVELOCK, E. A. (1976). *Origins of Western Literacy*. The Ontario Institute for Studies in Education.
- HÉBRARD, J. (1989). La escolarización de los saberes elementales en la época moderna. *Revista de Educación*, 288.zb., 63-104.
- IZTUETA, P. (1995). “Sociología de la alfabetización y euskaldunización (1940-1992)”. In DÁVILA, P. (koord.). *Lengua. Escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. UPV/EHU, 79-98.
- LEKUONA, J. M. (1985). “Ahozko literaturaren historias”. In INCHAUSTI, J. (zuz.). *Euskal Herria. Lankide Aurrezkia/Jakin*, I. tomoa.

- OLSON, D. R. 1(1998). *El mundo sobre el papel*. Gedisa.
- PETRUCCI, A. (1999). *Alfabetismo, escritura, sociedad*. Gedisa.
- SCRIBNER, S. eta COLE, M. (1981). *The Psychology of Literacy*. Harvard University Press.
- TORREALDAI, J. M. (1993). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1990-1992)*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- VIÑAO, A. (1984). Del analfabetismo a la alfabetización. Análisis de una mutación antropológica e historiográfica. *Historia de la Educación*, 3.zb., 151-189.
- (1985). Del analfabetismo a la alfabetización. Análisis de una mutación antropológica e historiográfica II. *Historia de la Educación*, 4.zb., 209-226.
- (1992). “Alfabetización y alfabetizaciones”. In ESCOLANO, A. (zuz.). *Leer y Escribir en España. Doscientos años de alfabetización*. Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 385-410.
- (1994). “Analfabetismo y alfabetización”. In GUEREÑA, J. L., RUIZ BERRIO, J. eta TIANA, A. *Historia de la educación en la España contemporánea. Diez años de investigación*. C.I.D.E., 23-50.
- (1999). *Leer y escribir. Historia de dos prácticas culturales*. Fundación Educación, voces y vuelos.
- ZABALETA, I. (1993). Helduen alfabetatze-euskalduntzea: erakundetze polarizatua (1981-1990). *Uztaro*, 9.zb., 5-26.
- (1995). “Control y autonomía: conflicto en la alfabetización y euskaldunización de adultos (1981-1990)”. In DÁVILA, P. (koord.). *Lengua. Escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. UPV/EHU, 99-128.
- ZABALZA, A. (2006). “En la lengua vulgar, que es la vascongada. Alfabetización masculina y femenina en la Navarra moderna”. *Vasconia*, 35, 63-76.
- ZAVALA, A. (1964). *Bosquejo de historia del bertsolarismo*. Auñamendi.

6

Miren Josune Ibaseta Mendizabal maistrak, sendia oinarrian, emakumeen prestakuntza, euskara eta aberria ardatz

GURUTZE EZKURDIA ARTEAGA, KARMELE PEREZ URRAZA ETA BEGOÑA BILBAO BILBAO
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

2022an bete dira 100 urte Emakume Abertzale Batza (EAB) Bilbon sortu zenetik. Miren Josune Ibaseta Mendizabal lazkaotarra, elkarre horretako diruzaina izateaz gainera, Bilboko udal-maistra eta zuzendaria ere izan zen. EABren mendeurrena aitzakiatzat hartuta, maistra abertzale honen bizitza dakargu lerro hauetara, ezen, emakumeen prestakuntza, euskara eta aberria bihurtu zituen bizitzako ardatz.



Miren Josune Ibaseta Mendizabal
(Arg.: Txaber Erraztik utzia)

6.1. BILBOKO UDAL ESKOLETAKO MAISTRA

Miren Josunek irakasle ikasketetarako lehen ikasturtea Gipuzkoako Irakasleen Eskola Normalean burutu zuen arren, Bilboko Maistren Goi Eskola zabaldu berrian, 1902-03 ikasturtean, burutu zuen bigarren kurtsoa, eta sari berezia lortu zuen (El Nervión, 1903-10-05, 1 or.), ezen Miren Josune ikasle bikaina zen. Handik urte bira, 1904-05eko ikasturtean, Bilboko Maistren Goi Eskolan, Goi-mailako Lehen Hezkuntzarako errebalida espedientea eta Goi mailako Irakasle ikasketetako titulua eskuratu zituen. Epaimahaian izan zituen irakasleak: Julia-

na de Agirrezabala, buru; Victoria de Uzelay, idazkari eta, Maria Berasategi, ma-haikide.

Maistra titulua jaso eta laster hasi zen lanean Bilboko udal eskoletan, hasie-ran ordezkapenak egiten Urazurrutiako eskolan. 1905ean, martxoaren 29ko Bil-boko Udal erabaki batek irakasle supernumerario izendatu zituen Maria Jesus Ibaseta, Rosina Villafría eta Clara Arroitaonandia. Erabaki horren ondorioz, az-ken oposizioaldian izandako hutsuneak betetzeko eskubidea eman zitzaien maistra horiei (AMB-BUA 314690).

Hurrengo urtean, 1906ko otsailaren 21eko Udal Erabaki baten bidez, Maria Jesus Ibaseta irakasle laguntzaile titular izendatu zen, eta Rakel Alda —EABko kidea berau ere— eta Elisa P. de Oleaga, berriz, irakasle laguntzaile supernume-rario (AMB-BUA 316084). Hurrengo urtean, Maria Jesus Ibaseta lanean aritu zen Zorrotza auzoko borondatezkoa zen Haur-eskolako zuzendari karguan (Escuela voluntaria de Párvulos de Zorroza) (AMB-BUA 317849). 1907an, gainera, Lehen Hezkuntzako maistra izatera ere igaro zen. Ostean, 1908an, Martzanako eta La-rriskituko eskoletan maistra laguntzaile izendatu zuten, 1910ean dimititu ar-tean. Hortik aurrera, udal eskoletako zuzendari izateko saiakerak egin zituen, lehenengoz, 1914ko oposizio librean.

6.1.1. Datu biografikoak

Miren Josune Ibaseta Mendizabal Lazkaon jaio zen 1885eko azaroaren 20an, eta Bilbon zendu zen, 1976ko abenduaren 31n, 91 urte zituela. Josefa Martina Men-dizabal Jauregi zuen ama, 1853an Urretxun jaioa; aita, berriz, Enrike Ibaseta Txintxurreta, Lazkaon jaioa 1850ean. Etxean kontatzen zutenaren arabera, aita-ren familia ospetsua zen, goi mailako ikasketak izateaz gainera, —orduan ezohi-koa bazen ere—, ospedun karguetan ibiliak zirelako. Miren Josuneren birrai-tona, Domingo Hilario Ybaseta Garramiola, medikua zen; Berriatuan 1772an jaioa (AHEB-BEHA, 400438); Domingo Hilarioren gurasoak Miguel Ybaseta Ur-kiza eta Maria Jesus Garramiola Eyzagirre ziren. Jakin dugunez, Domingo Hila-riok medikuntza ikasi zuen Madrilgo San Carloseko Medikuntza eta Kirurgia Elkargoan (PARES, Universidades, 1215, exp. 97). Bere ibilbide profesionalean askotariko karguak hartu zituen. Aipatzekoa da, Euskal Herriko Adiskideen El-karteko irakaslea izateaz gainera, Fernando VII.aren kamarako ohorezko medi-kua izan zela, baita Bilboko osagile titularra ere (Miñano, 1826, 98 or.). Fran-tziska Arzelus Aristimuño ataundarrarekin ezkondu zen, eta semeetariko bat, Justo, Miren Josune Ibasetaren aitona izan zen. Justo Ybaseta Arzelus (1803-1879) donostiarra, Lazkaoko arkitektoa zen; baita Madrilgo “Real Academia de las Artes de San Fernando” erakundearen zuzendaria ere. Justo Antonia Txin-txurreta Yzagirrekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten, biak Lazkaon jaioak: Luzia (1858-1859) eta Enrike Aureliano (1850-1899), hain zuzen ere, Mi-

ren Josuneren aita. Enrike Lehen Hezkuntzako maisua izan zen Lazkaon eta Zumarragan, eta, 1884tik 1899ra arte, Falcesen jardun zuen lanean. Lehen Hezkuntzako Eskola publikoko mutikoen maisua zela, Falcesen hil zen 49 urterekin, 1899ko irailaren 11n. Bestalde, Miren Josuneren amari buruz ez dakigu gehiegirik. Badakigu beraren gurasoak Jose Manuel Mendizabal Muxika eta Juanita Jauregi Larrañaga zirela, biak Antzuolan jaioak. Alargundu ondoren, ama Bilbora joan zen bizitzera bere bi alabekin. Hil ere bertan egin zen 1933ko azaroaren 14an, 80 urte zituela eta Miren Josuneren etxean bizi zelarik. Miren Josunek ahizpa bi izan zituen, Auxilio eta Antonia, zeina bi urtekoa zela hil zen. Ahizpa biak Zumarragan jaio ziren.

Auxilio ere maistra zen, eta Emakume Abertzale Batzako kidea; ezkongabea; beti bizi izan zen Miren Josunerekin, harik eta Galmakan zendu zen arte, 1971ko irailaren 11n. Miren Josunek ahizpaorde bat izan zuen, Maria Dolores Ibaseta Ortuzar (Lazkao, 1878-1963). Klausurako lekaima izan zen, eta Lazkaoko komentuan zendu zen. Haren nebak, Jose Maria (Lazkao, 1880-1882) eta Bartolome M^a Francisco (Lazkao, 1881-1882) oso txikitan hil ziren, Miren Josune jaio baino lehen.


Etxekoek diotenez, amamak, Josunek, kontatzen zien 1903an, 18 urte zituela, bidaia luzea egin zuela berak bakarrik, diligentzian, Euskal Herria ezagutzeko asmoz; baita, Urduñatik behera, La Palankatik jaisterakoan, Laudioko haranean diren berdeguneak ikusi zituela ere, eta herria zeharkatzean, Urkixotarren palazioa eta bertako parkea; liluragarriak biak ere. Laudion, plazan zeuden hiru txakolindegi ezagutzeko aukera ere izan zuela. Kontua da beti errepikatzen zuela baieztapen bera, alegia, Laudio herri politenetarikoa zela, susmatu ere egin gabe, beranduago, bertara joango zela bizitzera, Galmaka auzoko Olagane etxera.

6.1.2. Bilboko Udal Eskoletako zuzendari izateko oposiziogile (1914)

Beharbada, familiatik zetorkion bide profesionalean aurrera egiteko grina, ze 1914ko uztaillean Bilboko Udal Eskoletako zuzendari izateko oposizioa aurkeztu zen, zeren orain ez bezala zuzendari kargurako oposizioak gaintitu behar baitziren. Zuzendari izateko oposizioako probak gogorrak izaten ziren, hamar artotako 275 gai prestatu behar ziren eta. Azterketara aurkeztzen zirenek, dokumentazioarekin batera, programa idatziz aurkeztu behar zuten. Ondoren, epaimahairen aurrean defentsa egiten zuten, ahoz eta idatziz. Programa bakoitzak gaitegi propioa zuen. Gaitegi luzeenetik laburrenara ordenatuta, honako hauek ziren programak eta gai kopurua: Pedagogía (40), Gramática (40), Geografía eta Historia (40), Ciencias Físico-Naturales (38), Aritmética y Álgebra (30), Geometría (26), Derecho Usual y Legislación Escolar (20), Historia Sagrada (18), Agricultura (13) eta Religión (10). Bistan denez, Pedagogiak eta gai instrumentalek pisu handia zuten, eta gutxien Erljioak.

Eskolako zuzendari izateko oposizioaren prestakuntzan gaitegien zehaztasuna azaltzeko, Pedagogiaren arloari begiratu diogu. Pedagogia-programak (AB, 1914) islatzen du zein izan ziren eskola graduatuak ekarri zituen hezkuntza-berrikuntza eta eskolaren espazioa ulertzeko modu berria. Programa eskola-graduatuaren errealitate pedagogiko berrira egokitzen da, non 6 eta 12 urte bitarteko ikasleak sei gradutan edo mailatan banatzen diren. Pedagogiara, hezkuntzara eta hezkuntza motetara (estetika, morala, fisikoa, erlijiosoa, teknikoa) bideratutako hainbat gai daude. Ikaslearen jarduerari garrantzia ematen zaio; batetik, memoria, arreta, irudimena eta hezkuntzaren lege orokorrak nabarmentzen dira; bestetik, haurren jarduera baldintzatzen duten faktoreak (nekea, loa, *surmenage*, elikadura eta bost zentzumenen arreta bezalako faktoreak barne). Garrantzia ematen zaie 6-12 urte bitarteko haurren alderdi psikologikoei eta bilakaera intelektualari. Haurren arrazoiketa, adimena, sentiberatasuna, sentimenduak, hezkuntza estetikoak, erlijio-heziketa eta hezkuntza morala eskola graduatuaren errealitate berritik ikusten dira. Irakaskuntza ziklikoa eta irakaskuntza zentroki-dea bereizten dira, baita horiek eskola-graduatuarekin duten harremana ere. Eskola-graduatuaren trataera berria dute irakaskuntza-metodoek, liburuek, erakusketek, museoek eta ikasgaietako material espezifikoek, espazio-banaketa berrira egokitu behar direlako. Didaktika espezifikoak nabarmentzen dira programan: irakurketaren eta idazketaren didaktika espezifikoak, ama-hizkuntzarenak, aritmetikarenak, geometriarenak eta sistema metrikoarenak, geografiarenak eta historiarenak, natur-zientzietakoak, irakaskuntza teknikoarenak eta eskuzko lanarenak. Horrez gain, presentzia hartzen dute eskola graduatuaren fisiologiako eta higieneko ezagutzek eta etxeko ekonomia aplikatuak, jostakuntzak (neskentzat), merkataritzako eta industriako ikasketek (mutilentzat). Gainera, lehenengoz hartzen dute tokia eskolan jantokiak, dutxek eta gimnasioek. Eskola-graduatuaren antolaketan, ikasgelen banaketaz gainera, espazio horien kokapena eta antolamendua ere kontuan hartzen dira, baita eguneko zein asteko eskola-denboraren banaketan ere. Ikaslearen aktibitatea dagokionean, honako kontzeptu hauek lantzen dira programan: diziplina, emulazioak, delazioak, azterketak, ikasle guztien arreta bermatzeak, eskola-erakusketak. Gainera, sariek eta zigorrak ere presentzia hartzen dute eskola-graduaturako oposizioaren Pedagogia programan. Azken gai batek Europako eskola-graduatuari egiten dio erreferentzia. Gainontzeko arloak ere zehaztasunez azaltzen dira gorde diren dokumentuetan (AB, 1914).

Oposizioaren epaimahaia osatu zuten Ramón Etxebarria, Rufino Laiseka eta Mariano Tejero zinegotziek, Francisco Basabe Urkijo Lehen Hezkuntzako ikuskariak, Pedro Aguado Bleye eta Manuel Lasa Institutuko Letra eta Zientzietako katedratikoei, eta Nicanora Díaz Carredano Bilboko Eskola Normaleko irakasle titularrak (AMB-BUA 353775).




Zuzendari oposizioko Pedagogia Programa (Arg.: AB, 1914)

Oposizio libre horretara 23 maistra aurkeztu ziren arren, azken proba gainditu zutenak Cristina Santa María Sáenz, Guadalupe Blasco Etxebarria eta Maria Jesus Ibaseta Mendizabal izan ziren. Lortutako puntuazioaren ondorioz, 1914ko uztailaren 15eko udal-bilkurak hiru maistra horiei esleitutako eskolen izendapena onartu beharrean, atzeratzea erabaki zuen. Berez, bilkurako gai-ordenan jasota agertzen zen Maria Cristina Santa Maria Gortetako Nesken Udal Eskola Graduaturako zuzendari izendatzea, baita Guadalupe Blasco Urazurrutiako Haur-eskolarako egitea ere, eta Miren Josune Ibaseta Gorte kaleko Haur-eskolarako. Hala eta guztiz ere, Laisekaren eta Tejeroren boto partikularraz baliaturik, lehen bi kasuetan izendapen berberak proposatu ziren arren, Ibasetaren ordeez Irene Matilde Iturrate Larrazabal proposatu zen zuzendari (AMB-BUA 354112). Gaia botazioetara eramanez, ebaluazio epaimahaien akordioaren gainean bozketa egin eta zuzendari kargua Matilde Iturrateri eman zitzaion.

Miren Josune Ibasetak Gobernu Zibilaren aurrean aurkeztu zuen gora jotzeko errekurtoa, adieraziz Irene Matilde Iturrate Larrazabal maistrari eman zitzaiola lanpostua berak, Josunek, oposizioko probak gainditu ondoren. Beraz, lortutako puntuazioan oinarrituta, berari, Josuneri, zuzendari karguaren izendapenean hirugarren postua egokitzen zitzaiola, hots, Bilboko Gortetako Udal Eskolako zuzendari kargua. Errekurtsoa bideratu egin zen, baina gobernadore zibilak ez zuen prozesuan parte hartu nahi izan. Azkenean, erabakia Udalaren esku geratu zen, eta

Miren Josune Ibasetak errekurtsua galdu egin zuen, Udalak epaitegiaren aurrean adierazi baitzuen bere ardurapeko lanpostuei buruz erabakitzeko ahalmen guztia zuela, modu bateko zein besteko erabakiak hartzeko, alegia.



Oposizioaren azken froga. Eserita, Nicanora Diaz Carredano. Zutik, eskuman, Cristina Santa María; ezkerrean, lehena Guadalupe Blasco, eta bigarrena, Miren Josune Ibaseta.
(Arg.: Amado, *Novedades*, 1914-07-12)

Errekurtsua galdu arren, Miren Josunek Bilboko udal-eskolako maistra jardun zuen aurrerantzean. Horrez gainera, 1914-15 ikasturtean, Bilboko Udalak bultzatuta, emakume helduentzako gau-eskoletan aritu zen Martzanako eskolan, eta, ardura horrekin batera, Igandeetako Nagusientzako Eskoletan ematen zituen klaseak. Aldi berean, hiriko haurren matrikulazioaren ardura zuen bere gain. Jarduera hirukoitz hori zuten maistrei 1916ko udaldian ez zieten utzi udal-kolonietan parte hartzen, Laiseka zinegotziaren boto partikularra zela medio. Hori dela eta, egoera horretan zeuden hiru maistrek —Miren Josune Ibaseta, Rosina Villafria eta Mercedes Marín—, protesta egin zuten Kolonia eta Itxasoko Bainuetako ekintzetan udal-maistra gisa parte hartzen utzi ez zietelako. Hiru maistren erreklamazioa aurrera joan zen, eta Udalaren 1916ko abuztuaren 25eko azken erabakiaren ondorioz onartu zitzairen aurrerantzean eskubide hori izango zutela. Gainera, uda horretan joan ezinagatik jasandako kalteagatik, bakoitzari 100 pezetako indemnizazioa emango zitzaiera onartu zen (AMB-BUA 357349). Izan ere, Miren Josune 1913ko udan ere udal kolonietan ibilia zen. Bilboko udal-

udalekuen batzordeak Carmen Sainz eta Miren Josune Ibaseta zuzendari eta laguntzaile, hurrenez hurren, izendatu zituen Gorlizen antolatu zuen neskatoen udalekuan jarduteko (Euzkadi, 1913-07-25, 2).



Miren Josune Lagako hondartzan 1919ko uztailaren 27an, udako ikasleekin askaria egiten.
(Arg.: Txaber Erraztik utzitakoa)


6.1.3. Bilboko udal-eskolako zuzendari izateko oposiziogile, bigarrenez (1917)

Esan daiteke 1918 inguruan Bilbo aberastu egin zela Europako herri batzuei burdina saltzearen ondorioz, besteak beste, Europak gerrarako armamentua egiteko behar baitzuen. Egoera politiko eta ekonomiko horrek beharrezko azpiegiturak mobilizatu zituen garraiorako, flota handitzeko, ontziolak sortzeko eta garraiatzeko trenbide-sare indartsua eraikitzeko. Bilbo geografikoki hedatu zen, eta hirigintza garatzearekin batera era guztietako oinarrizko zerbitzuak antolatu zituen, hala nola ura edo osasuna. Burdina ustiatzeak, siderurgiak, komunikazio berriek edo beste industria eta banku batzuen sorrerak Bilbo garaiko gizartearen aldaketaren buru izatea eragin zuten. Aldaketa sozioekonomiko horiek guztiek, aldi berean, interes handia sortu zuten gazteen hezkuntzari eta biztanleriaren kultura-maila hobetzeari zegokion arloan. Dávalak (2004, 20 or.) dakarrenez, modernizazio —prozesua eta gizarte— eraldaketa garatzeak laguntzen digute ulertzen hezkuntza-administrazioan gertatzen diren aldaketak eta erreformak. Bilbok izan zuen hazkunde demografikoa eta Udalak zuen egoera ekonomiko ona nahiko izan ziren Udalak eskola berrien hornidurari ekiteko. Batetik, eskola batzuk handitu ziren (La Concha, Tivoli, San Pedro, Uribarri eta beste batzuk);

bestetik, eraikin berriak egin ziren: Indautxu, Mujika, Camacho eta Maestro García Rivero eskolak.

Eskola-eraikin berriak ederrak, dotoreak, funtzionalak eta argiak izateaz gainera, aireztatuta eta materialki oso ondo hornituta zeuden. Ricardo Bastida udal-arkitekto titularrak egin zituen Indautxu (1916) eta Mujika (1916) eskolak, eta haren laguntzaileak, Pedro Ispizuak, beste biak, geroago: Iralako Camacho eskola (1922), eta Atxuriko Maestro García Rivero (1927).

Gaztañagak (1933) idatzi zuen udal-memoriatik jaso ditugu eraikin berrien ezaugarriak. Indautxuko eskolak 18 sekzio zituen (6 mutikoentzat, 8 neskatoentzat eta 4 Haur-eskolentzat). Jolastoki irekia, oso handia (1500 m²) zuen, eta beste txikiago bat ere bai, baina aterpeduna (385 m²). Eskolak 300 bat ikaslerentzako kantina eta jantokia zituen. Dutzak, areto nagusia eta gainontzeko zerbitzuekin oso ondo horniturik zegoen. Horrez gain, atezaintzako etxea ere bazuen. Handik lasterrera, 1919an, eraikin horretan egin zen lehenengoz Emakumearen Eskola Praktika. Mujika eskolak, berriaz, 15 sekzio zituen (6 mutikoentzat, 6 neskatoentzat eta 3 haur-eskolentzat). 120 ikaslerentzako kantina eta jantokia eta atezaintzako etxea zituen. 1918tik aurrera, eskola bietan egin ziren euskarazko borondatezko klase bereziak.



Indautxuko eskola (ezkerrean) eta Mujika eskolako sarrera eta alboko fatxada (eskuman)
(Arg.: Gaztañaga, 1933, 14. eta 25. or.)

Irakasleak ere harro zeuden hezkuntza arloan izandako lorpenez. Bilboko Udalak —beste erakunde batzuekin batera, hala nola Foru Aldundiarekin— alfabetatzearen alde eta herriko hezkuntza hobetzearen alde lan egiten jarraitu zuen. Horri dagokionez, nahiz eta geroagokoa izan, aipagarria da Atxuriko Ana Molinero maistrak erretiroa hartu zuen eguneko hitzaldian esan zuena: “1880an Abandon irakasle ibilbidea hasi zuenean Bilbon bi eskola baino ez zeudela; hala

ere, orain (1921. urtean), udalerriak filantropo handien laguntzaz eraikitako eraikin bikainak dituela; Bilbok denbora gutxian lortu duela orain urte asko hiri handiek lortu zutena, hala nola Bartzelonak edo Madrilek”. Hitzaldian, Molinero maistrak hirian egindako ahalegina goraiatu zuen: “Bilbok 40 urtean egin du mende bateko lana, eskola-koloniak ezartzen dituen lehen udalerria izanik; Ikuskaritza Medikoa ezartzen da Instrukzio Publikoko Ministerioak ezarri baino 20 urte lehenago; atzerriko onenekin lehiatzen diren eraikinak eraikitzen dira; eta komunak eta dutsak ezartzen dira, gastuei erreparatu gabe, diru-kutxak agortezinak balira bezala” (*El Nervión*, 1921-11-07, 3).


Bilboko Udalak sekulako ahalegina egin zuen haurrak eskolatzeko. XIX. mendearen bukaeran, 1894an, Lehen Hezkuntzako 32 eskola zituen; 1913an, 135, ia lau aldiz gehiago, eta 1923an, 176. Zabalduz joan ziren ze 1931n eta 1933an, 245 eta 342 eskola zituen, hurrenez hurren (Gaztañaga, 1933, 27 or.). Bilbon eskolen izaera bilakatuz joan zen epealdi horretan. Eskola guztiak ez ziren izan udalarenak, publikoak izan arren. Horregatik, eskola publikoen artean honako hauek aipatu behar dira: udal-eskolak, eskola nazionalak, igandetako eskolak, emakumezko helduen gau-eskolak, gizonezko helduen gau-eskolak. Horrez gainera, euskara klaseak, musika klaseak eta gimnasia klaseak zonaldeko eskola bakar batean kontzentratuta zeuden; Emakumearen Eskola Praktika, hasieran Indautxuko eskolan kokatuta egon zena, 1933-34 ikasturtetik aurrera Tivoliko eskolan zabaldu zen. Eskola pribatuen artean honako hauek dauzkagu: diruz lagundutako eskolak, eskola pribatuak (laikoak eta erlijiosoak), akademiak eta ikastolak. Bizkaian, berriz, Aldundiko auzo-ikastolak eta gainontzeko eskola publiko eta pribatuak nagusitu ziren.

Bilboko Udal Eskola Graduatu berriak eraiki zirenean, mutilentzako eta neskentzako eskolak sortzearekin batera, zuzendariak izendatu behar izan ziren. Kargu berrietan zuzendari aproposenak aukeratzeko, oposizio libreak antolatu zituen Bilboko Udalak, deialdian maisuen eta maistren proba bereiziak eginez. Indautxuko Eskolan eta Mujika Eskolan nesken atal bietan, Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, zuzendari berriak izendatu behar zirenez, plaza bina atera ziren oposiziora. Lehiaketa horretara 9 maistra aurkeztu ziren. Bakoitzak bere programa defendatu ondoren, ahoz zein idatziz, azkenik lau plaza horiek oposizioan puntuaziorik altuenak lortu zituzten maistrekin bete ziren. Hori horrela, Miren Josune Ibasetak, Udalaren 1917ko abenduaren 21eko erabaki baten ondorioz, “Luis Elizalde” izeneko Indautxuko Nesken Eskoletako zuzendari plaza eskuratu zuen, oposizio librearen bidez; eta Haur Hezkuntzako zuzendari plaza berriz, Rosina Villafría Pampliega maistrak. Oposizio berean, Mujikako Nesken Eskolako Lehen Hezkuntzako zuzendari plaza Maria Eugenia Arrue Orkaiztegi maistra tolosarrarentzat izan zen, eta Haur Hezkuntzako Carmen Leniz Leniz-Arrieta maistrarentzat (AMB-BUA 359037). Miren Josune Ibaseta maistrak oposizio bidez lortu zuen zuzendari plaza prestigio handikoa zen orduko udal-eskoletan.

Dena den, 1920an, zuzendari horien artean euren karguen trukea egiteko eskatu zuten (AFB-BFA, Bilbao 6^a 0124/025). Truke horren ondorioz, batetik, Indautxu eta Mujikako zuzendari karguak eskolaz aldatu ziren: Maria Eugenia Arruen ordeztu, Miren Josune Ibaseta joan zen Mujika eskolara. Bigarren trukea Mujika eskolan bertan egin zen, Miren Josune eta Clara Leniz zuzendarien artean. Hortik aurrera, Miren Josune Ibaseta Mujika Eskolako Haur Hezkuntzako zuzendari izan zen.

6.1.4. Bilboko udal-eskoletako euskara-irakaslea (1918-1936)

1918a urte emankorra izan zen euskararen alorrean. Euskal Ikasketen I. Kongresua egin zen Oñatin, Eusko Ikaskuntzak antolatuta. Urte berean sortu ziren Euskaltzaindia eta Bilboko Maistren Eskolako euskarako katedra, eta Bizkaiko Aldundian gehiengo nazionalista nagusitu zen, Ramón de la Sota Aburto buru zela. Egoera horretan, Aldundiak Bizkaiko auzo-eskolen egitasmoa martxan jarri zuen, besteak beste. Euskararen sailean, Bilboko Udalak bere euskal osagaia jarri nahi izan zuen, eta, abertzale euskaltzaleen aldarrikapen eta bultzadarekin, azkenean, udal-eskoletan euskara-klaseei bideragarritasuna ematea erabaki zen. Klase horiek martxan jartzeko ez zen oztoporik falta izan, eta, azkenean, klase berezien izaeraz (musika eta gimnasia ikasgaiak) arratsaldezkotasuna erabaki zen, eskola orduetatik kanpo, eta beti borondatez aukeratua izateko.



Euskarazko Klase Berezien Erregelamendua.
(Arg.: AFB-BFA, Bilbao 11^a 0036/131)

Klase horien funtzionamendurako Erregelamendua idatzi zen (AFB-BFA, Bilbao 11^a 0036/131). Ikasleek, 10-13 urte bitarteko neskek zein mutilek, bi eskola zituzten aukeran, Indautxukoa eta Mujikakoa, euren jatorrizko eskolaren arabera batera edo bestera joateko. Eskola bakoitzean bi irakasle izendatu ziren, bat neskentzat eta bestea mutikoentzat. Bi maila zeuden hizkuntza ikasteko, egunero, urritik maiatzera. Bukaeran, azterketak egiten ziren ikasleen maila zehazteko, eta noten arabera ikaslerik onenak saritzen ziren. Metodo praktikoa eta dinamikoak erabiltzea gomendatzen zen, irakurketaz eta idazketaz gain ahozko mintzapraktikari lehentasuna emateko. Ikastalde bakoitza osatzeko prozedura zehazten zen: irakasleko 40 ikasle baino gehiago ez, eta finkotasunik gabe, gehienez, hamar ikasle. Batzorde ikuskatzailearen osaketa eta zereginak ere zehaztu ziren, eta ikasturte amaieran oroitidazkian ikasturteko balantzera jasotzeko beharra. 1919ko maiatzaren 5eko dataz, Erregelamenduak hobekuntza batzuk izan zituen, garrantzizkoena agian, ikasleen adina luzatuta. Ordutik aurrera, 10etik 14 urtera arte zabaldu zen matrikulatzeko adina, eta 14 urteekin ez bazuten euskararen prestakuntza lortu edo bukatu, aukera zuten berriro matrikulatzeko, irakasle arduradunak egoki ikusiz gero (AFB-BFA, Bilbao 11^a 0036/131).

Beraz, 1918an Bilboko Udalak euskarazko eskolak antolatu zituen 6.000 peze-tako aurrekontuarekin (4.000 irakasleak kontratatuzko, eta 2.000 materialerako). Klaseak emateko lau irakasle kontratu ziren, maistra eta maisu bana ikastetxeko. Bilboko Udalaren 1918ko abuztuaren 2ko erabaki baten bidez, Miren Josune Ibaseta Mendizabal, Gregorio Maidagan Mujika, Eugenia Arrue Orkaiztegi eta Joseba Altuna Aldasoro, hurrenez hurren, Indautxu eta Mujika eskoletarako euskara-eskola berezietako irakasle izendatu ziren, behin-behinean eta bi urteko aldirako. Horrez gain, euskara-eskola berezietako Ikuskaritza Batzordea eratzekeo Lucio Atxa, Juan Urresti eta Antonio Bandres zinegotziak eta Ebaristo Bustinza eta Joseba Errazti auzokideak izendatu ziren (AMB-BUA 359944). Aurreratuko dugu Joseba Errazti Bilboko *Euzkeltzale Bazkuneko* kide eta Euzko Gaztediko militantea, geroago, 1920an, Miren Josune Ibasetarekin ezkonduko zela.

1918ko urriaren 10eko datuen arabera, matrikulak egunetik egunera gora zihozten: Indautxun 100 neska eta 69 mutil zeuden, eta Mujikan, 150 neska eta 54 mutil —77 izatera heldu ziren—. Egoera horren aurrean, irakasle gehiago kontratatatu ziren —guztira zortzi ziren—; Indautxurako Maria Dolores Naveran Sáenz de Tejada, eta Mujikarako Luis Arbeloa Fresnedo, Julia Egja Unzueta eta Nieves Gomeza Etxeberria, azken biak Bilboko Plaza Barriko ikastolako andereñoak. Luisek uko egin zionez izendapenari, 1919ko maiatzean Enrike Coll Irazabal izendatu zuten; baina 1920ko urtarrilean hil zen bronkopneumoniak, eta, haren ordean, Tomás Agirre Urdalleta izendatu zuten (AFB-BFA, Bilbao 11^a 0036/131).

1918-19ko ikasturteko irakasle bakoitzaren eguneroko asistentziaren araberrako batez bestekoak aztertuta, bistakoa zen irakasle kopurua egonkortu behar zela, eta 1919ko azaroaren 13an lau irakasle gehiago kontratatatu ziren, bitarteko

gisa eta ikasleen matrikulazioaren arabera. Mujika eskolarako, M^a Angela Abasolo Aldekoa, Clementina Naveran Sáenz de Tejada eta Mikel Arruza Egia izendatu ziren, eta Indautxurako Clara Arroitaonandia. Kasu horretan, aurreko kasuetan bezalaxe, udal-maistrek, beren karguko ofizioaz gainera, orduz kanpo euskarazko klaseak ematen zituzten egunero.



Joseba Errazti, Miren Josune Ibaseta eta Eugenia Arrue Orkaiztegi, Algortan (1920).
(Arg.: Txaber Erraztik utzitakoa)

1920ko maiatzaren 28ko Bilboko Udal Akordioak euskara eskola berezietako Ikuskaritza Batzordea berritzu zuen. Batetik Atxa, Barturen, Aranzibai eta Salsamendi zinegotziak, eta bestetik, Keperin Jemein eta Joseba Errazti auzokideak izendatu zituen (AMB-BUA 372105). Euskarazko klaseen eskabideak gora egin zuenez, 1933-34 ikasturtean 14 irakasle kontratu ziren Indautxu, Mujika eta Ollerias udal eskoletan euskarazko klase bereziak emateko. Sei maisu: Tomás Agirre Urdalleta, Pelayo Bernedo Etxano, Luis Castillo Candillaga, Cornelio Ibargutxi Agirre, Rafael Kerejeta Berazadi eta Pedro Simón Ibáñez. Maistrak zortzi ziren: María Eugenia Arrue Orkaiztegi, Miren Josune Ibaseta Mendizabal, Julia Egia Unzueta, M^a Luz San Cristobal Orbe, M^a del Carmen Egiluz Uriguen, Juana Elorza Azpeitia, Margarita Murguizu Azurmendi eta Encarna-

ción Ugalde Ogara (AFB-BFA, BILBAO 11^a 0175/139). Azken maistra biak, Bilboko Belostikaleko Euzko Ikastolako andereñoak izan ziren.

6.1.5. Euzko Ikaskuntzako bazkide fundatzailea (1918)

Miren Josune Ibaseta garaiko euskalgintzan erabat murgilduta ibili zen. Udal-eskoletan maistra euskaltzale eragilea izateaz gain, 1918an sortu zen *Eusko Ikaskuntzako* kide fundatzailea izen zen, elkartearen 1918-1920ko memorian datorrenez (EI, 1920). Elkarre horren sorreran bazkide fundatzaileen kopurua mila ingurukoa zen arren, emakumeen presentzia oraindik urria zen. 1918an Oñatin egin zen I. Kongresuko biltzarkideak bilakatu ziren Eusko Ikaskuntzako bazkide fundatzaile, eta horrela gauzatu zen Eusko Ikaskuntza izeneko elkartea. Miren Josune Ibaseta bazkide fundatzaile gisa agertzen da, 749 zenbakiarekin, eta Bilboko Colón de Larreategi kaleko 19 zenbakiko 2. solairuan bizi zela ere adierazten da (EI, 1920, 38 or.). Goraipatzekoa da Bilboko La Concha udal-eskolako zuzendari zen Adelina Méndez de la Torre emakume hizlari bakarra izan zela Oñatiko Kongresuan, eta kongresisten artean beste 65 emakumek ere parte hartu zutela.

1918ko Oñatiko I. Kongresuan, askotariko gaiak aztertu ziren, zazpi atal hauetan bilduta: Zientzia Politiko eta Sozialak, Arraza, Hizkuntza, Historia, Arteak, Irakaskuntza eta Euskal Ikasketak. Atal bakoitzean hitzaldi orokorra eta ikastaldiak egin ziren. Atalaren lana amaitzeko ondorioak idazten ziren, zeinetan islatzen zen han aztertutakoen prospektiba.

Garaiko euskal irakaskuntzaren egoera aztertu zen kongresuan, punta-puntako politikari, pentsalari eta hezitzaileen ekarpenak plazaratuz. Irakaskuntzaren diagnosiaz batera, hizlariak soluzio-bideak ere proposatu zituzten. Luis Eleizalde “Irakaskuntzaren arazoak Euskal Herrian” hitzaldia eman zuen; Eduardo Landeta “Eskolaren egoeraz” mintzatu zen; Leoncio Urabayen “Euskal eskolako irakaslea” mintzagai hartu eta maisu-maistren prestakuntzaz aritu zen, arazoak eta erremedioak azalduz, eta Adelina Méndez de la Torrek “Lehen Hezkuntza berria Euskal Herrian” gaia hartu zuen, eskarmentu handia baitzuen Lehen Hezkuntzako irakaskuntzan. Méndez de la Torre Eskola Berriaz mintzatu zen, eta aldarrikatu zuen Eskola Berria elebiduna eta hezitzailea izan behar zela, ezinbestean. Esan zuen eskolak euskaraduna, berria eta herriarena izan behar zuela bertakoa izan nahi bazuen (EI 1919, 935 or.). Beraz, ezinbestekotzat jo zuen bertoko hizkuntza, geografia eta historia etxekotzat hartzea (EI 1919, 936 or.). Eskola herriarena izateko, probintzia eta udalak izango dira Euskal Herriko eskoletarako oinarritzko programa adostuko dutenak, eta baita betetzeko ardura hartuko dutenak ere, denok derrigortzen gaituen heinean (EI, 1919, 937 or.).

Oñatiko I. Kongresuan hezkuntzari buruz esandakoak geroko euskaltzaleen egitasmo asko baldintzatu zituen, hala nola Bizkaiko auzo-eskolen egitasmoa, euskal maisu-maistren eta ikasmaterialaren izaera, euskarako klaseak udal esko-

letan ematea, eskolaren kudeaketa, emakume helduen etxe-eskolako formazio-ari ekin beharra eta abar. Aipagarria da Oñatiko Kongresuan emakume helduen Etxe-Eskolako prestakuntzaz esan zena, handik aurrera Bilboko Indautxuko udal-eskolan izan zuen berritasunagatik.

“Etxe-Eskola” tzat har zitezkeen ikasketak Kongresuaren ondorioetan aipatu ziren. Alberto Atxika-Allende jaunak emakumeei bideratutako “Euzko-eskaratz-ikastola” gaiaz aurkeztutako txostena aipatu zuen (EA, 1918, 946 or.), txosten hori bere egin zuen kongresuak eta emakumeentzako egokia izan zitekeen irakaskuntza antolatzeko neurriak hartzea erabaki zen. Horretarako, emakumeen biltzarra antolatu zen, emakumeentzako eskolaren martxaren ardura hartuko zuena.

Etxe-Eskolatzat har zitekeena, hots, plantxa, joskintza, jantzigintza, sukaldaritza eta umeen zainketarako eskolak, antolatu ziren Miren Josune Ibasetak lan egiten zuen Bilboko Indautxuko udal-eskolan. Eskakizun horri jarraituz, lehenengoz 1919an antolatu zen “Emakumeentzako Eskola Praktika”. Gaztañagak (1933, 65 or.) aipatzen ditu eskola horren ezaugarriak. Udalak Concepción Sáiz maistra zuzendari karguan jarri zuen, eta klase-praktikak irakasle aditu bakoitzaren arabera antolatzen ziren. Urtero, azarotik maiatzera bitartean, egunero ematen ziren klaseak, egunez (arratsaldeko 15:00etik 18:00etara) eta gauez (19:00etatik 21:00era). Saio praktikoetan garbiketa, plantxa, etxeko lanak, sukaldaritza eta arropa zurien josketa lantzen zen. Hasierako urteetan 300 emakume inguru matrikulatzen ziren arren, gradualki gorantz joan zen, eta 1933an hirukoitza izatera ailegatu ziren. Antolaketa horrez gain, ikastaro praktikoak eskaintzen zitzaizkien neskame ogibidean zebiltzanei edo ezkontzeko bidean zeudenei. Eskaera ikusirik, Tivoliko eskolan, 1933ko abenduaren 1ean, “Escuela del Hogar” izenekoa inauguratu zen Clementina Naveran bertako eskolako zuzendariaren ardurapean (Euzkadi, 1933-11-22, 7 or.).

6.1.6. Abertzaletasunaren esparru publikoko militantzia. Emakume Abertzale Batza 1922-1936

Miren Josune Ibasetak Mujika udal eskolan lankide izan zituen maistra abertza-leak, horien artean Paule Ramos Abarrategi. Biak Euzko Gaztediko ekitaldi kultural askotako parte-hartzaile sutsuak ziren (antzezleak, hizlariak, ikastaro emai-leak...). Bilbon 1922an EAB sortu zenean, eurak agertzen dira sortzaileen artean, eta EABko lehen zuzendaritzako kide izendatu zituzten bai Miren Josune —diruzain—, bai Paule Ramos Abarrategi —bokal—. Miren Josuneren koinata, Karmele Errazti Perez de Saratxo, EABren presidente izendatu zuten. Eurekin batera, EABko kideak izan ziren Euzkaltzale Bazkunan eta Euzko Gaztedin ibi-litako maistra batzuk: Sorne Unzueta Landeta, Consuelo (Gotasne) Gallastegi Uriarte, Kepe Gandarias Magunagoikoetxea, Alike Aretxabaleta Mendia, Egia Unzueta ahizpak edo Torrontegi Oleaga ahizpak, besteak beste.

EABren emakume militante horiek gizarte-eredu berriaren aldeko apustua egin zuten, hainbat ekimen eta lan bultzatuz. EABk hasiera-hasieratik erakutsi zuen bere eginkizunen arteko zituela aberriaren aldeko propaganda, hezkuntza nahiz elkartasun-zerbitzuak eta giza-laguntza. Ongintzatik abiatuta, euskararen aldeko konpromisoa gauzatu zuten umeentzako euskal eskoletan zein emakumeen prestakuntzan.

EABren eragina hezkuntzaren esparruan nabarmendu zen. Hezkuntza informaletik, gaztetxoentzako aisialdi saioak eta helduei bideratutako prestakuntza-ikastaroak aipatu behar dira, erizain izateko ikastaroekin batera. Hezkuntza formaletik begiratuta, berriz, Euzko Ikastola Batzaren egitasmoa aipatu behar da, zeina 1932tik 1936ra gauzatu zen. Hezkuntza-sistema ofizialaren laiktasunari eta euskalduntasun ezari aurre eginez, hezkuntza-proiektu alternatiboa izan zuen asmo, ofizialki indarrean zegoenaren aurkakoa, hizkuntzaz, helburuz eta pedagogiaz. Proiektu horretan sekulako garrantzia eman zitzairen eskolaren eraketari, metodologiari, irakasleen prestakuntzari eta haurrek erabiliko zuten materialari. Horrela, 1932an, zortzi ikastola zabaldu ziren Bizkaian, eta bat Gipuzkoan. 1936rako, jada hamabost zeuden Bizkaian, eta Gipuzkoan bakarra, Bergarakoa. Hezkuntza-eredu horretan ibilitako andereño guztiak EABko militanteak izan ziren, eta horietariko askok laguntza eskaini zuten 1937ko erbesteratze masiboan, bai familiarik gabeko haurren laguntzaile gisa, bai ondoren, haur-udalekuetako andereño lanetan. Auxilio Ibaseta, Miren Josunereren ahizpa, EABko kidea izan zen, eta andereño horietako bat izan zen, Ingalaterrara joandako haurren laguntzaile gisa ibilia.



Lehen andereñogaien promozioa (1932). Erdian eserita, kapela eskuetan, Auxilio Ibaseta Mendizabal.
(Arg.: Arrien, 1993, 64 or.)

Diogunez, Miren Josune Ibaseta Emakume Abertzale Batzako diruzain izendatu zuten lehen zuzendaritza taldea antolatu zenean, 1922ko maiatzaren 7an; haurdun zegoen, eta handik egun batzuetara, maiatzaren 17an, Lurdes Miren alaba jaio zen. Karguan, beraz, 1923ra arte egon zen, eta, ondoren, 1931n hasi eta 1932ra arte. 1932ko urtarrilean antolatu zen zuzendaritza-taldean diruzain jardun zuen, baina urte bereko abenduko hautaketan, kargua utzi zuten bai Consuelo Gallastegik bai Miren Josunek, Aberri joerakoak biak. Euren lekua hartu zuten Rosario Olazabal Mazak eta Dolores Rousse Gerekizek. EABren zuzendaritzetan egon zirenek ahaleginak egin zituzten emakume oro bizitzaren esparru publikora auzatzeko. EAB mugimendu feministak euskal emakume nazionalistak ahaldu zituen, eta eragin handia izan zuen ondorengo belaunaldietako emakumeengan eta abertzaletasunean.

Miren Josune Ibaseta, Euzko Ikaskuntzako kide eta EABko militante izateaz batera, irakasleen jarduera profesionala babesteko ELA/SOV euskal sindikatuaren menpean sortu zen *Euzko Irakasle Bazkuna*ko kide izan zen hasiera-hasieratik. Emakumeak etxetik kanpo lan egitea ez zen oso arrunta, are gutxiago sindikatuta egotea, gizonetzkoekin batera. Salbuespen gisa onartzen ziren gehiengo emakumezkoa zuten gremioen kasuak. Horregatik, ELA/SOVk 1931ko apirilean sortu zuen *Euzko Irakasle Bazkuna*. Elkartek Bilboko Posta kaleko 17an, 3. pisuan zuen egoitza, sindikatuaren lokalean. Afiliatu kopurua 150 maisu-maistra ingurukoa zen, auzo-eskoletako, udal- zein estatu-eskoletako irakaslez osatua. Goi-karguetan gizonetzkoak egon arren, Bilboko EABko emakumeak ere zuzendari aritu ziren (Ugalde, 1993, 444 or.). Adibidez: 1932 eta 1933 urteetan, M^a Angeles Endeiza, M^a Angeles Iturrate eta Purificación Mandiola (kontablea, batzordekidea eta diruzaina, hurrenez hurren); 1933an, Sorne Unzueta (presidentordea), eta Adela Apraiz (batzordekidea).

6.1.7. Gudaren ondorioz depuratua

Miren Josune Ibaseta Mujika Eskolako zuzendari aritu zen 1936ko gerra zibilak eztanda egin arte. Udalaren 1937ko uztailaren 9ko erabaki baten bidez, herriko Udal Magisteritzako zenbait funtzionariori zegozkien eskalafoia kendu eta behin betiko baja eman zien, haien aurka irekitako garbiketa politiko eta sozial-leko espedienteagatik, eta berriz onartzeko eskaria ez egiteagatik. Guztira 18 irakasle (11 maistra eta 7 maisu) izan ziren. Maistra depuratuak honako hauek izan ziren: Baltasara Casiano Mayor, Regina Astorga Galindez, M^a Eugenia Arrue Orcaiztegui, Pilar Melendo Melendo, Ana Ojinaga Madariaga, M^a Luz San Cristobal Orbe, Paulina Ramos Abarrategi, Maria Axpe Lazcano, Eulogia Badiola Bilbao, M^a Jesus Ibaseta Mendizabal eta Juana Marin Mendiguren (AMB-BUA 413616). Udalaren 1937ko urriaren 27ko erabaki baten bitartez, maisu eta maistra batzuk berriz hartzea onartu zen, baina enplegua eta soldata aldi baterako

etenda; beste batzuk kargugabetzea ere onartu zen, edo erretiroa emanda etxera agintzea (AMB-BUA 414276).

Garbiketa aginduak Miren Josune Ibaseta eskolako udal-eskalafoitik baztertu zuen eskubide guztiak galaraziz. Hala eta guztiz, 1946an, Mujika udal-eskolako zuzendari kargura bueltatzea lortu zuen. Bilboko Udalaren 1946ko ekainaren 6ko erabaki batek dakarrenez, Miren Josune Ibaseta Mendizabal herriko udal-eskoletako maistra-zuzendari kargurako berriz onartzea erabaki zen (AMB-BUA 425195). Horretara, uztailaren bukaerarako Gobernazio Ministerioaren ebazpen baten bidez erabaki zen Miren Josune Ibaseta kargura itzultzea, baina garbiketaren ondorioz etenda egon zen denborako soldata jasotzeko eskubiderik gabe (AMB-BUA 425280). Kargura itzultzeko prozesu bera izan zuen Maria Eugenia Arrue Orkaiztegi udal-maistrak, Bilboko Udal Eskoletako zuzendari eta Miren Josuneren laguna izan zenak. Pauline Ramos Abarrategik Mujika udal-eskolako kideak eta EABko zuzendaritzakoak eskabide berdina egin zuen, baina, alarguna izan arren, ez zuen lortu lanpostura itzultzerik; 1949an, bigarrenez eskatu zuen eta oraingoan ere, eskabidea ez zela bidezkoa erabaki zen (AFB-BFA, BILBAO 10^a 0062/040). Bere ibilbide politikoak eta bere senarrarenak, Enrike Orueta Anza kazetari eta politikarirenak ez zuten mesederik egingo, seguru asko.

Miren Josune Ibasetak lanean jarraitu zuen Mujika Eskolako zuzendari karguan, 1954ko amaiera arte, orduantxe hartu baitzuen erretiroa (AB, 1954, 33 or.).


6.2. ERRAZTI-IBASETA SENDIAREN ERAGINA EUSKALGINTZAN

Arestian aurreratu dugunez, 1920ko maiatzaren 25ean, Miren Josune Ibaseta Mendizabal Joseba Errazti Perez de Saratxo (Bilbo, 1890-1964) euskaltzalearekin ezkondu zen. Biak izan ziren Bilboko 'Euzko Gaztedi'ko kideak, baita beraren koinata izango den Karmele Errazti *Etxakin* ere —1922tik 1932ra bitartean EABren Presidenta izan zena— eta haren senarra, Keperin Jemein Lanbarri euskaltzale abertzalea, hartan ere, Joseba Erraztiren lagun mina zena. Karmele, Keperin eta Joseba batera ibili ziren euskara ikasten Ebaristo Bustinza *Kirikiñore*-kin, Bizkaiko Aldundiak Bilboko Institutuan ezarri zuen Euskara katedrako klaseetan. Horiez gainera, Ebaristo Bustinzaren ikasle izan ziren Joseba Altuna Aldasoro itzultzaile ospetsua, beraren emaztea izango zen Ines Okamika, Sorne Unzueta idazlea, Paulina Ramos, eta Alike Aretxabaleta maistrak; baita Enrike Orueta Anza, Keperin Jemein eta Eli Gallastegi politikariak ere, eta beste bilbotar euskaltzale asko. Euzko Gaztediko gazte abertzaleak oso kontzientziatuta zeuden euskararen erabileraz. Euskaraz jarduten zuten euren artean eta ingurukoek euskaraz egin zezaten ahalegin handia egiten zuten. Diogunaren erakusgarri da euskal orratzaren ekimena, 1914an Euzkadi egunkariaren bidez aditzera eman zutena. Orratza paparrean eramaten zen euskaldunak identifikatzeko eta

euren artean euskaraz berba egiteko. Bestalde, Sabino Aranaren jarraitzaile su-
tsuak ziren eta euskara alorrean garbizaleak, euren *Kirikiño* irakaslearen antzera.


Joseba Erraztik Argentinako Buenos Airesen argitaratzen zen Irrintzi aldiz-
karian idatzi zuen berak zelán ulertzen zuen abertzaletasuna, zer zen abertzale
izatea, eta zer den aberria; baita, naziotasuna dela herrialde bateko arraza, hiz-
kuntza, historia, lege eta ohituren multzoa (Errazti, 1906, 4 or.). Berarentzat, hiz-
kuntza zen nazionalitate baten alderdirik erasotuena, eta horregatik erabaki
zuen euskaraz bizitzea eta euskararen alde lan egitea abertzale gisa.

Joseba Mirena Errazti *Oraitz*, 1910ean, 'Euzkeltzale Bazkuna'ren sortzailea
izan zen Keperin Jemeinekin batera —*Jadarka*, *Amandarro* eta *El Bachiller Belandia*
ezizenez ezagutua—. Elkarte honek, etengabe abiatu zituen euskaren aldeko
ekintzak. 1916an *Euzko-Deya* aldizkaria sortu zuen, euskara hutsean, Sabino Ara-
naren doktrinari zabalkundea emateko. Bazkunak, urte batzuk geroago, 1929-
1936an, *Euzkerea* aldizkaria sortu zuen, eta 20 urtez, hormarako egutegia argitaratu
zuen urtero. Gainera, euskarazko kantutegiak argitaratu zituzten, antzerki ema-
naldiak eskaini, eta haurrentzako euskara lehiaketak antolatu herrietan zehar.
Talde horrek ez zituen jarraitzen Euskaltzaindiaren arauak, zeren euskara garbi-
zaleak baitziren gehienak. Ebaristo Bustinza 1929ko urtarrilaren 31n hil zenean,
Bilboko Euskaltzale Bazkunako euskaltzaleek euren irakasleari omenaldia egin
zioten, Mañarin, 1931n. Bertan emakume eta gizon asko batu ziren, euskal kultu-
ran nahiz politikan ezagunak zirenak, lurralde guztietatik etorritakoak.



1929-01-15eko Euzkerea aldizkariaren 1. zenbakiaren mantxeta.
(Arg.: Sancho El Sabio Fundazioa)

Joseba Errazti abertzale eta euskaltzalea 1915ean euskara irakasle bilakatu zen Bilboko Euzko Gaztediko egoitzan. Euskarazko metodo bat idatzi zuen, *Euzkaltzale Bazkunak* argiratu zuena. Metodo horri esker milaka euskaltzale euskaldundu ziren. Metodo honek argitalpen asko ezagutu zituen, azkena, 1958an.



Euzkaltzale Bazkunak argitaratutako euskara ikasteko metodoa.

Miren Josune eta Joseba senar-emazteek zazpi seme-alaba izan zituzten: Iñaki, Lurdes Miren, Txaber, Mikel A. —urte bat eginda hil zena—, Edurne (Nafarroako Tulebraseko Komentuan klausurako lekaime), Mikel A.G., eta gazteena, Josune, maistra amaren moduan. Errazti-Ibaseta senar-emazteek aberriaren alde lan egin zuten etengabe. Abertzale izatearen pentsaera eta sentimendua azken muturreraino eramanez, eta seme-alabei ere jarrera nahiz jokabide bera transmitituz. Politikoki begiratuta, Joseba eta Miren Josune sabindar abertzale independentistak ziren. Hasieran, Aberri joeran lerrokatu ziren, geroago, Jagi-Jagi mugimenduan. Errazti-Ibaseta sendiak Jagi-Jagi mugimenduari eta jarraitzaileekin harreman estua mantendu zuen gerra aurretik, baina bereziki, gerra ondorengo frankismoaren urte gordinetan.

Ibaseta eta Errazti ezkondu ostetxoan, Errazti sendiak JEZ fundizioa sortu zuen Bilbon, 1924tik 1926ra bitartean. Josebaren aita, Hilario Errazti Atxa negozio-gizona zelaririk, bere diruz sortu zuen JEZ (Jemein, Errazti & Zenitagoya) enpresa sidero-metalurgikoa. Familia-enpresaren gerentzia lanetan Keperin Je-

mein Lanbarri —Karmele Erraztiren senarra—, eta Joseba Mirena Errazti ibili ziren. Biak ere, politikan eta euskalgintzan gazterik ibili zirenetik gora eutsi zioten adiskidetasun minari. Enrike Errazti, Karmeleren nebarik gazteena, ingeniaria zena, enpresan ari zen lanean. Tailerreko arduraduna Zipriano Zenitagoia Lanbarri izan zen, Jemeinen anaia-ordea. Hilariok seme-alaba guztiei eman zien euren partea enpresan. Era horretara, gizonezkoek bazkide izateaz gain, bertan egiten zuten lan; emakumezkoek, ordea, euren partea zeukaten. Karmeleren kasuan, aldiz, ez zen horrela, ez zuen bere parterik-eta, zeren Keperinekin ezkondua baitzegoen enpresa eratu zenerako. Beraz, bazkide nagusiak ziren: Enrike eta Joseba Errazti Perez de Saratxo anaiak, haien koinatua Zeferino Jemein Lanbarri eta Zipriano Zenitagoia Lanbarri, bakoitza %18 inguruko proportzioan. Bazkide diren arren, proportzio askoz txikiagoan Mercedes, Piedad, eta Elisa Errazti Perez de Saratxo ahizpak eta Mercedes Zenitagoia Lanbarri, Ziprianoren arreba, Joakin Isusi Isusirekin ezkondua. Enpresa JEZ izendatuko da, Jemein-Errazti-Zenitagoia gizonezko bazkideen abizenen lehen letraz osatua. Hasieran, fundizioa edo burdin eta metal galdategien enpresa gisa sortu zen, baita eraikuntza metaliko eta mekanikoetarako enpresa gisa ere. Denboraz, trenetarako bide metalikoen eraikuntzan berezituko da.



Miren Josune Ibaseta eta Joseba Errazti Gueñes herriko Saratxo auzoan Errazti sendiarekin:
1. Joseba Mirena Errazti; 3. Berane (Piedad) Errazti; 6. Eskarne (Mercedes) Errazti; 7. Karmele Errazti;
8. Miren Josune Ibaseta; 10. Bonaventura Perez de Saratxo (ama); 11. Eli (Elisa) Errazti;
12. Hilario Errazti Atxa (aita); 15. Angel Errazti
(Arg.: Txaber Erraztik utzia)

Gerra garaian, JEZ enpresa Euzko Jaurlaritzaren zerbitzura jarri zuten gudarako materiala egiteko. Arrazoi horregatik, Jemein-Errazti bikoteari ondasun guztiak kentzeaz batera, Zeferinori 15 urteko deserriratzeko zigorra jarri zioten. Joseba eta Enrike Errazti bazkideei isunak jarri zizkieten eta Zipriano Zenitagoiari isunik ez zioten ipini, kargu politikorik izan ez zuelako. Andrazko bazkideei ez zitzaizen isunik jarri (BOE, 1940-03-21, 1492 or.).

Frankistek Euskal Herria okupatu zutenean, JEZ enpresa Euzko Jaurlaritzari kendu eta euren esku jarri zuten. JEZ enpresako bazkideek euren familiekin batera erbesterako bidea hartu zuten. Santanderretik abiatuta Cher Departamenduko Graçay herrian kokatu zen Errazti-Ibaseta sendia: gurasoak sei seme-alabekin, eta Josebaren ama bere alabekin: Eskarne, Berane eta Elirekin (Badator, 001-01635, 15 or.). Errazti-Ibaseta sendiak handik Britainia aldera jo zuen, Britainiako Quimperlé herrian kokatzeko, hain zuzen ere, Lezo Urreztietak, Jagi-Jagiko kideak, bere familia babesteko erosia zuen Kerroch jauregian. Jauregi horretan berrogei bat errefuxiatu aterpetu ziren; beste askoren artean, Eli Gallastegiren gurasoak eta berauen alabaren lagunak (Martinez, 2022, 142 or.). Maria Auxiliok, Miren Josuneren ahizpak ere, Britainiara jo zuen 1938ko ekainaren 1ean. Ingalaterratik abiatu zen, Surrey herriko Kingston Hill kaleko “The Grange” egoitzan haur erbesteratuekin maistra zegoen-eta (Arrien, 2014, 247 or.). Auxiliok Pedro Atutxa abadeari idatzitako eskutitzean esaten dio Ingalaterra utzirik Britainiako Finisterre aldeko Plobannalec-Lesconil herriko Kerulut manoir edo jauregitxoan zegoela. Dioenez, paraje itzela zen hura, etxe eta lorategi handiak zituen. Bestalde, bertan zela, errefuxiatuek arbola batzuk bota zituzten fruta-arbolak landatu eta ortua zabaltzeko (Badator, 001-01105, 92-93 or.).



Ezkerrean, Erraztitarren etxea Graçay herrian; eskuman, Finisterreko Kerulut manoir.
(Arg.: Txaber Erraztik utzitakoak)

Errazti-Ibaseta sendia 1938tik 1939ra bitartean bizi zen Britainian. Gero, handik Ustaritzera abiatu ziren. 1940ko udaberrian oraindik Iparraldean lekuturik egon arren, Alemaniaren okupazioa gogortuz zihoalarik, 1941ean sendia Bilbora itzuli zen. Joseba Erraztiren ama eta ahizpak, aldiz, 1940an bueltatu ziren


etxera. Karmele Errazti eta senarra, Pauera abiatu ziren eta Karmele bertan hil zen 1954an. Senarra bakarrik geratzean, Errazti-Ibaseta sendiak Olaganen hartu zuen, eta bertan zendu zen, 1965ean.

6.2.1. Familia-enpresa tokiz aldatzen da Bilbotik Laudiora (1950)

Edozelan ere frankistek JEZ enpresa konfiskatzeko agindua eman zutenean, fabrika itxi ez zuten arren, bazkideei askotariko isunak jarri zizkieten. Keperin Jemeini eta Karmele Errazti emazteari ondasun guztiak kendu zizkieten; Joseba eta Enrike Errazti, berriz, isunen bidez zigortu zituzten: 50.000 pezetakoa Josebari eta 25.000koa Enrikeri; gainontzeko bazkideak, zama politikorik ez zutenez, isunik gabe geratu ziren. Sententzia BOEn atera zen eta 20 egunen barruan ordaintzeko agindua eman zen (BOE, 1940-03-21, 1493 or.).

Edozelan ere, Errazti-Ibaseta sendiak erbestetik itzultzeko nahiz enpresaren agintea hartzeko, isuna kitatu behar zuen, halabeharrez. Dirua Kubako Angel Errazti anaia nagusiak utzi zion, zeren Diego Perez de Saratxo Barañano osabak bertan zuen Cía. Fosforera Cubana oinordetzan jaso baitzuen. Madrilgo paperen trami-teak errazteko, aldiz, Elisa de la Casa Rojas (Madril 1888-04-17/ 1962-07-01) irakaslearen aparteko laguntza jaso zuen. Elisa de la Casa Rojas, Bilboko Eskola Normaleko irakaslea, Miren Josuneren lagun mina zen, ezen, familia biak Bilboko atari berean bizi ziren. Elisa de la Casa Rojas frankismoko urterik gogorrenetan Bizkaiko Maistren Eskolako zuzendaria izan zen, 1939-1958 urteetan, eta Miren Josu-neri Madrilgo gestioetan zenbait ate ireki zizkion isunaren ordainketa gauzatzeko. Erraztitarrek, bestalde, Elisa etxekotzat zuten. Etxekook adierazi digutenez, “amaxi” deitzen zioten, eta beraren logela gordeta zuten Galmakako Olaganen.

Elisa de la Casa irakaslearen ibilbide profesionala Amenabarrengandik (1991, 1.T, 341 or.) jaso dugu. Berak dakarrenez, ziurrenik, Madrilgo Maisu-maistren Eskola Normal Zentralean ikasi ostean, 1907tik 1909ra bitartean, bere jaioterriko hainbat eskola publikotan lan egiten zuen praktiketako doako laguntzaile gisa. 1911n, Irakasleen Goi Eskolan sartzea lortu zuen, “Labores” atalean. 1915eko martxoaren 20ko Errege Aginduaren bidez, Bizkaiko Eskola Normaleko “Labore eta Etxeko Ekonomiako” irakasle numerario izendatu zuten. Labores espezialitatean joskintza eta bordatu zuriaren klaseak ematen zituen, bere amaren lanbideari, joskintzari, jarraipena emanez. Kargu horretan Carmen Gómez Moreno izan zuen laguntzaile; ordezkapenen bat ere egin zuen, Luisa Abad irakaslearena bereziki, bai klaseetan, baita idazkaritza lanetan ere. Bilboko Normalera heldu zen 1916ko urriaren 30eko Errege Aginduaren bidez, eta ordutik aurrera Klaustroak proposatuta Liburutegiko arduraduna izen zen. Liburutegiko lana ez zuenez gogoko, dimisioa behin baino gehiagotan aurkeztu zuen. Azkenik, erantzunkizun horri utzi egin zion 1929an. Zuzendari karguan 1939tik 1958ra arte egon zen, 70 urterekin nahitaezko erretiroa hartu arte (BOE, 1958-06-17, 5645 or.).



Elisa de la Casak Enrike Erraztiri idatzitako eskutitza.
(Arg.: Txaber Erraztik utzitakoa)

6.2.2. Arabako lehen ikastola Laudioko Galmaka auzoan

Frankismoaren hasierako urteetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako egoera itogarria zen abertzaleentzat, Errazti-Ibaseta sendiarentzat ere bai. Horregatik, enpresa Bizkaitik Arabara, egoera lasaiagora, eramatea erabaki zuen. Talleres y Fundiciones JEZ deituko da, eta fundizio lanaz gain trenbideetako errailak egiten ziren lantegian. Horregatik, lantegi berria Laudioko Galmaka auzoan kokatuko da, Bilbo-Orduña trenbidearen artean hurbil, materialen garraioa errazteko.

Galmakan, lantegiaren inguruan, herri txikia, ikastola ere bazuena, antolatu zuen familia honek. Bestalde, 10 etxebizitza eraiki zituen lantegiko langileentzat, baserri edo neo-euskal itxurakoak, Eusebio Arraiza arkitekto nafarrak diseinatuak. 1954an, lurzoru berean Errazti-Ibaseta sendiak Olagane etxaldea eraiki zuen, frontoia eta Mikel Goi-aingeruari eskainitako baseliza. Geroago, 1960-61 ikasturtean ikastola eraiki zen, auzoko haurrak euskaraz eta euskal munduan bizi zitezten. Familia honek euskal gune edo herri euskalduna sortu nahi zuen Galmakan, enpresa, bizimodua eta atsedena euskal munduan uztartuz. Baselizako apaindurarako, Jose Sarriegi Aldanondo ordiziar margolari ospetsuari enkargatu zitzaizkion horma-pinturak. Joseba Erraztik berak ikertu zuen Euskal Herriko santu eta santak zeintzuk ziren, eta 39 santuren inguruko lan sakona egin ondoren, Sarriegiri eskatu zitzaion elizako horma-pinturetan margotzeko. Errazti-Ibaseta sendiak pentsatu zuen, hasiera batean, baselizaren ardurarako nahiz ikastolako klaseetarako abade bat kontratatzea; baina azkenean, Agurtzane Alberdi Legarra maistra kontratatu zuen klaseak emateko. “Dena den, hainbat urtetan bizi izan zen hemen, institutuko irakasle eta abade zen Eustaquio Eizmendi” (Arrien, 1993, 146. or), Olaganen, etxekotzat hartuta.



Galmakako basilizan Sarriegiren horma-pinturak.
(Arg.: Espinosa, 2021)

Euskaltzale asko biltzen ziren Errazti-Ibaseta sendiaren etxean. Batzuek, abertzale ezagunek (idazle, politikari, artistek...), politikaz eta kulturaz berba egiteko “kabia” zuten bertan. Beste batzuek, euskaraz burutzen ziren ekintza kulturaletan parte hartzen zuten. Igandero ospatzen zen basilizan meza-santua, eta bertako familiek zein hara hurbiltzen zirenek aukera zuten euskaraz meza entzuteko nahiz euskaraz abesteko. Frontoian pilota partidua eta txapelketak jokatzeko ziren. Ikastolaren aurrean zegoen ataria erabili ohi zen euskal jaialdiak, Agate Deuna, zine-foruma eta koruak entzuteko. Aipatzea merezi du nola kantagintza berriko saioak eliza barruan egiten ziren, bertan parte hartuz Lourdes Iriondok, Maite Idirinek, Mikel Laboak eta Benito Lertxundik (IZ, 2014, 23 or.). Klandestinitateko urteetan Galmaka auzoan antolatzen zen guztia euskal susperraldi kulturalerako arnas gune bilakatu zen.

Edozelan ere, aipagarria da Laudioko Galmaka auzoan eraiki zela Arabako gerra ondorengo lehen ikastola, ikastetxe pribatu gisa, Miren Josune Ibaseta Mendizabalen maistra titulua eta bere esperientzia profesionala erabiliz. Basilizaren ondoan, gela erantsi bat 47,50 metro karratukoa, ondoan komuna zuena, erreserbatu zen ikastola izateko. Garai hartan euskara galarazia zenez eta ikastola basilizaren ondoan zegoenez, bertan katekesia irakasten zela esaten zen. Hiruzpalau urte pasatutakoan, “Escuela Particular de Galmaka” izenarekin legezkatu zen, klaseak “hizkuntza ofizialean” ematen zirela esanez. Hamabost-hogei bat ikaslez osatutako ikasgela bakarra zegoen, andereño bakarrak artatzen zuena. Errazti-Ibaseta sendiak ordaintzen zituen andereñoaren soldata, ikasmateriala, hornidura eta gainontzeko gastu guztiak. Ez zegoen ordaindu beharrik bertan ikastea.



Ezkerretik hasita basiliza, abadetxea eta ikastola.
(Arg.: Txaber Erraztik utzitakoa)



Galmakako ikastola.
(Arg.: Txaber Erraztik utzitakoa)

Galmaka ikastolan 4 eta 9 urte bitarteko auzoko haurrak ibili ziren. Txaber, Miren Josuneren hirugarren semea Olagane etxaldera ezkondu zen Miren Edurne Olartekoetxea Aranagarekin. Bikote honen lehen hiru seme-alaba nagusiak —Urtsa, 7 urtekoa, Txaber Jatsu, 5 urtekoa eta Idoie, 4 urtekoa— zeuden ikastolako lehen taldean. Ikastolan kontratatu zen lehen andereñoa Agurtzane Alberdi Legarra izan zen, Bilbon bizi zena, baina jaiotzez Gorozikakoa. Agurtzane Alberdi, Maria Angeles Garairekin lanean hasi zen 1957an, Bilboko San

Nikolas Elizako katekesiko ikastolan. Bilboko ikastola horretako hurrekin aritu zen 1959ra arte, baina San Nikolaseko egoitza txikia zela eta Bilboko Iralabarriko Frantziskotarren komentuan klaseak ematen hasi ziren. Berarekin batera, Estibaliz López de Gereño Arrarte bilbotarra, Seberina Mardaraz Ibarra Mungikoa, eta Karmen Gangoiti Etxebarria, Gamiz-Fikakoa aritu ziren. Azken biok 1959-60 ikasturteko urrian hasi ziren irakasten Iralabarriko komentuan.




Galmakako ikastolako ikasleak Agurtzane Alberdi Legarra andereñoarekin.
(Arg.: Arrien, 1993, 235 or.)

Agurtzane Alberdi Legarrak maistra tituluaz gain Batxiler Goi titulua zuenez, 1966-67 ikasturtean, Bilboko Elkano kaleko ikastolan kontratatu zuten. Beraren ordez, Nekane Zaballa Olabarria, Arakaldoko andereñoa kontratatu zen Galmakan, eta Nekane lanpostua utzi zuenean, haren ordez Begoña Insunza Montejo andereñoa hasi zen. Argitu beharra dago, 1972tik aurrera, Laudioko ikastola sortu zenean, ikastola honek ikasleak sakabanaturik zituen Laudioko toki desberdinetan eta ikastalde bat, Galmaka ikastolan kokatua egon zela Mila Etxezarraga andereñoaren ardura pean.

Galmakan klaseak asteko egun guztietan egoten ziren, larunbatean barne, beti ere, asteazken arratsaldea libre delarik. Irakurtzen, idazten eta oinarriko eragiketak lantzen irakasten zitzaizkien, otoiz eta euskal kantuekin batera. Horretarako, gerra aurreko euskarazko liburuez baliatzen ziren, baita Julene Azpeitiak 1961ean idatzi zuen kartilaz ere. *Umien adizkidia, I. Idaztija*, 30 orrialdekoa, Bilboko Ordorika moldiztegian argitaratua. Errazti-Ibaseta senar-emazteek finantziatu zuten liburua. Azalean agertzen den etxea Olagane da, familia horrek Laudioko Galmaka auzoan eraiki zuena eta agertzen diren umeak Urtsa —jesa-

rrita—, Txaber Jatsu eta Idoie Errazti Olartekoetxea dira, Olaganen bizi zirenak, Miren Josune Ibasetaren iloba nagusiak.



Julene Azpeitiak, 1961ean idatzitako kartila.



Julene Azpeitiak, 1961ean idatzitako kartilaren barruko orrialdeak.

Hurrek irakurtzen ikasteko materiala behar zutenez, liburu honi kartila itxura eman zitzaion. Kolore biziko irudiak nabarmen daitezke eta, ildo didaktiko askotarikoei jarraitu arren, edukiaren aldetik euskal ohituretan oinarritzen zen. Edukien ikuspuntuetatik begiratuta gerra aurreko euskal nazionalismoaren balioak goraipatzen dira. Bestalde, euskaldun-fededun pentsamoldean sozializatzeko joera agertzen den arren, aurreko hamarkadetan baino maila apalagoan agertzen dira erreferentzia horiek. Bildumaren hurrengo idazkiak ez ziren argitaratu. Hau silabategiau, ikastoletako ikasleek, ordukoek eta gerokoek, asko erabili zuten.

Liburuxkaren atzeko aldean enbor baten irudia agertzen da, gorritz margoturik. Izatez, Errazti-Ibaseta sendiak finantzatzen zuen EMBOR bildumaren ingurrazti guztietan grafismo bera azaltzen da.




EMBOR argitalpenen grafismoa.

Hogei urte beranduago, 1981ean, guraso biak hil ondoren, Txaber Errazti Ibasetak, semeetariko hirugarrenak, Olaganen bizi eta ikastolaren ardura hartu zuenak, berrargitaratu zuen Julene Azpeitiaren kartila. Kartila honek hirugarren argitaraldia izan zuen 2012an, fakzimil gisa argitaratu baitzuen Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak.


Txaber Errazti Ibasetak 1981ean ere Julene Azpeitiak 1933an idatzitako *Irakurri Matte. Irakurgayak. Lenengo Inguraztija* liburuaren fakzimila argitaratu zuen, baina azal kolore grisaxkaz. Kontrazalean, oraingoan, enborraren anagramaren gainean ENBOR (n-ez) idatzita dator. Liburuan, 40 orrialdetan, 14 gai jorratuz, haurraren hezkuntza indibidual, sozial eta nazionalaren gaia lantzen da. Irakurgaiak zailtasun-maila gorenean eginak zetozen, eta marrazki handiekin hornituak. Azkeneko orrietan aipatzen da marrazkiak Aranoa'tar J.M marrazkilariak eginak direla, Bilboko Verdes-Atxirikatarren Irarkolan argitaratuak, hain zuzen ere. Gasteizen, 1981ean, egin zen lehen Araban euskaraz jaialdian, liburuaren milaka ale zabaldu ziren, dohain.

Galmakako ikastolak legeztatze prozesu korapilatsua izan zuen. 1960-61 ikasturtean martxan jarri arren, behin-behineko baimena 1969ko urtarrilaren 31n lortu zuen “Colegio Galmaka” izenaz (BOE 19 oct 1970, 16994 or.). Urte t’erdi beranduago, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe ez ofizialen behin-behineko zen baimena, behin betiko bilakatu zen, 1970eko irailaren 21eko Ordenaren bidez.



1970eko irailaren 21eko Ordenaren txatla.
(Arg.: BOE 19 oct 1970, 16994 or.)

1970-09-21eko Ordenaren errekorrean ikus daitekeenez, ikastetxearen jabearen izenean errakuntza dago, ze “doña Maria Jesus Ibaseta Mendizabal” jarri ordez, “don Jesus Ibaseta Mendizabal” idatzi zen. Gainontzeko dokumentazio ofizialean ez dugu horrelako akatsik aurkitu.



1970eko irailaren 21eko Ordenaren errekorrea.
(Arg.: BOE 19 oct 1970, 16994 or.)

Galmakako ikastolaren egoera 1972tik aurrera aldatuz joan zen, Laudioko ikastola sortzeaz batera. Orduantxe, Galmakakora joaten ziren umeen kopurua txikiagoa zen, eta handik lasterrera, Miren Josune Ibaseta bera hil zen, 1976ko abenduaren 31n. Orduan, Errazti familiak ikastolaren etorkizunaz kezka handia zuen, eta 1978an Laudio ikastola Gurasoen Kooperatiba gisa legeztatu zenean Galmakakoa ixtea erabaki zen.

Educación correspondientes:

Resultando que dichas Delegaciones han elevado propuesta sobre las referidas peticiones, acompañando el preceptivo informe de la Inspección Técnica en sentido favorable;

Resultando que los Centros objeto de los expedientes no han recibido auxilio o subvención ninguna por parte del Estado;

Visto el Decreto 1855/1974, de 7 de junio («Boletín Oficial del Estado» de 10 de julio), que regula las autorizaciones de ceses de los Centros no estatales;

Considerando que los alumnos de los Centros, cuya clausura se solicita, han encontrado adecuada escolarización, con lo que la continuidad de la enseñanza no se perjudica,

Este Ministerio ha resuelto autorizar, de conformidad con los informes emitidos, el cese de actividades de los Centros no estatales que se relacionan en el anexo de la presente Orden, y que concluyen al finalizar el curso escolar 1978/79, quedando nulas y sin ningún efecto las Ordenes ministeriales que autorizaron el funcionamiento legal de dichos Centros; siendo necesario para el caso de que se instase la reapertura de los mismos, dar cumplimiento a los preceptos de la Ley General de Educación y disposiciones complementarias en materia de autorización de Centros.

Lo que comunico a V. I. para su conocimiento y efectos.

Madrid, 7 de junio de 1979.—P. D., el Subsecretario, Juan Manuel Ruigómez Iza.

Ilmo. Sr. Director general de Educación Básica.

ANEXO

Provincia de Alava

Número del expediente: 10.811.

Municipio: Llodio. Localidad: Llodio. Denominación: «Escuela Particular de Galmaka». Domicilio: Barrio de Galmaka. Titular: María Jesús Ibaseta Mendizábal. Nivel que imparte: Educación General Básica.—Autorización de cese de actividades del Centro en el nivel de Educación General Básica.

BOE, 1979ko azaroaren 17koa.

Txaber Errazti Ibasetak jardun zuen Galmakako ikastola ixteko gestioak egiten. Oinarrizko eta Eskolaurreko Hezkuntza Orokorreko kanpoko ikastetxeen jarduerak eteteari buruzko Hezkuntza Ministerioko 1979ko ekainaren 7ko 27512 Ordenak zekarrenez, Galmakako ikastolari amaiera ofiziala 1979ko azaroaren 17ko datatz eman zitzaion, ia 20 urtean Errazti-Ibaseta sendiaren ardura pean egon ondoren.

6.2.3. Errazti-Ibaseta sendiaren mezenasgoa: EMBOR ingurraztiak (1960-1966)

Frankismo garai osoan, klandestinitaterik gordinen ere, Miren Josune eta Joseba Mirena, alde egindako kideei nahiz espetxeratupei lantegian beharra eman eta euskal kultura bultzatzen aritu ziren, eten barik. Euskal kulturaren bultzatzaile itzelak izan ziren, euskara ikasteko metodoak eta argitalpenak diruz lagundurik. Familiak finantzatuta, arestian aipatu dugun EMBOR (EM Egileor Manu, eta BOR «Bordazale» idazleen lehen letrak), argitalpenean idazlan interesgarriak argitaratu ziren. Aldizkariaren ideologo nagusiak bi ziren: Manu Egileor Orueta *Ikasle* eta Trifon Etxebarria Ibarra *Etarte* eta *Errizale* ezizenekoa. Biak

ziren eskarmentu handiko politikari abertzaleak eta intelektualki oso jantziak. Errazti-Ibaseta sendiak argitalpenen gastuak ordaintzen zituen, eta Joseba Erraztik, noiz edo noiz idatzi ere egin zuen bertan. E.´tar J., E.J.M., edo, E., letraz sinatuz. Ez dugu ikusi, aldiz, Miren Josune Ibasetak sinaturiko lanik, ez hemen, ezta beste inon ere.



EMBOR aldizkaria (1961-1966).

EMBOR aldizkariak euskal gai kultural zein politikoak jorratzen zituen euskaraz eta gaztelaniaz. Hori dela eta, bizitza laburreko ingurraztiak izan ziren, edukiengatik debekatu zituzten-eta. Aldizkaria, aldiz, ingurrazti modura argitaratzen zen, aldizkakotasun finkorik gabe. Ingurraztiak Bilbon inprimatzen ziren arren, ENBOR erregistroa Gasteizen egina zen, Araban argitaratzeko baimen politikoak malguagoak zirelako. Errazti-Ibasetak finantzatu zituzten EMBOR zenbakiak honako hauek izan ziren:

EMBOR aldizkaria: argitalpen urtea, izenburua, orri kopurua eta idazleak

Zenbakia	Urtea	Izenburua	Orria	Egilea
Embor 1	1960	El vocabulario euzkérico	32	<i>Ikasle</i> , L' tar I., I., E., Maria Elena Ibarzabal, Un viejo vitoriano, <i>Euzkeltzale</i> , Ramón de Azumendi, Micaela Josefa Portilla, Aldazabal, <i>Urdiola</i> , Juan Jose de Abrisqueta, Aiko, A. G. tar S.
Embor 2	1962	La agricultura en el País Vasco	31	<i>Bordazale</i> , Jesus M ^a de Sasia (O.S.B), E., O., <i>Urtzago</i> , <i>Abeletxe</i> .
Embor 3	1962	En defensa de la lengua	36	<i>Gen</i> , <i>Ikasle</i> , <i>Orixce</i>
Embor 4	1962	Sobre orígenes del Pueblo Vasco	32	Juan de Zumelzu, <i>Etarte</i> , <i>Urtzago</i> , Juan Jose de Abrisqueta, <i>Amilgain</i> , U., I.,
Embor 5	1963	El Euzkera. ¿Qué es y qué ha sido?	32	Jose Zabala-Arana, E., <i>Etarte</i> .
Embor 6-7	1964	Pliegos euzkeralógicos	52	<i>Jelalde</i> , I., <i>Etarte</i> , Eguroa, Omabeitia tar Karmel.
Embor 8-9	1964	Pacem in Terris y nosotros, vascos	52	<i>Errizale</i> , Juan de Gorostiaga abadea, <i>Baskiña</i> , Etxeandia, Ramón de Azumendi, Pascual de Ibarra, Nestor de Goicoechea.
Embor 10-11	1966	Pater noster. Geure Aita Goikua	71	<i>Jelalde</i> , <i>Urdiola</i> , <i>Abeletxe</i> , <i>Erizale</i>

EMBOR bildumako ingurraztiak 1961etik 1966ra argiratu ziren. Nahiz eta bilduma hamaika zenbakiz osaturik zegoen, guztira zortzi ingurrazti argitaratu ziren. Gehienak 32 orrikoak diren arren, azken hirurak bikoitzak ziren. Argitalpen tokiari dagokionean, zenbaki gehienak Bilbon ekoiztu ziren, Bilboko Buenos Aires kaleko 13an zen Gráficas Ellakurian. Ugazaba, Tomás Ellakuria Irigoien bilbotar inprimatzaile abertzalea zen eta Errazti-Ibaseta sendiaren lagun mina. EMBORren lehen zenbakia, Araban argitaratu zen, hartan ere, Laudion.

EMBOR aldizkariak legezkotasunaren murrizketen menpe eta zentsuraren menpe hainbat itxiera-ohartarazpen, isun eta gaitzespen jasan zituen Manuel Fragaren partetik, orduan Informazio eta Turismo Ministerioko probintzia-ordezkaria zenean. Azkenean, 1966an itxi zen, Gobernuako aginte batek hala erabakita.

Aldizkarian idazten zutenak euskaltzale eta abertzaleak izaten ziren. Euskal gaiez idazten zuten, hala gaztelaniaz nola euskaraz. Gehienetan, zenbaki bakoi-

tzari gai nagusi batek ematen zion izenburua; aditu batek idazten zuen gaia sakontasunez; gainontzeko idazleek euskal gaiez idazten zuten, hala orokorrean nola ohar kritikoen bitartez, edo, osterantzean, liburuak gomendatzeari-eta eskaintzen zieten testua. Kasu batzuetan ezizenaz sinatzen ziren lanak. Idazle hauek ospea eman zioten aldizkariari: “Con todos ellos, se conseguirá poner en la calle una excelente publicación de apreciable nivel cultural e interesante recorrido político, que sobresalía en el tópicó desierto intelectual de la época” (Lorenzo Espinosa eta Renobales, 1998, 64 or.). Idazle gizonezkoen artean, emakume bik idatzi zuten, biak ere Gasteizetik. Bata, Micaela Portilla Vitoria, orduan Arabako Maistren Eskolako zuzendaria, antropologa eta historiagilea; bestea, M^a Elena Ibarzabal López de Abetxuko, 1959an Madrilén pedagogia ikasketak bukatu zituen. Azken honek Bergarako Seminarioko irakaskuntzaz idatzi zuen aldizkarirako. Bestalde, euskal kulturaren eta abertzaletasunean ibilitako idazle eta politikari ezagunak ere idazten zuten. Hor dira, Manuel Egileor Orueta *Ikasle* eta Trifon Etxebarria *Etarte*, *Errizale* politikariak; Juan Egiraun Orueta *Bordazale* peritu agronomo eta ikerlari ospetsua; Juan Jose Abrisketa Irakulis ingeniaria —'Patxuko' deitzen ziotena—; Jesus M.^a Sasia Sopena (O.M.B) euskal toponimian aditua; Lino Akesolo *GEU* euskal idazle, ikerlari eta hiztegegile handia; Joseba Altuna *Amilgain* idazle eta itzultzailea; Nikolas Ormaetxea *Orixé*, idazle eta pentsalaria; Joseba Zabala-Arana nabarniztar euskal eskola liburuen egilea; Manu Ziarsolo *Abeletxe* euskal kazetaria; Nestor Goikoetxea *Urdiola* kazetaria, euskaraz eta gaztelaniaz idazten zuena; Juan Gorostiaga Bilbao G, Deustun jaioa eta Angel Urrutia Zabalintxaurreta *Urtzago* nabarniztarra, biak ere, euskara sabindarra erabiltzearen aldeko idazleak; Imanol Arrandiaga Gorozika *Omabeitia* *tar Karmel* idazlea —hila zegoen ordurako— euskara ultrasabindarra erabiltzen zuena, eta abar.

Garaiko agintarien isunak saihesteko izengoitiak erabiltzen ziren, sarri. Hala ere, ezizenak erabili arren, euskal gaiei buruz idazten zutenak gutxi ziren, are gutxiago euskaraz. Aldizkariaren irakurleek bazekiten nork zer idazten zuen. Adibiderako, Nestor Goikoetxea Araluze, *Urdiola* izengoitiaz zein Nestor de Goicochea izenez izenpetzen zuena EMBORen. Hala ere, bilbotar idazle honek beste zenbait izengoiti erabili zituen Arabako eta Bizkaiko geografiaz, historiaz, folkloreak eta toponimiaz Euzkerea, Pyrenaica eta Vida Vasca aldizkarietan. Haren semeak, Nestor Goikoetxea Gandiagak, bere aitak erabili zituen 45 izengoiti aditzea lortu zuen (Goikoetxea, 1984, 80 or.).


EMBOR aldizkaria irakurtzen zuten abertzaleek ez zuten arazorik ulertzeko eta interpretatzeko erdi esanda idazten edo aditzera ematen zena. Idazkeraren anbiguotasunaz baliatuz aldarrikapen nazionalaren diskurtsoari eusten zitzaion aldizkarian. Juan XXIII eta Pablo VI.ren entziklika progresistak erabiliz euskal kultura eta historia goraiatzaren zuten, Euskal Herriaren eskubideak aldarrikatuz batera. Ekimen horretan trebetasun handia erakutsi zuen *Etartek* (Lorenzo Espinosa eta Renobales, 1998, 64 or.). Politikari ezkertiar abertzale honek kultura erlijioso handia zuen eta formazio politiko, ekonomiko, sozial eta kristau oso sakona.

EMBOR argitalpen-zigilu pean eta erlijioaren gaia aterpetzat hartuta, Errazti-Ibaseta sendiak euskaraz idatzitako lan gehiago finantziatu zituen. Ulertu behar da, garai hartan, euskaraz argitaratzen zena oso zigortua zegoela, eta zentzura frankistaren mugak igarotzeko erlijioari lotutako argitalpenek bide errazagoa zutela. 1962an “*Jaupatarako abestijaik*” (bizkaieraz eta gipuzkeraz idatzia) izeneko 24 orriko liburuxka finantziatu zuen. Gabirel Lertxundi (O.S.B.) abade beneditarrak eresalduta partiturak eta abesti erlijiosoeekin osatu zen, mezatako atalak eta kantak euskaraz jarriak. Joseba Erraztik berak Belloceko kantutegitik egokitu zituen kantak. Bilboko Ordorica irarkolan argitaratu zen, Muelle de la Merced 3an zuen irarkolan.



Jaupatarako abestijaik (1962).
(Arg.: Txaber Erraztik utzitakoa)

Errazti-Ibaseta sendia kristau eta eliztar jainkozalea zen. Beraren lepotik ordaindu zituen euskaraz idatziriko liburu erlijiosoen argitaraldiak, bereziki Imanol Arrandiaga Gorozika (C.M.F.) elantxobetar idazleak idatzi zituen bi. Lehen lana, “*Umiak autortuten eta Jaunartuten*”, 35 orriko liburuxka, 1931n Bilboko Joseba Ausin inprimatzailearen irarkolan argitaratua. Bigarren lana, berriz, 1959an argitaratu zen —Arrandiaga hil eta hamabi urtera—, Zarauzko Itxaropenan “*Goizparraik eta Beldubaik egiña*” liburu mardula, 558 orrialdekoa, euskara oso garbizalean idatzia. Euskara garbizale horren atzean ez da erraz identifikatzen izenburuan “*Evangelios y Hechos de los Apóstoles*” liburuaren itzulpena denik. Liburuaren hasieran EMBOR zigiluaren grafismoa agertzen da, eta argitaratzailearen hitzaurrean, Imanol Arrandiaga Gorozika elantxobetarraren biografiako idazlanak goraipatzen dira.



Goizparraik eta Beldubaik egiña liburua (1959).

Miren Josune Ibasetak eta Joseba Erraztik argitaratzaile gisa lan handia egin zuten, baina Joseba Erraztik berak bakarrik ere, euskararen alde jo zuen euskaldun bihurtu zenetik. Ordutik aurrera euskara maitatu eta goratu egin zuen, beraren arreba Errazti'tar Karmelek —euskaldun berria beraren moduan— gores-ten zuen eran, zeren euren naziogintzako pentsamoldean ezinbestekotzat jotzen baitzuten:

Jayotzetik euzkeldun diranak eztakije zelako ogasun ederra dauken Euzke-rea jakitiaz; baña neronek bai-dakit ogasun ori lortuteko zelako alegiñak egin biar-ixan dodazan: oregatik matiago dot nik Euzkerea, amaren magalian ikasi eben batzuk baño geyago. Zerorek be, iñoz ikasten ba-dozube, atsekabez lortu-ten diran gauzak mate ixaten diran garaz, mate-ixango dozube.

Ostera, baña, ez uste ixan Euzkerea ikasi-eziña dala, askok esaten daben lez. Euzkerea ikasteko abertzaletasuna bakarrik biar-da.


Eta orixe da neuk zuberi eskatzen dautzubedana: Euzkerea ikasteko biar dan beste abertzaletasuna euki dagixubela. Ba-daukozube, ziñez ikasiko dozube. Ezpa-daukozube, eztozube ikasiko. (Aberri, 1922-10-21,1).

Joseba Errazti hil zenean, gomuta gisa EMBOR aldizkariko 8-9 zenbakian “Izpar baltza. Errazti'tar Joseba Mirena (G.B.)” izeneko artikuluan aipatzen dira Josebak euskararen alde eginikoak, zuzenean zein zeharka. Artikuluak ez du si-nadurarik, baina idatzi zuenak ondo zekizkien Josebak euskalgintzan egin zitue-nak. Bertan esaten da, Josebak berak idatzi eta ordaindu zituela “*Método gradual*

para aprender el euskera” hiru ikasmailetakako liburuak, eta liburuxka bana liburuak osatzen zituzten ariketa-soluzioetakoak (EMBOR, 1964, 26 or.). Euskal kanta-gintzaren zale handia izanik, berak prestatu eta egokitu zituen 1915ean, 1916an eta 1931n *Euzkel-Abestijak (I., II., eta III. Ingurraztiak)*, hauek ere, Bilboko Euzkeltzale-Bazkunak argitaratuak. Gomuta berean aipatzen da hiru lan zituela eskuartean hil orduan: hiztegi bat oraindik amaitu gabea, “kistar ikastija” argitaratzeko prest, eta euskal aditzaz idazti bat. Joseba, bat-batean gaixotu eta hurrengo urtean, 1964ko maiatzaren 5ean, zendu zen Bilbon.

6.2.4. Azken urteak

Miren Josune, berriz, luzaroan bizi izan zen Galmakako Olaganen, bertan garatu baitzuen bizimodua erretiroa hartu zuenez gero. Beraren ilobak, Txaberrek, kontatzen duenez, dinamismo handiko emakumea zen. Eurei frantses klaseak ematen zizkien, baita sukaldaritza nahiz joskintza klaseak, kankak, eta abar ere, hala neskei nola mutileri. Txaber ilobak dioenez familiako gizonezkoak sukaldari nahiko onak atera ziren, berak uste duenez, amamaren klase horiei esker. Amama hori nolakoa zen gogoratzerakoan, adierazten du izaera onekoa zela, nahiko malgua eurekin, aitita ez bezalakoa.



¿Kelan enaze enteketagar? Da dana ondo atarakeon desun, gim-
nasia be bai, Alogina egiten la-dnu alderu. Bestela tamala
da aurretat eta gurotat be udian gae lex ibiltia.
Txabe edurra be idatzi eutan eutan poake artu dala aher
idestijak.
Holan dabil Urtsa. Susmetan dot gogoi kaster ibilko dala.
Beste baton idestijodiat berari. Oinguan extat idatzi, bera
uste dot epingo dala al dauman. Nih egunero atai egiten dot
bijokaitik goxian jaurmatian onak be langiat idatzi.
Ba besterik ez. Ni puaton eparaz berago, aher opriton
omen ikusiko gara.
Txabe, Mikeltan, iako jomne ta languinak hanak gaurte-
jak biandako eta aher agurak ira kadiaz. Mone andi bat.
bijari bijate bijate bidaltzen dautenbe
Amamak

Miren Josunek Txaber ilobari idatzitako eskutitza.
(Arg.: Txaber Erraztik lagatakoa)

Miren Josunek ilobekin hartu-eman handia izan zuen. Txaberrek gogoratzen du bera eta Urtsa anaia, ikastola utzi ondoren, Lekarozen hasi zirela batxilergoa egiten, eta amamak ilobei euskaraz idazten ziela beti. Hona hemen, adibiderako Bilbotik 1968ko martxoaren 6an Txaber ilobari idatzitako eskutitza, non familiaren berri emateaz gainera, azterketak eta gimnasia nola daramatzan galdetzen dion. Bertan azaltzen denez, amamak eurengatik egunero otoitz egiten zuen, eta antzeman dai-tekeenez, eurak bisitatzera ere joaten omen zen. Badakigu Miren Josunek hiru hiz-

kuntza menperatzen zituela. Etxean eta ingurukoekin euskaraz mintzatzen zen, eta eskutitzetatik ondorioztatzen dugu Miren Josune ondo alfabetatuta zegoela euskararen. Orduko andrazkoa izateko, harrigarria da, 83 urterekin ilobarekin horrelako komunikazioa euskaraz burutzea, ez baitzen bat ere ohikoa izaten.

Miren Josunek bere bizitzaren azken urteak familiari eskaini zizkion, bereziki down sindromea zuen semeari, berau ia 60 urte bete arte berarekin bizi baitzen. Zeregin horretan, iloben eta Edurne alabaren laguntza izan zuen etengabe. Miren Josune, neguan Bilboko etxean egoten zen. Zendu Bilbon egin zen, 1975eko abenduaren 31n, 91 urte zituela.

6.3. AMAIERAKO HAUSNARKETA

Miren Josune Ibasetaren jarduera pertsonal eta profesionalak diafanoki erakusten ditu bizitza osoan zehar abertzaletasunaren alde eman zituen urrats tinkoak. Jarduera profesionala Bilboko udal eskoletan bete zuen: nesken maistra, emakume helduen maistra, udalekuetako maistra izanik, euskarazko udal maistra lanak ere burutu zituen. Irakasle profil askotarikoetatik igaro ondoren, zenbait oposizio gainditu zituen, zuzendari izatera ere heldurik. Beraren jarrera politikoa-gatik, oztoporik ez zitzaion falta izan karrera administratiboan gora egiteko. Edonola ere, egoera ezkor horri aurre egin zion beraren tinkotasunari eta konfiantza pertsonal eta profesionalari esker.

Miren Josune garaiko euskal mugimendu esanguratsuetan aritu zen, Euzko Gaztediko eta Euskaltzale Bazkunako kidea izanik. Emakume Abertzale Batza eta Euzko Ikaskuntzako bazkide sortzaileetarikoa bat ere izan zen, EABko zuzendari-tzakoa ere bai. Gainera, Euzko Irakasle Bazkuna sindikatuko kidea ere bazen.

Maila pertsonalean nahiz profesionalean, ezbehar handiak jasan zituen: batetik, gerraren neke mingarriak eta errepresioa; bestetik, familia erbesteratzearen ondorio latzak. Edonola ere, etxera itzultzean eutsi egin zion goiari, eta lanpostua berreskuratu ondoren, euskal kulturaren bultzatzaile sutsua, ausarta eta aitzindaria zela erakutsi zuen. Nola isildu Arabako lehen ikastolaren sortzaile, babesle eta diru-hornitzailea izan zela, bere senarrarekin bat eginik! Zelan ez gogoan hartu familiaren enpresan babesa aurkitu zutela frankismoan preso edo lanik gabe geratu ziren hainbeste abertzalek! Zergatik ez aitortu frankismoaren urte latzetatik ihes egindako senar-emazteak konprometitu egin zirela euren seme-alabak euskaraz bizi zitezen, zeren aberrigintzaren alde politikoki ezin zutenek jokatu, kulturalki lan egitea erabaki baitzuten, alegia, eurak sinisten zuten naziogintzan, hain zuzen ere, Galmaka auzoan, kulturalki guztiz asegarria zen euskal oasisean. Horrez gainera, egoera aurkakoa zen arren, euskaraz idatzitako lanak argitaratzeko eta finantzatzeko ahaleginak egin zituzten, zeren euskaraz egiten zen oro erabat zigortuta baitzegoen.

Miren Josune Ibaseta Mendizabal maistra luzaroan bizi izan zen, eta beraren garaiko eginkizunetan gogotsu jardun zuen, amatasunean, maistratzan eta militantzian. Arlo guztietan eutsi zion ikuspegi abertzale, euskaltzale eta aurrerakoiari. Jaso beza gure ohorezko aitortpena emakume ausart, moderno izanak, emakumezkoaren prestakuntzaz hitzez eta ekintzaz hain zintzo arduratu zenak.

BIBLIOGRAFIA

- AB (Excmo. Ayuntamiento de Bilbao) (1914). *Programa de Pedagogía. Oposiciones a plazas de directores de Escuelas Graduadas Municipales*. Escuelas Gráficas de la Santa Casa de Misericordia de Bilbao.
- AB (Excmo. Ayuntamiento de Bilbao) (1918). *Reglamento de las Escuelas Especiales de Vasconce*. Escuelas Gráficas de la Santa Casa de Misericordia de Bilbao.
- AB (Excmo. Ayuntamiento de Bilbao) (1954). *Boletín Estadístico de la Villa, 1954. 4º Trimestre*. Escuelas Gráficas de la Santa Casa de Misericordia de Bilbao.
- AFB-BFA Archivo Foral de Bizkaia/Bizkaiko Foru Agiritegia.
- AHEB-BEHA Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia/Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa.
- AKESOLO, L. (1992): *Idazlan guztiak* (Edizioen prestatzaile Julen Urkiza). Karmel.
- AMB-BUA Archivo Municipal de Bilbao/Bilboko Udal Artxiboa.
- ARRIEN, G. (1993): *Bizkaiko ikastolak 1957-1972*. Eusko Ikaskuntza eta BBK.
- ARRIEN, G. (2014). *!Sakvad a los niños! Historia del exilio vasco en Gran Bretaña*. Sabino Arana Fundazioa.
- BILBAO, B., Ezkurdia, G., Perez, K., Chueca, J. (Biltzaileak) (2012). *Emakumeak. Hitza eta Bizitza*. UPV/EHU eta BFA/DFB.
- BOE Boletín Oficial del Estado.
- DÁVILA, P. (koord.) (2004): *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*. Biblioteca Nueva.
- BADATOR. Euskadiko Artxibo Historikoa, <<https://dokuklik.euskadi.eus>>.
- EA (Euskalerraren Alde) (1918). *El Primer Congreso de Estudios Vascos*. Martín, Mena y Cía.
- EI (Eusko Ikaskuntza) (1919). *I Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de Septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones Vasca*. Bilbaína de Artes Gráficas.
- EI (Eusko Ikaskuntza) (1920). *Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos. 1918-1920: memoria de la Sociedad, estado de caja, títulos y cargos, lista de socios*. Imprenta y Librería "San Ignacio de Loyola".
- ELORTZA, J. (2011). *Joseba Altuna 'Amilgain' (1887-1971)*. Eusko Jaurilaritza Argitalpen zerbitzua.
- ELUSTONDO, M. A. (2018). *Izaskun Arrueren urratsen atzetik*. Arabako Foru Aldundia.
- ESPINOSA, S. (2021). Galmaka, refugio de los valores vascos en el franquismo. *El Correo* (Alava), 2021eko irailaren 12, <<https://www.elcorreo.com/alava/araba/ayala/galmaka-refugio-valores-vascos-franquismo-20210912211351-ga.html>>.
- ERRAZTLI, J.M. (1906). Nacionalismo, nacionalista, nacionalidad, *Irrintzi*, 15, 4-5.

- EZKURDIA, G., BILBAO, B. eta PEREZ, K. (2017). Emakume Abertzale Batza Bilbon, *Eus-kalingua*, 31, 14-27.
- GAZTANAGA, J. (1933). *Breve reseña de los servicios escolares de la Villa*. Patronato Escolar y de Cultura de Bilbao.
- GOIKOETXEA ARALUZE, N. (1984). Toponima euskara, *KOBIE* (Etnografía), 1, 79-141.
- IZ (Izen gabe) (1922). Euzko-Gastedija'n "E.A.B"ren Lendakahijaren Euzkel - Itxeikixuna, *Aberri egunkaria*, II. Urtea, 90. Zenbakia (1922ko urriaren 21a).
- IZ (Izen gabe) (2014). Galmakako ikastola, euskararen uhartea. La ikastola de Galmaka, isla del euskara. *Zuin*, 9 (martxoa), 20-23.
- LORENZO ESPINOSA, J. M. (1992). *Gudari, una pasión útil: vida y obra de Eli Gallastegui (1892-1974)*. Txalaparta.
- LORENZO ESPINOSA, J.M. eta RENOBALLES, E. (1998). *Trifon Etxebarria 'Etarte' 1912-1998. Biografía de un abertzale*, EHK Fondo Abertzale Komunistak <https://fdocuments.es/document/trifon-etxebarria-1998-biograf-a-2018-07-12-1-trifon-etxebarria-aocetartea.html?page=4>
- MARTÍNEZ, J. (2022). *Lezo Urreiztieta: gudari de la utopía*. Entrevistas con Martin Ugalde, Pamiela.
- MIÑANO BEDOYA, S. (1826). *Diccionario geografico-estadístico de España y Portugal: Barque-ros-Castro de...* (Tomo II). Imprenta de Pierart-Peralta.
- MUGURUTZA, F. (2004). Errazti y Sarriegi: luchando contra el olvido, *AUNIA*, 8, 56-65.
Desde su inauguración, y de forma no sistemática, los visitantes que han deseado han cumplimentado un cuestionario de evaluación sobre un conjunto de preguntas relativas a la visita girada al museo. Esta evaluación es un pequeño acercamiento a la que se está realizando actualmente en los museos (Suarez et al., 2013). En este caso del total de visitantes que han respondido a la encuesta, no vamos a centrar únicamente en los 55 que pertenecen al sistema universitario, de un total de 283 encuestas contestadas por todo tipo de público. Señalamos tan solo algunos de los ítems que componen el cuestionario ya que estamos en el proceso de análisis de los datos. En este caso hemos seleccionado las cuestiones más relacionadas con la adquisición de competencias tras la visita al museo, partiendo de que la mayoría de ellos (un 70%) entiende que el museo es un lugar de aprendizaje, a pesar de que un 60% de ellos no suele visitarlos habitualmente. 50 de los 55 alumnos consideran que todos los alumnos de los grados de educación deberían girar visita al museo. Con respecto a la adquisición de competencias relativas al ámbito de la Historia de la Educación, de los 33 alumnos de educación social y pedagogía, 31 opinan que están de acuerdo o en total acuerdo con la frase “La visita al museo me ha servido para adquirir competencia relativas a la historia de la educación”. En cambio, los alumnos de magisterio (22), con la excepción de cuatro casos, la visita también les había servido para la adquisición de competencias relativas a otras materias que cursaban.

En relación con la pregunta de cuál era el espacio que más les había gustado del museo, la gran mayoría se inclina por el espacio escolar, señalando el interés del mismo, porque les ha dado oportunidad de conocer en la realidad espacios que no han tenido oportunidad de vivir, la razón de ello se puede deber a la buena reconstrucción de las aulas realizadas. Así, hay quien afirma que es como “viajar al pasado” y ver las condiciones en las que se impartían las clases. En cambio, los que han preferido el espacio del euskara muestran el desconocimiento de que el euskara tuviese la historia que tiene. Los que eligen el espacio enseñanzas y aprendizajes muestran su extrañeza por el tipo de enseñanza “sin tanta tecnología” o la evolución de los métodos de enseñanza.

Entre las propuestas de mejora del alumnado hay una gran coincidencia en demandar el uso de nuevas tecnologías (grabaciones de audio y vídeo, incorpo-

ración de códigos QR) o incluso el interés por contar con testimonios directos de épocas pasadas, a través de vídeos, u organizar talleres.

En definitiva, la necesaria evaluación nos está mostrando el papel que tiene y puede alcanzar en el futuro un recurso como el museo para la adquisición de un conjunto de competencias en el ámbito del patrimonio histórico-educativo.

7.4. VÍAS DE DESARROLLO PARA EL FUTURO

El Museo, de cara al futuro, tiene retos a los que responder y profundizar en nuevas líneas de trabajo para el futuro. El primero de ello es abrirse a nuevos públicos, trascender del mundo universitario a otros colectivos de la sociedad, para ello es importante que el Convenio con el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, en el que en este momento estamos trabajando, sea una realidad y, gracias a él, extender las actividades del mismo a personas mayores y a otros sectores de la sociedad, consiguiendo con ello profundizar en una transferencia más amplia. Todo ello sin olvidar las visitas guiadas dirigidas tanto al alumnado del sistema educativo como a otros colectivos: personas con discapacidad, adultos, profesorado, HABE, etc. que se realizan con una guía apropiada a cada una de las audiencias y, en algunos casos, se realizan reportajes en formato vídeo en función del interés de la visita a fin de comunicar científicamente a la sociedad las potencialidades que tiene el museo, tanto para el conocimiento de las ciencias, como de la memoria o de la educación en el pasado.

Otro reto importante en el que el Grupo de Estudios Históricos y Comparados en Educación, liderado por Paulí Dávila, y actualmente el Grupo Ikasgaraiá como continuador del mismo, ya lleva trabajando un tiempo es la apertura de un nuevo museo en la Facultad de Educación de Bilbao. Este nuevo espacio tendrá un relato diferente en el que estamos trabajando en estos momentos, para ello ya contamos con dos salas en la Facultad de Educación de Bilbao de forma que sirvan para la formación de los estudiantes universitarios y daría pie a la realización de exposiciones, proyectos de historia oral y realización de Trabajos de Fin de Grado entre el alumnado del Campus de Bizkaia.

BIBLIOGRAFÍA

- BOYER, M. (2010), Comment mettre en espace l'éducation?, *La Lettre de l'OCIM*, 128, pp. 21-29. Disponible en ligne, <https://journals.openedition.org/ocim/176?lang=en>
- BERNAL, J. MARIANO y LÓPEZ, J. DAMIÁN (2007), Los museos educativos y el material científico-pedagógico construido en la escuela. In ESCOLANO, A., *La cultura material de la escuela*, CEINCE, Salamanca, pp. 155-168.

- DÁVILA, P. y NAYA, L. M.^a (2009), El centro de documentación sobre historia de la educación en Euskal Herria en internet: una experiencia innovadora. In Sociedad Española de Historia de la Educación: *El patrimonio histórico-educativo y la enseñanza de la historia de la educación*, Murcia, SEDHE, pp. 111-123.
- DÁVILA, P. y NAYA, L. M.^a (2014): El Museo de la Educación de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Hezkuntzaren Museoa, Cabás, Vol 12 (2014), pp. 134-144.
- DÁVILA, P. y NAYA, L. M.^a (2015). Los museos de la medicina y de la educación de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. In I. García Fernández (arg.), *Museos Universitarios. Tradición y futuro* (473-478 or.). Universidad Complutense de Madrid.
- DÁVILA, P. y NAYA, L. M.^a (2016a). El Museo de la Educación de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU). In P. ÁLVAREZ DOMÍNGUEZ (arg.), *Los Museos Pedagógicos en España: entre la memoria y la creatividad* (243-260 or.). TREA.
- DÁVILA, P. y NAYA, L. M.^a (2016b). El Museo de la Educación de la Universidad Del País Vasco: Espacios Histórico-Educativos. In M. GUZMÁN PÉREZ (arg.), *Patrimonio y educación, una propuesta integradora* (35-42). Granada: Universidad de Granada / Junta de Andalucía.
- DÁVILA, P. y NAYA, L. M.^a (2017). El Museo de la Educación de la Universidad del País Vasco. *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, (36), pp. 482-485.
- DÁVILA, P. y NAYA, L. M.^a (2018). Los museos de la educación universitarios como recurso para la enseñanza de la historia y la educación patrimonial. In PONCE GEA, A. I. eta ORTUÑO MOLINA, J. (arg.), *Pensando el patrimonio: Usos y recursos en el ámbito educativo*. Universidad de Murcia.
- DÁVILA, P. y NAYA, L. M.^a (2019): Panorama atual dos Museus de Educação em Espanha, *Museologia & Interdisciplinaridade*, 8 (16), 16-36.
- Dávila, P. y Naya, L. M. (2022). Nuevas audiencias en el Museo de la Educación de la Universidad del País Vasco. Cabás. *Revista Internacional sobre Patrimonio Histórico-Educativo*, (28), pp. 187-206. <https://doi.org/10.35072/CABAS.2022.42.45.014>
- DÁVILA, P., NAYA, L. M.^a y AMUNARRIZ, I. (2022). La reactivación de la memoria a través de actividades museísticas: el caso del Museo de la Educación de la UPV-EHU. In C. PIRES, M. F. MARTINS eta M. FIGUEIREDO (arg.), *XIX Congresso da Sociedade Portuguesa de Ciências da Educação (SPCE). Educação e Cidades: Tempos, espaços, atores e culturas*. 15, 16 e 17, Setembro, 2022/Lisboa & Online. Livro de Resumos (208-209 or.). EventQualia.
- DÁVILA, P.; NAYA, L. M.^a y MIGUELENA, J. (2020): La ciudadanía activa, el papel de un Museo de la Educación. In VV.AA.: *Educación, Patrimonio y creatividad*. Verdelis, pp. 27-38.
- SUÁREZ, M. A., GUTIÉRREZ, S., CALAF, R. y SAN FABIÁN, J. L. (2013). La evaluación de la acción educativa museal: una herramienta para el análisis cualitativo. *Clio*, 39, <http://clio.rediris.es>

8

Atzoko eskola gogoan Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoan: Hezkuntzaren Museoa alzheimerra edo dementzia duten pertsonen oroitzapenak gogora ekartzeko aitzakia edo/eta baliabide

IRATI AMUNARRIZ-IRURETAGOiena

PEIO MANTEROLA-PAVO

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

8.1. SARRERA

Herrialde garatuetan, bizi-itxaropenaren handiagotzeak, adineko pertsonen edo/eta dementziaren bat duten pertsonen, hala nola alzheimerra pairatzen dutenen, gorakada ekarri du (Delgado, 2016; Monzó *et al.*, 2019). Hala, zenbait adituk nabarmendu bezala, alzheimerra, XXI. mendeko epidemia bilakatzen doan heinean (Delgado, 2016), aipatu berri dugun mendeko gizarteak aurre egin beharko dion erronka garrantzitsuenetako bat osatuz doa (García *et al.*, 2012). Gauzak horrela, ez dira gutxi gaixotasun hori gero eta pertsona gehiagok pairatzen dutela ohartarazi dutenak (Delgado, 2016; García *et al.*, 2012; Gómez, 2019; Monzó *et al.*, 2019), mendebaldeko herrialdeetako osasun-arazo nagusietako bat dela iritziz, dakartzan kostu pertsonal, sozial edo/eta ekonomikoetan oinarrituta (García, 2014). Gainera, datuek ez dute etorkizun hoberik aurreikusten, 2015eko alzheimerri buruzko Mundu Txostenak, alzheimerra pairatzen duten pertsonen kopurua 20 urtero bikoiztuko dela aurreikusten baitu (Delgado, 2016).

Egun, oraindik ez dago alzheimerra erabat ekiditeko edo/eta sendatzeko gai den tratamendu farmakologikorik (Barrera *et al.*, 2021; Gómez, 2019). Egoera horren aurrean, badirudi terapia ez-farmakologikoen onurek aditu gehienek adostasuna eragin dutela (Barrera *et al.*, 2021; Delgado, 2016; Escobar, 2018; Gómez, 2019). Terapia ez-farmakologiko mota guztien artean (bizitzako jardueren en-

trenamendua, estimulazio psikomotorra, txakurrekin lagundutako esku-hartzea, musikoterapia, arteterapia, etab.) “estimulazio kognitiboa” topa dezakegu (Barrera *et al.*, 2021; Delgado, 2016; García, 2014; Gómez, 2019), non, museoek, nariadura kognitiboa atzeratzeko ez ezik, ohitura osasungarriak sustatzeko baliabide gisa ere balioa hartzen duten, besteak beste: zahartze aktiboa sustatzeko baliabide gisa, bizitza sozial edo/eta kulturean parte hartzea sustatzeko baliabide gisa, etengabeko ikaskuntza sustatzeko baliabide gisa, etab. (Barrera *et al.*, 2021; García, 2014).

Hainbat ikerketek hizpide ditugun pertsonen ikasteko nolabaiteko gaitasuna mantentzen dutela erakutsi dute (Gómez, 2019), batez ere, gaixotasunaren lehen faseetan mantentzen duten erreserba kognitibo eta ahalmen emozionalen oinarrituta (Escobar, 2018). Zentzu horretan, pertsona horien garun-plastikotasunak (Delgado, 2016; Gómez, 2019) eta erreserba kognitiboak (Delgado, 2016; Escobar, 2018), euren bizi-kalitatean eragitera bideratutako eta estimulazio kognitiboan oinarritutako jarduerak ahalbidetzen dituzte. Azken hori da, hain zuzen ere, museoek jarduera-eremua (Delgado, 2016); izan ere, museoek, beren erantzukizun sozialari erantzunez (Barrera *et al.*, 2021; Delgado, 2016; Escobar, 2018; García, 2014, 2015; Monzó *et al.*, 2019), besteak beste, alzheimerre edo bestelako dementziaren bat pairatzen duten pertsonen gaitasunak aitoratzeko eta haien parte-hartze aktiboa sustatzeko egoerak sortu behar lituzkete, euren oroitzapenak partekatzeo aukerak eskainiz, beren autoestimua hobetzeari (Escobar, 2018; Delgado, 2016) eta pairatzen duten gizarte-bazterkeriari aurre egiteari (Escobar, 2018) begira.

Hemen aurkezten ari garen ekarpenak, hizpide ditugun pertsonekin, zehazki, Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta alzheimerre edo beste dementziaren bat duten pertsonen Elkarteko estimulazio kognitiborako tailerren erabiltzaile direnekin, 2021ean, museoaren eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmen baten baitan Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoan egindako ekimen bat aurkeztea du helburu¹. Horretarako, museoek eta, zehazki, hezkuntzaren museoek, konpromiso soziala dela eta burutzen dabiltzan ekimenak testuinguruan jarrita, UPV/EHUko Hezkuntzaren Museoan garatutako jardueraren azalpenari helduko diogu.

8.1.1. Museoak eta alzheimerre

Komunitateko bizitza kulturean parte hartzeko aukerei dagokienez, adituek, adineko pertsonen edo/eta dementziaren bat duten pertsonen —hala nola, alzheimerre duten— eskaintzen zaizkien aukera urriak salatzen dituzte (Monzó *et al.*, 2019), egoera horrek nazioarteko itun desberdinetan aitortzen den bizitza

¹ Ekimen honen inguruko bideoa topa dezakezue Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoaren web-orrian <https://bit.ly/3UAfM59>

kulturalcan parte hartzeko eskubidearen urraketa baitakar (Barrera *et al.*, 2021). Dementia, hizpide ditugun pertsonen kultur jardueratan parte hartzeko oztopatzat hartu ohi bada ere (Barrera *et al.*, 2021), López-Méndez-ek (2017), dementia parte hartzeko muga ez dela ziurtatzen duten ikerketa eta esperientzia ezberdinen bidez, aipaturiko pairapena, oro har kultur-jardueraz eta bereziki museoek gozatzeko aukera falta justifikatzeko arrazoia ezin izan daitekeela argudiatzen du.

Museoek, beren gizarte-erantzukizuna aintzat hartuz (Delgado, 2016; García, 2018; Monzó *et al.*, 2019; Rechenca eta Furtado, 2012), ezin dute hizpide dugun kolektiboak bizi duen bazterkeriaren aurrean entzungorrena egin (Barrera *et al.*, 2021). Hori horrela, beren jarduerak, beren ardurapean dituzten bildumetan bakarrik oinarritu beharrean, komunitatearen premietara egokitu beharko lituzkete (Escobar, 2018), komunitatea osatzen duten kolektiboetako pertsona guztien gaitasunak edota bestelako ezaugarriak edozein izanik ere, euren parte hartzea nahiz irisgarritasuna bermatuz (Barrera *et al.*, 2021; Escobar, 2018; García, 2014, 2015; García, 2018; García *et al.*, 2012; López-Méndez, 2017). Hau da, museoek, erudizioari eskainitako tenplu izaera edo/eta zentro elitisten estatusa gainditu eta gizarteratzea sustatzen duten eragile bihurtzeko, komunitatearekin duten konpromisoari erantzun behar diote (Delgado, 2016; Escobar, 2018).

Azken urteotan, kultura arloko politika inklusiboagoek nahiz gizarte-sentsibilizazioaren handiagotzeak (García, 2018; Monzó *et al.*, 2019) bultzatutako aldaketa soziopolitikoen ondorioz, egun, museo irisgarriagoak eta erantzukizun sozial handiagokoak topa ditzakegu. Irisgarritasun unibertsalaren eta aukera-berdintasunaren printzipioei jarraiki mota desberdinetako kolektiboek zuzendutako ekimen desberdinak garatu dituzte, tokiko hainbat elkarteren eskariari erantzunez, eta horrela, museoak, kolektibo horien arretaz arduratzen diren eragile eta baliabideen artean txertatuz (García, 2018). Aldi berean, alzheimerra edo beste demenziaren bat duten pertsonen zuzendutako jarduera kopurua modu esponontzialcan hazi da (Delgado, 2016; López-Méndez, 2017; Monzó *et al.*, 2019).

Jarduera horien hazkunde esponontziala dela eta, horiei buruzko aipamenak erraz topa ditzakegu, izan ere, alzheimerri eta museoek buruzko literaturak, jardunbide egokien adibide gisa, hizpide dugun kolektiboari zuzendutako hainbat museo, proiektu, bisita, tailer eta ekimeni buruzko aipamenak eskaintzen ditu. Horien artean, nabarmentzekoak dira nazioartean New Yorkeko Arte Modernoaren Museoko *Meet Me at MoMA* izeneko *MoMA Alzheimer's Project* (Barrera *et al.*, 2021; Delgado, 2016; García, 2014; López-Méndez, 2017), *Connect2Culture* (Delgado, 2016; López-Méndez, 2017) edo/eta baita ARTZ programa —*Artists for Alzheimer*— ere (Gracia, 2014; López-Méndez, 2017).

Espainiar estatuko museoek joera bera jarraitzen dute, eta, aztertzen ari garen kolektiboari zuzendutako jarduerak eskaintzen dituzten museoek kopurua

oraindik eskasa bada ere (García, 2015), gero eta gehiago dira (García, 2014, 2015; López-Méndez, 2017), eta, beraz, Espainian gauzatzen ari diren proiektuen erreferentziak ere erraz topa ditzakegu. Adibidez, Murtziako Arte Ederren Museoaren “alzheimer MuBAM” proiektua (Barrera *et al.*, 2021; Delgado, 2016; García, 2014, 2015; García *et al.*, 2012; López-Méndez, 2017; Monzó *et al.*, 2019); AR.S (*Arte y Salud Alzheimer*) proiektuaren “*Retales de una vida*” programa (López-Méndez, 2017); “*El Prado para Todos*” proiektua (Delgado, 2016; García, 2014, 2015; López-Méndez, 2017; Monzó *et al.*, 2019); Madrilgo Thyssen-Bornemisza museoa (Delgado, 2016; Gamoneda, 2011; García, 2014, 2015; López-Méndez, 2017; Monzó *et al.*, 2019); Alacanteko Arte Garaikidearen Museoaren (MACA) eta *Las Cigarreras* Kultur Etxearen “*Reminiscencias. Arte y cultura contra el Alzheimer*” proiektua (García, 2014, 2015; López-Méndez, 2017; Monzó *et al.*, 2019); Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroaren “*CCCB Programa Alzheimer*” programa (García, 2014, 2015; López-Méndez, 2017; Monzó *et al.*, 2019); edo Lugoko Museoen Sare Probintzialaren “*Álbum da memoria compartida*” proiektua (García, 2015; Lago eta Sánchez, 2015; López-Méndez, 2017; Monzó *et al.*, 2019), besteak beste.

Euskal Herrian ere aurki ditzakegu tankerako adibideak, hala nola, Bilboko Rekalde Aretoan Alzheimerraren prebentzioa helburu egiten duten tailerra. Artean eta eguneroko memorian oinarritzen den tailer honek aipamen ugari jasotzen ditu kontsultatutako bibliografian (García, 2015b; López-Méndez, 2017; Monzó *et al.*, 2019).

Normalean, aldaketa instituzionalak aldaketa sozialetatik abiatu ohi direla sinistuta, García (2015) adierazi du, gizarteak kultur-erakundeekiko dituen existentziak gero eta handiagoak direla, batez ere, komunitatean/komunitatearentzat egiten diren jarduerak erantzukizun sozial handiagoa eta komunitateko kideen bizi-kalitatearen hobekuntza exijitzen baitute. Atal honetan eskaini diren adibideen bitartez azaleratu nahi izan dugun moduan, nazioarteko joera berdina jarraituz, espainiar Estatuan ere Alzheimerra edo bestelako dementziaren bat duten pertsonen baldintza psikosozialak eta inklusioa bisiten, tailerren edo/eta bestelako jardueren bidez hobetzeko proiektuak ernatu dira (López-Méndez, 2017). Hala ere, García (2015) ohartarazi duenez, mota horretako proiektuak gorakadan egon arren, museo jakin batzuek sustatutako ekimen partikularren multzoa izaten jarraitzen dute, errealitate hedatua edo/eta iraunkorra izatera heldu gabe. Era berean, proiektu edo/eta ekimen horien arduradunei, berdin inguruko zientzia-dibulgazioan parte hartzeko eskatzen die proiektu horien inguruko erreferentzia bibliografikoen eskasia salatzen duen artean (García, 2014). Izan ere, adituaren ustetan, ekimen hauen inguruko erreferentzia edo/eta aipamenak, gehienetan prentsako edo sareetako albisteetara mugatzen dira, eta esparru akademikoan zabaltzen diren salbuespen urriek, askotan ez dute ebaluazio zorrotz baten ondoriozko helburu, metodologia, emaitza edo/eta ondorioz izaten (García, 2014).

8.1.2. Hezkuntzaren Museoak eta alzheimerra

Ikusi dugun moduan, gero eta museo gehiagok dituzte hizpide dugun kolekti-boari zuzendutako jarduerak, eta ez da desberdina izan museo pedagogikoen edo/eta hezkuntzaren museoek kasuan; izan ere, joera berari jarraiki, gero eta jarduera gehiago eskaintzen dituzte adineko pertsonen eta dementzia edo alzheimerra duten pertsonen eskola-aldiko edo haurtzaroko oroitzapenak bultzatzeko (Dávila *et al.*, 2022).

Ilido horretan, Barrera *et al.* (2021)-ek, oro har tratamendu ez-farmakologikoei eta zehazki muscok alzheimerra duten pertsonen bizi-kalitatean duten eraginari buruz egindako ikerketaren emaitzek, agerian utzi dute aztergai dugun kolekti-boari zuzendutako hezkuntza-proposamenen gaiei dagokienez, gaiek alzheimerra duen pertsonaren bizi-historiarekin lotura izan behar dutela. Horri, Gómez-ek (2019) denbora asko igaro duten agertokiak gogoratzea errazagoa zaiela adierazten duela gehitzen badiogu, eta, eskolan edonork bizitzan zehar igarotzen duen ordu kopurua kontuan izanik (Gómez, 2019), hezkuntzaren muscok, oro har, eta zaintzapean dituzten hezkuntzaren ondare historikoaren bildumek, zehazki, oroitzapenak eragiteko ahalmen pribilegiatua dutela esan genezake.

Ilido beretik, Agustín Escolanok ondarearen erabilera terapeutikoaren kontzeptua mahaigaineratu du (Escolano, 2010) zehazki hezkuntzaren ondare historikoari erreferentzia eginez, hau da, iraganeko eskolako arrastoak oroitzapenak gogora ekartzeko estimulu gisa erabiltzeko aukerari erreferentzia eginez. Oinarri horretatik abiatuta, hezkuntzaren muscok edo museo pedagogikoak, baliabide ezin hobeak lirateke alzheimerra edo oroimena galtzea eragiten duen bestelako dementziaren bat pairatzen duten pertsonen haurtzaroko pasadizoak, eskolako esperientziak, abestiak... azken batean, garai hartan familian, eskolan nahiz kalean bizitakoak gogora ekar ditzaten (Dávila *et al.*, 2022).

Izan ere, eskola-memoriak lotura zuzena badu eskolan igarotako orduekin, lotura bera du haurtzaroarekin edo/eta gaztaroarekin, eta gehienek, nostalgiaz gogoratzen dute aldi hori (Gómez, 2019). Horregatik, haurtzaroaren edo/eta nerabeztaroaren nostalgiaz duen botere emozional eta oroigarria aprobetxatuz, erabilera nostalgikoak eta terapeutikoak bat egiten dute hezkuntzaren ondare historikoa adinarene edo gaixotasunaren ondorioz oroimenean hutsuneak dituzten pertsonen oroitzapenak suspertzeko erabiltzen denean (Escolano, 2010; Gómez, 2019). Orduan hartzen dute hezkuntzaren muscok edo/eta museo pedagogikok edo/eta bisitek balio terapeutikoa, beren garaiko eskolako oroitzapenen bidez, parte-hartzaileei beren nortasunaren zati bat berreskuratzeko aukera ematen zaienean (Escolano, 2010; Gómez, 2019).

Ondorioz, gaur egun, hizpide ditugun pertsonen oro har Espainiako lurraldeko museo pedagogikok eta zehazki Euskal Herrian kokaturiko UPV/EHUko Hezkuntzaren Museoa egindako esperientzien hainbat adibide

aurki ditzakegu, hala nola: 2009an CEINCE-n –*Centro Internacional de la Cultura Escolar*– egindako jarduera (Escolano, 2010), Sevillako Hezkuntza Zientzien Fakultateko Museo Pedagogikoak egindako tailer terapeutikoa (Gómez, 2019), hirugarren adinekoentzako eta alzheimerra duten pertsonentzako egoitza-baliabideen edo/eta eguneko zentroen erabiltzaileentzako bisita gidatuak MUPEGA-n —*Museo Pedagógico de Galicia*— (Castro, 2012/2013), Allarizeko *Museo do Xoguetek* eta Triveseko *Museo da Escola e da Infancia*-k lankidetzan garatutako programa (García, 2014), edo ekarpen honetan hizpide dugun Euskal Herriko Unibertsitatearen Hezkuntzaren Muscoan (UPV/EHU) muscoaren eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmen baten baitan garatutako jarduera (Dávila *et al.*, 2022).

Adituek, batzuetan alzheimerdun Gaixoen Senideen Elkartetako teknika-riekin lankidetzan diseinatu diren (psikologoak, medikuak, terapeutak, gizarte-langileak, etab.) (Escolano, 2010; García, 2014), eta beste batzuetan muscoetako langileengandik diseinatuak izan diren jarduera horiek, alzheimerra edo bestelako dementziaren bat duten pertsonentzat nahiz haien zaintzaile edo/eta senideentzat onuragarriak direla adierazi dute (Castro, 2012/2013; Dávila *et al.*, 2022; Escolano, 2010; García, 2014; Gómez, 2019), oroimenak gogora ekartzeko estimulu gisa hezkuntzaren ondare historikoaren “erabilera terapeutiko”-en (Escolano, 2010, 43 or.) edo/eta “indar berezia”-ren (Dávila *et al.*, 2022, 208 or.) balioa azpimarratuz. Zehazki hezkuntzaren muscoez jardun beharrean askotariko muscoez ari bada ere, Escobarrek (2018) onuradunen baitan antolatzen ditu onura horiek, alzheimerra duten pertsonentzakoak, haien senitarteko edo/eta zaintzaileentzakoak, eta museo eta gizartearentzakoak desberdinduz. Jarraian, egitura bera erabiliko dugu aditu desberdinek adierazitako onurak taldekatzeko:

Alzheimerra duten pertsonentzako onurei dagokienez, egileek honako hauek nabarmendu dituzte:

- Oroitzapenak berpizteko aukera (Dávila *et al.*, 2022; Escolano, 2010; Gómez, 2019), iraganaren eta orainaren arteko zubiak eraikiz (López-Méndez, 2017).
- Narriadura kognitibo bizkorra eta gaixotasunaren ondoriozko sintomak moteltzea (Barrera *et al.*, 2021; Escobar, 2018; Gómez, 2019). Sintoma horien artean, bisitan parte hartu ondoren aldartearen, umorearen eta autoestimua hobetzea aipatzen dituzte (Delgado, 2016; Escobar, 2018). Baita apatia, antsietatea, larritasuna, depresioa, oldarkortasuna, asaldura eta suminkortasuna gutxitzea ere (Escobar, 2018).
- Taldeko kideen oroitzapen pertsonalen arteko elkarreragina eta birsozializazioa (Escolano, 2010) ahalbidetzen dituzten interakzio sozialen eta ideia trukaketarako aukeren areagotzea (Escobar, 2018). Izan ere, sozializazio egoerek memoria banakako erregistroek baino gehiago sustatzen dute (Escolano, 2010).

- Eskola-tresnek mekanismo kognitiboei dagokienez duten gaitasun estimulatzailetik abiatutako (Escolano, 2010), ikaskuntza eta ezagutza berrien bidezko estimulazio intelektuala (Castro, 2012/2013; Dávila *et al.*, 2022; Escobar, 2018; López-Méndez, 2017).
- Estimulazio emozionala (Escobar, 2018; López-Méndez, 2017). Adituek diotenez, sentimenduen eta emozioen adierazpenek eta deskribapenek gora egiten dute (Escobar, 2018), eskola-tresnek adierazpen-mekanismoei dagokienez duten estimulazio-gaitasunaren ondorioz (Castro, 2012/2013; Escolano, 2010).
- Herritartasun aktiboa (Dávila *et al.*, 2022) eta ohitura osasungarriak sustatzea (hala nola, zahartze aktiboa, bizitza sozialean eta kulturalen parte hartzea, etab.) etengabeko ikaskuntzaren ikuspegitik (Barrera *et al.*, 2021; García, 2014).
- Parte-hartze soziala (Dávila *et al.*, 2022) eta inklusioa (López-Méndez, 2017) sustatzea, harreman sozialak ahalbidetzen dituzten egoeren bidez isolamenduari edo/eta gizarte-bazterketari aurre egiteko (Escobar, 2018; Gómez, 2019). Onarpena eta segurtasuna nabarmentzen diren giroan parte hartzaileak trebe bezain baliagarri sentiarazten dituen (Escobar, 2018) jarduera edota espazio baten eskaintzak eragin positiboa du partaideen autoestimuan (Delgado, 2016; Escobar, 2018).
- Parte hartzaileengan jarrera narratiboa eragitea eta (Escolano, 2010) eta mintzamenaren, hitz-jarioaren eta komunikazioaren hobekuntza hizpide ditugun jardueretan zehar (Escobar, 2018).

Senideei edo/eta zaintzaileei dagozkien onurei dagokienez, honako hauek nabarmendu dira:

- ✓ Zaintzailearen edo/eta senidearen aldartea hobetzea: umorea hobetzea, estresa gutxitzea, etab.
- ✓ Gaixotasuna pairatzen duen pertsonarekin duen harremanaren edo/eta berarekiko atxikimenduaren sendotzea, zaintzailea senidea den kasuetan familia-harremanen hobetzea aipatzen da onura gisa (Escobar, 2018).
- ✓ Ikaskuntza eta ezagutza berrien bitarteko estimulazio intelektuala (Castro, 2012/2013; Dávila *et al.*, 2022; Escobar, 2018).
- ✓ Egunerokotasunetik eta errutinatik kanpoko esperientzia berriei (elkarrekin) gozatzeko aukera ematen dien kultur-eskaintza (Escobar, 2018).

Azkenik, museoentzako eta, oro har, gizartearentzako onurei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira:

- Gaixotasun horrek gizartean, oro har, eta erakundeetan, zehazki, lotuta daraman estigmari aurre egitea, hizpide ditugun pertsonen ingurune hurbilenetik hasita (senideak edo/eta zaintzaileak) (Barrera *et al.*, 2021; Escobar, 2018; López-Méndez, 2017).
- Hezkuntzaren ondare historikoaren ezagutza beste audientzia eta ikusleria batzuei hurbiltzea (Dávila *et al.*, 2022).
- Zahartzeari, dementziei eta tratamendu ez-farmakologikoei buruzko ikerketa, sozializazioa eta eztabaida sustatzea (Escobar, 2018).
- Museoetako langile desberdinen (zuzendari, bitartekari, hezkuntza proiektuen disainatzaile, etab.) prestakuntzaren nahiz sentsibilizazioaren handiagotzea, komunitateko kolektibo desberdinen premiei eta gaitasunei erantzuteko, hala nola, alzheimerria duten pertsonenei (Escobar, 2018).
- Museoen eta beste eragile soziosanitario batzuen arteko lankidetzeta eta diziplinartekotasuna (Escobar, 2018), museoak, kolektibo horien arretarako eragile eta baliabideen multzoan txertatuta (García, 2018).
- Museo inklusiboak (Dávila *et al.*, 2022; Escobar, 2018).

Horrek guztiak, alzheimerria duten pertsonen eta haien zaintzaz arduratzen direnen bizi-kalitatean du eragina (Barrera *et al.*, 2021; Delgado, 2016; Escobar, 2018; García, 2014, 2015; Gómez, 2019; Monzó *et al.*, 2019), eta erantzukizun sozial handiagoko museoak ditu ondorio (Barrera *et al.*, 2021; Delgado, 2016; Escobar, 2018; García, 2014, 2015; García, 2018; Monzó *et al.*, 2019; Rechenca eta Furtado, 2012). Horregatik, arrazoi nahikoa mahaigaineratu da museoek, oro har, eta hezkuntzaren museoek edo/eta museo pedagogikoek, zehazki, hizpide dugun giza taldea barne hartzen duten jarduerak diseinatu eta garatzeko, Euskal Herriko Unibertsitatearen Hezkuntzaren Museoak (Dávila *et al.*, 2022) museoaren eta Donostiako Udalaren arteko hitzarmen baten esparruan egin duen bezala, jarraian ikusiko dugun moduan.

8.2. ATZOKO ESKOLA GOGOAN EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZAREN MUSEOAN: ALZHEIMERRA EDO/ETA DEMENTZIA DUTEN PERTSONAK AUDIENTZIA GISA

8.2.1. Helburua: Hezkuntzaren museoa alzheimerria edo/eta dementzia duten pertsonen oroitzapenak berpizteko aitzakia eta baliabidea

Alzheimerria edo bestelako dementziaren bat duten pertsonekin 2021ean Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoan egindako jarduerak honako helburu hauek zituen:

- Eskola-aldiko oroitzenak eta parte-hartzaileen haurtzaroko gogora ekartzea, hezkuntzaren ondare historikoa estimulu gisa baliatuta.
- Parte-hartzaileen autoestimua hobetzea.
- Berdinen arteko elkarrekin ahalbidetzen duten egoerak sortzea.
- Museoa oro har, eta zaintzapean duen hezkuntzaren ondare historikoa, zehazki, komunitatearen eta haren beharren zerbitzura jartzea.

8.2.2. Parte hartzaileak: alzheimerredu edo/eta demetzia duten eta lekuko elkarte baten estimulazio kognitiborako tailerren erabiltzaile diren pertsonak

Alzheimerredu edo bestelako demetziaren baten ondorioz galera kognitiborarena edo ertaina zuten 47 pertsonak hartu zuten parte, bost taldetan banatuta. Parte hartzaile guztiak Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerredu edo beste Demetziaren bat duten Pertsonen Elkartearen estimulazio kognitiborako tailerren erabiltzaileak ziren, eta elkarte horretako hiru psikologoak lagunduta etorri ziren jarduerara.

8.2.3. Lekua: Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoa/Museo de la Educación de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)


Aurkeztzen ari garen ekimena Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoa (UPV/EHU) egikaritu zen, non, ekarpen honen sinatzaileok, Iker-tzaile Kontratatu plaza bat betetzeko aukera izan dugun. Museoaren sorrera 2014ko ekainaren 5ean onartu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak (Dávila eta Naya, 2014, 2015, 2016a; Romero, 2017), eta bi urte beranduago inauguratu zen, 2016ko urrian (Dávila eta Naya, 2018; Amunarriz *et al.*, 2022), garai hartan gure unibertsitateko errektore zen Iñaki Goirizelaia zuzendutako inaugurazio-ekitaldi batekin. Inaugurazio-ekitaldi horretara, lekuko zenbait autoritate (besteak beste, Cristina Uriarte Hezkuntzako Sailburua, Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Ana Arrieta Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea eta Paulí Dávila Museoko zuzendaria) nahiz prentsa (prentsa idatzia², irratia³ eta telebista autonomikoa) bertaratu ziren (Dávila eta Naya, 2017).

Gaur egun, UPV/EHU-ko Hezkuntzaren Museoa Gipuzkoako Campusean dago kokatuta, Manuel Lardizabal kaleko 2. zenbakian, Carlos Santamaria liburutegitik eta gure unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fa-

² El Diario Vasco: <https://bit.ly/3UQ2Jww> ; Noticias de Gipuzkoa: <https://bit.ly/3xXANGj>

³ Euskadi Irratia: <https://bit.ly/3SFC3g3>; Cadena SER: <https://bit.ly/3BMMwiU>

kulturatetik metro gutxira. Baina ez da beti horrela izan. Hasieran, GARAIAN Ikerketa Taldeak, taldeko hainbat kidek ikerketa-helburuekin eskuratutako materiala modu ikusgarrian jasotzeko beharra identifikatu zuen, eta horretarako, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak espazio txiki bat eskaini zion (Dávila eta Naya, 2016a). Aitzitik, ikerketa-taldeak berehala izan zuten espazio handiago baten beharra material bilduma guzti hori eskola-museo baten gisara erakutsi ahal izateko. Hori dela eta, 2012ko abenduan, Campuseko Errektoreordetzak, Euskal Herriko Unibertsitatearen jabetzako 250m² inguruko eraikin bat (Villa Asunción) utzi zion hezkuntzaren ondare historikoa osatzen duten eskolako tresnen erakusketa ahalbidetzeko (Dávila eta Naya, 2016b). Bertan, GARAIAN ikerketa-taldeak zenbait areto bisitagarri antolatu zituen gaur egun ezagutzen dugun museoaren aurrekari moduan (Dávila eta Naya, 2016a). Etapa horri “biltegi bisitagarria” deitu diote Dávila eta Naya (2016a) eskola-museo baten tankeran, hezkuntzaren ondare historikoa osatzen duten eskolako objektuen erakusketa eratzearekin batera, unibertsitateko ikasleen, zenbait autoritateren eta abarren bisitak ahalbidetu baitzituzten. Espazio horren lagapenak hasierako lokal txikiarekin alderatuta hobekuntza espazial ukaezina ekarri bazuen ere, azken kokapen honek, unibertsitate-campusetik kanpo —eta urrun— zegoenez, irisgarritasun-arazo nabarmenak zekartzan (Dávila eta Naya, 2016a, 2017). Museoko zuzendaritza-taldeak gardentasun osoz aitortu du aldi horren helburua, oro har gizartea eta zehazki unibertsitatea halako museoaren beharraren inguruan sentsibilizatzea zela, irakas-kuntzarako nahiz emaitzak gizartera transferitzeko baliabide gisa. Horretarako, foro, jardunaldi eta antzerako ekimen ugari egin zituzten, baita komunikabi-deen bidezko kanpaina bat ere (Dávila eta Naya, 2014, 2016a).



Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoaren kokapena.
(Iturria: Google Maps <https://bit.ly/3DbPW8>)

Era berean, aldi horretan zehar, unibertsitatearen aitortza formalaren prozesu osoa gauzatu zen, museoak UPV/EHU-ren egitura administratiboaren parte izatera igaro zen arte (Dávila eta Naya, 2016a, 2016b). 2015eko uztailean, prozesu horri amaiera emateko, museoak egungo kokapenera lekualdatu zen, hau da, campusean bertan kokatutako 350m²-ko eraikinera. Kokapen berri honi esker, museoak irabazi egin du bai espazioari dagokionean eta bai irisgarritasunari dagokionean azken kokapenarekin alderatuta, eta horrek, oso eragin positiboa izan du bisitei dagokienean (Dávila eta Naya, 2016a, 2017). Hori horrela, museoak, txertratuta dagoen komunitatearekin duen konpromezuari eta erakunde bezala dagokion erantzukizun sozialari erantzunez, ohikoak ez diren audientziak museora gerturatzeko saiakera eta ahalegina egiten ditu. Horretarako, besteak beste, jarraian datorren atalean deskribatuko dugun jarduera diseinatu zen.

8.2.4. Metodologia eta jardueraren garapena

Ekimena eksklusibotasunez gauzatzen da museoan, hau da, bisitariei arreta galazazi diezaizkeen edo/eta soinuarekin jardueraren garapena oztopatu dezakeen pertsona edo bisita gehiagorik gabe. Hori horrela, taldeak banaka etorri dira museora aurrez adostutako egun eta orduetan. Gainera, talde bakoitzeko pertsona kopurua ere mugatzen dugu, parte-hartzaile bakoitzari arreta eskaintzea ahalbidetzen diguten talde txikiak bermatzeko.

Bisita eta ondorengo tailerra museoko lau espazio desberdinetan gauzatzen dira. Izan ere, bisita hiru moduluren baitan diseinatuta dago. Lehenengoa, hezkuntzaren historiari dagokiona da; jarraian, eskala errealeko bi ikasgela ditugun aretora sartzen gara; eta ondoren, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuei —eta horretarako erabiltzen diren tresna desberdinei— eskainitako azken espazio batera. Bisita amaitutakoan, taldea sarreran elkartzen da berriro, eta ongietorria egiten zaien espazio berean tailerra egiten da.

Sarreran, harrera egiten diegu parte hartzaileei. Gune hori, museoko atea zeharkatu bezain laster topa dezakegun argi naturaldun espazio zabalari dagokio, zeina mahai eta aulkiez hornitua dagoen. Bertan, parte hartzaileek eserita itxaron dezakete gainerakoak iristen diren bitartean, beren objektu pertsonalak utz ditzakete, etab. Espazio hori, bisita hasi aurretik ongietorria egiteko erabili dugu eta, orobat, gure burua aurkeztu, eta jarraian egingo den jardueraren nondik norakoak azaldu dizkiegu eroso senti daitezen, ziurgabetasunik gabe.

Bisita “Euskararen eta Hezkuntzaren mundua” gunean hasten dugu, non, euskara ardatz hartuta, Euskal Herriko hezkuntzaren historian zehar ibilbide bat egiten baitugun (Rodríguez eta Dorronsoro, 2018), hau da, euskarari (edo euskara ezari —aldiaren arabera—) dagokionean. Bisitako lehen zati hau, jarduera hau hezkuntzaren historiako klase magistrala izatetik urrun, elkarriketan oinarritutako esperientzia interaktibo bati dagokiola (García, 2014) transmititzeko

baliatzen dugu. Galdera/erantzunaren estrategiaren bidez parte hartzea sustatzen dugu, eta parte hartzaileei eskola garaiko gertakariei buruz hitz egiteko aukerak eskaini zaizkie (García *et al.*, 2012). Horrela, bitartekariak, beren erantzunak jaso eta hezkuntzaren ondare historikoaren inguruko azalpenekin erlazionatzen ditu parte-hartzaileei museoaren kontakizunarekin pertsonalki identifikatzeko aukera eskainiz (Escobar, 2018), eta beren ekarpenei errefortzu positiboak egiten dizkie (García, 2014), hizpide ditugun pertsonen parte hartzea eta, bide batez, autoestimua hobekuntza sustatzeko. Izan ere, bisitez arduratzeko adinako hezkuntzaren historiari —gure kasuan— buruzko ezagutza duen pertsonaren posizio pribilegiatua duen norbaitek, beren ekarpenak baliozkotu eta museoako diskurtsoan integratzen dituela ikusteak, parte-hartzaileen autoestimua indartzen du. Ildo beretik, jarrera paternalista edo/eta infantilizatzaileak saihestearen eta parte-hartzaileak ahalduntzearen garrantzia nabarmentzen da, jardueraren oinarria parte hartzaileen mugetan baina, gaitasun eta indargunee-tan jartzeari esker (Monzó *et al.*, 2019).



Bisita gidatua Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoa (UPV/EHU):

“Euskararen eta Hezkuntzaren mundua” deituriko espazioa.

(Iturria: Museoko web-orrian eskegita dagoen jardueraren harira egindako bideoa <https://bit.ly/3UAFm59>)

Ondoren, azken gune horretatik eskola gunera igarotzen gara, hau da, eskala errealeko bi ikasgela dituen aretora sartzen gara. Lehenengoa 50-eko eta 60-ko hamarkadei dagokie, eta bigarrena, 70-eko hamarkadatik aurrerako ikasgela bati. Eskola gune horiek argi eta garbi identifikatu ditzake edonork, eta beraz, oroitzapenak gogora ekartzea sustatzen dute (Monzó *et al.*, 2019). Parte-hartzaileen adina dela eta, lehenengoa erabili dugu. Parte-hartzaileak iraganeko ikasgelan sartzen dira, beren garaiko ikasmahaietan esertzen dira ikasleak zirenean bezala, arbelaren, irakaslearen mahaiaren, horman zintzilik dagoen Francoren argazkia-

ren eta gurutzearen, lamina didaktikoen, tintontzien, eskola-koadernoen eta abarren parean, beren eskola-esperientzien oroitzapena sustatzeko asmoz hezkuntzaren ondare historikoaren botere oroitzaillearen bitartez. Bisitaren zati honetan, parte-hartzaileen arteko elkarrekintzek balio berezia dute; izan ere, parte-hartzaile batek kontatutako pasarteak beste gertaera bat gogorarazten dio beste bati, eta, beraz, berdinaren arteko elkarrekintza hezkuntzaren ondare historikoari gehitzen zaio oroitzapenak suspertzeko estimulu gisa. Horregatik, jarduerak diseinatzea, antolatzea eta egituratzea bezain garrantzitsua da, era naturalean sortzen diren kontuak ahalbidetzeko nahiz jasotzeko bezain malguak izatea (Monzó *et al.*, 2019).



Bisita gidatua Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoa (UPV/EHU):
50. hamarkadan girotutako ikasgela.

(Iturria: Jardueraren harira egindako eta museoko web-orrian jarritako bideoa <https://bit.ly/3UAfM59>)

Azkenik, bisita amaitzeko, irakaskuntzei eta ikaskuntzei eskainitako espazio ora sartuko gara, hau da, irakaskuntzen eta ikaskuntzen gunera. Bertan, hainbat irakasgairen irakaskuntzarako nahiz ikaskuntzarako erabili diren hainbat material eta eskola-tresna daude. Hau da, parte-hartzaileek beren eskoletan ikusi edo/eta erabili duten materialez dago hornituta, eta beraz, eskola garaiko gertakarien oroitzapenak berpiztea espero da hezkuntzaren ondare historikoa estimulu gisa erabilita. Espazio horretan, genero irakurketa ere egin ohi dugu, eskola, genero-estereotipoak transmititzeko eragile gisa ulertuta (jostailuen, ikasgai bereizien eta abarren bidez), hau da, eskola, neska eta mutil izaten irakasten duen eragile gisa ulertuta. Jarduera honen baitan gauzatzen diren bisitetan irakurketa hori gehiegi azpimarratzen ez dela egia den arren, egia da, halaber, izatez horretarako erabiltzen ditugun zenbait jostailu eta abar aurkezten zaizkicela, irakaskuntza- eta ikaskuntza-tresnekin egiten dugun era berean, oroitzapenak gogora ekartzeko. Horregatik, museoaren bildumako objektu jakin batzuek

oroitzapenak gogora ekartzeko duten ahalmenak “balio terapeutiko” handia du (Monzó *et al.*, 2019).



Bisita gidatua Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoa (UPV/EHU):
Irakaskuntza eta ikaskuntzei eskainitako espazioa.
(Iturria: Museoaren web-orrian daukagun jardueraren bideoa <https://bit.ly/3UAFm59>)

Bitartekariaren figuraren garrantziak adituen adostasuna lortu du (Delgado, 2016; Escobar, 2018; García, 2014; García *et al.*, 2012), museoek zaintzapean ditudun bildumen –gure kasuan hezkuntzaren ondare historikoa osatzen duen bildumaren– eta parte-hartzaileen arteko loturak ezartzeaz arduratzen den pertsona baita. Hau da, parte-hartzaileei museoeko bilduma edo/eta diskurtsoarekin pertsonalki identifikatzea ahalbidetzen dien (Escobar, 2018), parte hartzaileek emandako erantzunak eta ekarpenak baliozkotzearen (García *et al.*, 2012), eta errefortzu positiboaren bidez (García, 2014) parte-hartzea sustatzeaz arduratzen den (Delgado, 2016; Escobar, 2018; García, 2014; García *et al.*, 2012) pertsona denez gero. Horregatik, behaketan eta entzutean oinarritutako akonpainamenduaren bidez, bitartekariak, parte-hartzaileak estimulatuta mantentzeaz gain (Escobar, 2018), taldekideen arteko interakzioa eta elkarreragina bultzatu behar ditu (Escobar, 2018; García, 2014), eta hori, parte-hartzaileak euren eskola oroitzapenak partekatuzera gonbidatuz eta animatuz egin beharko du (García *et al.*, 2012), ondoren partekatu dituzten oroitzapen horiek ondareari buruzko azalpe-ekin uztartzeko (García, 2014; García *et al.*, 2012).

Aurkeztutako hiru espazioetara –Euskararen eta Hezkuntzaren mundura, eskola gunera, eta irakaskuntzen eta ikaskuntzen gunera– bisita gidatua amaitu ondoren, sarrerara itzultzen gara, bi zeregin nagusi egitera bideratutako tailerra egiteko. Egin beharreko zereginetako bat eskola-gunean, hau da, ikasgelan, izan dituzten inpresio, zirrara, hunkipen, sentsazio eta antzerako sentipenak idazteari dagokio. Bigarren zeregina eskolako objektuen argazki sorta bat (10-12 irudi) bi

taldetan sailkatzea da, haien garaikoak edo modernoagoak diren kontuan hartuta. Honekin, jarduera amaitutzat ematen dugu, eta ebaluazio bat egiteko eskatu zaie.



Tailerra: Eskolako espazioan izan dituzten sentipenen idazlana.

Iturria: Jardueraren harira egindako eta museoko web-orrian jarritako bideoa <https://bit.ly/3UAfM59>

Jarduera hori ikuspegi kualitatibo batetik ebaluatzen da, museoko langileen behaketa parte-hartzailean eta horien landa-oharretan oinarrituta.

8.3. EMAITZAK

Hezkuntzaren ondare historikoa parte-hartzaileen eskola-aldiko eta haurtzaroko oroitzaupenak gogora ekartzeko estimulu gisa erabiltzeari dagokionez, emaitzek agerian utzi dute parte-hartzaileek oraindik ere beren eskola-aldiko eta garai hartako oroitzaupen asko mantentzen dituztela. Horregatik, garai hartako objektu jakin batzuk ikusteak, hala nola, Francoren argazkia hormatik zintzilik, *Domund*-erako itsulapikoak, ikasmahaiak, tintontziak, maisuaren zigarroak eta makila, eta abar, oroitzaupen batzuk berpizten ditu haiengan, zeinak, gainera, partekatzerara ausartzen diren.

Argazkiek, adibidez, parte-hartzaileengan erreakzioak eragin dituztela ikusi dugu. Horien artean, esaterako, Francoren argazkiak; parte-hartzaileetako batek *“siempre estaba en el colegio”* [beti zegoen eskolan] esanez erreakzionatu du, beste batek *“ese mató a más gente que...”* [horrek jende pila bat hil zuen] gehitu nahi izan du, bere taldekidearen *“quita, quita... no lo quiero ni ver”* [kendu, kendu, ez dut ikusi ere egin nahi] adierazpenarekin jarraituz. Beste parte-hartzaile bati urtero oroigarri moduan egiten eta ematen zitzaien erretratu indibiduala egin zaio deigarrien, eta hainbatek, beraiek ere etxean horrelako argazkiak zituztela gogo-

ratzen zuten. Gainera, beste parte-hartzaile batek, argazki berean, ikasleen mantala identifikatu du “*yo tenía esas batas*” [nik horrelako mantalak nituen] argazkian ikasleak soinean daraman mantalari erreferentzia eginez. Era berean, “Euskararen eta Hezkuntzaren mundua” gunean, adibidez, Sabino Arana ezagutzen ote duten galdetu zaie haren argazki bat seinalatuz. Batzuei irribarrea eragin die eta beste parte-hartzaile batek “eta Leizaola” erantzun du, Jesus M^a Leizaolaren erretratu bat areto bereko panel batean —moderatzaileak aipatu baino lehen— bereiztu duenean.

Hala ere, argazkiek ez ezik objektuek ere oroitzapen ugari berpiztu dutela esan dezakegu, borondatez partekatu dituzten pasadizoetan, kideen arteko barre konplizeetan, eta bitartekariak emandako azalpenen aurrean izan dituzten jarretan oinarrituta, besteak beste, azalpenen bitartean askok buruarekin baiezkoa egiten zutela, bitartekariak egindako galderei emandako erantzunak, eta bitartekariak aurretik beren eskola-aldiari buruzko pasarte edo iruzkin bat partekatzeke eskatu gabe ere egin dituzten esku-hartzeak aintzat hartuta. *Domund*-eko itsulapikoak, adibidez, gehienek ezagutu dituzte, eta bitartekariak aipatu baino lehen izena jartzeko eta funtzio bat esleitzeko gai dira. “*Moderador: Y, de esto, ¿os acordabais? Participante: ¡Ah sí, del Domund!*” [Bitartekaria: Eta honetaz, gogoratzzen al zineten? Parte-hartzailea: Ah bai, Domund-az!] zeinari beste parte-hartzaile batek gehitu dion “*para sacar perras*” [dirua ateratzeko]. Gauza bera gertatzen da ikasmahaiekin, hau da, objektua ikusi bezain laster hau identifikatzeko eta izendatzeko gai dira nahiz eta bitartekariak oraindik ez duen objektua aipatu: “*¡Ah! ¡Mira, pupitres!*” [Hara! Begira, ikasmahaiak!], zehazki zein motatakoak ziren gogoratuz “*Yo esos pupitres he utilizado... esos de ahí así ya no...*” [Nik horrelako ikasmahaiak erabili ditut, hango horiek bezalakoak ez ordea]. Era berean, ikasmahaietako zuloek parte-hartzaileetako baten arreta piztu dute, zeinak, zulo horien zertarakoaz berehala jabetuta, zera esan baitzuen: “*para los tinteros*” [tintontzientzat]. Ildo berari jarraituz, bitartekariak, tinta nola egiten zen gogoratzen ote duten (ikasgelako irakaslearen mahaian baliabide horiek ditugulako) galdetu die, eta hainbat parte-hartzailearen artean “*¡polvo!*” [hautsa!], “*¡agua!*” [ura!], etab. osagai desberdinak zerrendatzen hasi dira. Jarraian, tintontziak erakutsi zaizkie, eta garai hartan lumaz idazten zutenari buruz hitz egiten hasi gara. El-karrizketak norabide hau hartu duenean, batzuk oroitzapenak partekatzen hasi dira: “*era fácil pero algunas veces nos ensuciábamos*” [erraza zen, baina, batzuetan zikindu egiten ginen] edo “*yo sigo escribiendo con pluma, ya me he acostumbrado*” [nik lumaz idazten jarraitzen dut, dagoeneko ohitu naiz].

Ikusten ari garen moduan, parte-hartzaileek ezagunak dituzte museoan topatzen dituzten objektuak, eta gai dira objektu horiek identifikatzeaz gainera, hauek izendatzeko, hauekin nolabaiteko lotura duten gertakari edo pasadizo pertsonalak gogoratzeko edo/eta garai hartan izan zitzaketen funtzioak aipatzeko. Adibidez, irakaslearen mahai gaineko zigarro-paketea ikustean, parte-hartzaileetako batek garai hartako bi tabako-markaren izenak gogoratzen ditu; beste

